




Instituto Vasco del Conocimiento  
de la Formación Profesional  
Lanbide Heziketaren  
Ezagutzaren Euskal Institutua

**Fp**

**EUSKADI**  
LANBIDE HEZIKETA



OSASUNA

Oinarrizko Curriculum Diseinua

**AHOAREN ETA HORTZEN HIGIENEKO  
GOI-MAILAKO TEKNIKARIA**



# AURKIBIDEA

|   |                 |
|---|-----------------|
| <b>1. TITULUAREN IDENTIFIKAZIOA</b>   | <b>4. or.</b>   |
| <b>2. LANBIDE PROFILA ETA LANBIDE INGURUNEA</b>   | <b>4. or.</b>   |
| 2.1 Konpetentzia orokorra   |                 |
| 2.2 Kualifikazioen eta konpetentzia-atalen zerrenda   |                 |
| 2.3 Lanbide-ingurunea   |                 |
| <b>3. HEZIKETA ZIKLOAREN IRAKASGAIK</b>   | <b>5. or.</b>   |
| 3.1 Heziketa-zikloaren helburu orokorrak  |                 |
| 3.2 Lanbide-moduluaren zerrenda, ordu-esleipena eta kurtsoa   |                 |
| 3.3 Lanbide-moduluak  |                 |
| 1. Harrera eta logistika hortz-klinikan   |                 |
| 2. Aho-barrunbearen azterketa   |                 |
| 3. Aho-barrunbearen miaketa   |                 |
| 4. Aho-hortzetako interbentzioa   |                 |
| 5. Epidemiologia aho-osasunean  |                 |
| 6. Aho-osasunerako hezkuntza  |                 |
| 7. Kontserbatzailea, periodontzia, kirurgia eta inplanteak  |                 |
| 8. Protesiak eta ortodontzia  |                 |
| 9. Lehen laguntzak  |                 |
| 10. Fisiopatologia orokorra   |                 |
| 11. Aho-hortzen higieneko proiektua   |                 |
| 12. Ingeles teknikoa  |                 |
| 13. Laneko prestakuntza eta orientabidea  |                 |
| 14. Enpresa eta ekimen sortzailea   |                 |
| 15. Lantokiko prestakuntza  |                 |
| <b>4. GUTXIENEN ESPAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK</b>  | <b>126. or.</b> |
| 4.1 Espazioak   |                 |
| 4.2 Ekipamenduak  |                 |
| <b>5. IRAKASLEAK</b>  | <b>127. or.</b> |
| 5.1 Irakasleen espezialitateak eta irakasteko eskumena heziketa-zikloko lanbide-moduluetan              |                 |
| <b>6. LANBIDE MODULUEN ARTEKO BALIOZKOTZEAK</b>   | <b>128. or.</b> |
| <b>7. TITULUKO LANBIDE MODULUEN ETA KONPETENTZIA ATALEN ARTEKO TRAZABILITATE ETA EGOKITASUN LOTURAK</b> | <b>129. or.</b> |
| 7.1 Konpetentzia-atalen egokitasuna lanbide-moduluekin, horiek baliozkotu edo salbuesteko               |                 |
| 7.2 Lanbide-moduluaren egokitasuna konpetentzia-atalekin, horiek egiaztatzeko                           |                 |



## 1. TITULUAREN IDENTIFIKAZIOA

Ahoaren eta Hortzen Higieneko goi-mailako teknikariaren titulua elementu hauek identifikatzen dute:

- Izena: Ahoaren eta hortzen higiena.
- Maila: Goi-mailako Lanbide Heziketa.
- Iraupena: 2.000 ordu.
- Lanbide-arloa: Osasuna.
- Irakaskuntzaren Nazioarteko Sailkapen Normalizatuko erreferentea: INSN-5b.
- Goi-mailako hezkuntzako kualifikazioen Espainiako esparruan duen maila: 1. maila, goi-mailako teknikaria.

## 2. LANBIDE PROFILA ETA LANBIDE INGURUNEA

### 2.1 Konpetentzia orokorra

Titulu honen konpetentzia orokorra da pertsonen eta gizartearen aho-hortzen osasuna sustatzea prebentzioko jardueren eta jarduera tekniko-asistentzialen bidez –alegia, teknika odontologikoak egin, aztertu, ebaluatu eta sustatuta, odontologiako edo estomatologiako profesionalekin lankidetzan–. Aho-hortzetako osasun-talde bateko kide gisa, kalitateko, segurtasuneko eta baliabideen optimizazioko irizpideekin beteko du bere lanbide-jarduera.

### 2.2 Titulu honetan biltzen diren Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionaleko kualifikazioen eta konpetentzia-atalen zerrenda:

Osatutako lanbide-kualifikazioa:

- a. Ahoaren eta hortzen higiena SAN489\_3 (140/2011 Errege Dekretua, otsailaren 4koa, Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionala osatzen duena, osasuneko lanbide-arloko lau lanbide-kualifikazio ezartzearen bidez). Konpetentzia-atal hauek barne hartzen ditu:
  - UC1591\_3: Aho-hortzetako kabinete bateko lan-arloa kudeatzea.
  - UC1592\_3: Aparatu estomatognatikoaren ezaugarri anatomikoak, fisiologikoak eta patologikoak identifikatzea, balioespena eta erregistroa egiteko.
  - UC1593\_3: Osasun-zerbitzuetako paziente/erabiltzaileen aho-hortzen osasun-egoera miatzea, helburu epidemiologikoetarako eta zuzeneko jarduketan bidez esku hartzeko.
  - UC1594\_3: Pertsonen eta gizartearen aho-hortzen osasuna ebaluatzea, ikuskaritza epidemiologikoko jardueren bidez.
  - UC1595\_3: Pertsonen eta gizartearen aho-hortzen osasuna sustatzea, osasun-hezkuntzako eta osasun-sustapeneko jardueren bidez.
  - UC1596\_3: Teknika odontologikoak egitea (berezkoak, delegatutakoak edo laguntzakoak), aho-hortzen osasuneko taldearen barruan.



## 2.3. Lanbide-ingurunea

1. Titulu hori eskuratzen dutenek osasun publikoko eta pribatuko sektorean, osasun-arretako arloan eta osasun-sustapenekoan betetzen dute beren lanbide-jarduera; hala, aho-hortzen osasuneko talde egituratuetakoa kide izaten dira, lehen mailako arretako taldeetakoak, osasun-sustapeneko unitateetakoak eta hortzetako kontsulta edo kabinete pribatuetakoak. Prebentzioko eta osasun-arretako talde batean sar daitezke, mediku batek koordinatuta. Antolamendu- eta kudeaketa-zereginak betetzen dituzte hortzen unitatean edo kabinetean, laguntza- eta prebentzio-zerbitzuak eskaintzen dizkiote gizarteari, eta horien kalitatea kontrolatzen dute, ikuskaritza epidemiologikoko eta osasun-hezkuntzako jardueren bidez. Haien lanbide-jarduera administrazio eskudunak ezarritako araudiaren pean dago.

2. Zeregin eta lanpostu aipagarrienak hauek dira:

- Ahoaren eta Hortzen Higieneko goi-mailako teknikaria.
- Hortzen higieneko teknikari espezialista.
- Aho-hortzen higienista.
- Aho-hortzetako osasunaren hezitzailea.

## 3. HEZIKETA ZIKLOAREN IRAKASGAIK

### 3.1 Heziketa-zikloaren helburu orokorrak:

1. Kudeaketa-sistemak aztertzea eta programa informatikoak erabiltzea, pazienteen fitxategiak kudeatzeko.
2. Aho-hortzen arretarako prebentzio- eta laguntza-prozedurak hautatzea, dokumentuen eta araudiaren interpretazioaren bidez, arriskuak prebenitzeko eta baliabideak hobetzeko.
3. Ekipoen eta materialen biltegia kudeatzeko teknikak aplikatzea, haien erosketa eta biltegiratzea kudeatzeko.
4. Mantentze-plana interpretatzea, ezarritako kalitate-protokoloen arabera, instalazio eta ekipoen eraginkortasuna ziurtatzeko.
5. Miaketa- eta ebaluazio-prozedurak aplikatzea, aho-hortzen patologia-zantzuak antzemateko protokoloak interpretatuz.
6. Erabiltzailearen ezaugarri anatomofisiologikoak eta patologikoak zein diren jakitea, miaketa eta proben emaitzak aztertuta, prozedurak programatzeko eta egokitzeke.
7. Lan-prozedurak eta protokoloak hautatzea, pazientearen beharren arabera, prebentzio-teknikak aplikatzeko.
8. Diagnostiko-teknikak aplikatzea irudiaren arabera, hortzetako erradiografiak eskuratzeko.
9. Programa eta herritar-talde jakin bati buruzko jarduerak, baliabideak eta gauzatze-sekuentzia zehaztea, beharrezko jarduketak planifikatzeko eta garatzeko.
10. Pazientearen ezaugarriak identifikatzea eta aho-hortzen tratamenduei laguntza emateko teknikak aplikatzea, erabiltzaileari laguntza psikologikoa emateko.
11. Lanbide-jarduera baten garapenerako jarduketak aurreikustea eta prozedura alternatiboak hautatzea, ustekabeak ebazteko.
12. Lehen laguntzen teknikak identifikatzea, ezarritako jarduketa-protokoloen arabera, hasieran oinarritzko arreta eskaintzeko larrialdi-egoeretan.
13. Sektoreko bilakaera zientifikoarekin, teknologikoarekin eta antolamendukoarekin lotzen diren ikaskuntza-baliabideak eta -aukerak aztertzea eta erabiltzea, baita informazioaren eta komunikazioaren teknologiak ere, eguneratze-izpirituari eusteko

- eta laneko egoera berrietara eta egoera pertsonal berrietara egokitzeko.
14. Komunikazio-estrategiak eta -teknikak aplikatzea eta transmitituko diren edukietara, xedera eta hartzaileen ezaugarrietara egokitzea, komunikazio-prozesuen eraginkortasuna ziurtatzeko.
  15. Sormena eta berrikuntzako izpiritua garatzea, lanaren eta norberaren bizitzaren prozesuetan eta antolamenduan agertzen diren erronkei erantzuteko.
  16. Erabakiak arrazoituta hartzea eta, horretarako, tartean diren aldagaiak aztertzea, hainbat esparrutako jakintzak integratzea eta arriskuak eta erabaki okerrak hartzeko aukera onartzea, askotariko egoerei, arazoei edo gorabehereri aurre egiteko eta horiek ebazteko.
  17. Gidaritza-, motibazio-, gainbegiratze- eta komunikazio-teknikak garatzea talde-laneko testuinguruetan, betiere lantaldeen antolamendua eta koordinazioa errazteko.
  18. Laneko arriskuen prebentzioko eta ingurumen-babeseko egoerak ebaluatzea, norberaren eta taldearen prebentziorako neurriak proposatuz eta aplikatuz, lan-prozesuetan aplikatzekoa den araudiaren arabera, betiere ingurune seguruak bermatzeko.
  19. Irigarritasun unibertsalari eta «guztiontzako diseinua»ri erantzuteko beharrezkoak diren lanbide-ekintzak identifikatzea eta proposatzea.
  20. Kalitate-parametroak identifikatzea eta aplikatzea ikaskuntza-prozesuan egindako lanetan eta jardueretan, ebaluazioaren eta kalitatearen kultura baloratzeko eta kalitate-kudeaketako prozedurak gainbegiratzeko eta hobetzeko gai izateko.
  21. Ekintzailetzako, enpresako eta ekimen pertsonaleko kulturarekin lotzen diren prozedurak erabiltzea, enpresa txiki baten oinarritzko kudeaketa egiteko edo lan bat egiteko.
  22. Baldintza sozialak eta lanekoak arautzen dituen lege-esparrua kontuan harturik, gizarteko agente aktibo gisa dituen eskubideak eta betebeharrak zein diren jakitea, herritar demokratiko gisa parte hartzeko.



### 3.2 Lanbide-moduluen zerrenda, ordu-esleipena eta kurtsoa:

| LANBIDE MODULUA   | Ordu-esleipena | Kurtsoa |
|---|----------------|---------|
| 0730. Harrera eta logistika hortz-klinikan                    | 132            | 1       |
| 0731. Aho-barrunbearen azterketa                              | 165            | 1       |
| 0732. Aho-barrunbearen miaketa                                | 132            | 1       |
| 0733. Aho-hortzetako interbentzioa                            | 165            | 1       |
| 0734. Epidemiologia aho-osasunean                             | 132            | 1       |
| 0735. Aho-osasunerako hezkuntza                               | 140            | 2       |
| 0736. Kontserbatzailea, periodontzia, kirurgia eta inplanteak | 160            | 2       |
| 0737. Protesiak eta ortodontzia                               | 140            | 2       |
| 0020. Lehen laguntzak   | 60             | 2       |
| 1370. Fisiopatologia orokorra                                 | 165            | 1       |
| 0738. Aho-hortzen higieneko proiektua                         | 50             | 2       |
| E-200. Ingeles teknikoa                                       | 40             | 2       |
| 0739. Laneko prestakuntza eta orientabidea                    | 99             | 1       |
| 0740. Enpresa eta ekimen sortzailea                           | 60             | 2       |
| 0741. Lantokiko prestakuntza                                  | 360            | 2       |
| <b>Zikloa, guztira</b>  | <b>2.000</b>   |         |

### 3.3 Lanbide-moduluak: aurkezpena, ikaskuntzaren emaitzak, ebaluazio-irizpideak, edukiak eta orientabide metodologikoak

# 1. lanbide-modulua

## HARRERA ETA LOGISTIKA HORTZ-KLINIKAN

### a) Aurkezpena

|                            |   |
|----------------------------|---|
| Lanbide-modulua:           | <b>Harrera eta logistika hortz-klinikan</b>   |
| Kodea:                     | 0730  |
| Heziketa-zikloa:           | Ahoaren eta hortzen higieena  |
| Maila:                     | Goi-maila   |
| Lanbide-arloa:             | Osasuna   |
| Iraupena:                  | 132   |
| Kurtoa:                    | 1   |
| Kreditu kop.:              | 7   |
| Irakasleen espezialitatea: | Prozesu sanitarioak<br>(Bigarren Hezkuntzako irakaslea)   |
| Modulu mota:               | Kompetentzia-atal honi lotuta dago:<br>UC1591_3: Aho-hortzetako kabinete bateko<br>lan-arloa kudeatzea. |
| Helburu orokorrak:         | 1 / 2 / 3 / 4 / 14 / 15 / 16 / 18   |

### b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Aho-hortzen osasunerako klinikako eta unitateko jarduerak antolatzen ditu, lan-karga aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- Aurreikusitako laguntza, baliabideak, bitartekoak eta lan-taldearen beharrak kontuan hartuta antolatu du bere lana.
- Instalazioak eta ekipoak prestatu ditu, jarduera hasteko zerbitzuan edo hortz-klinikan.
- Zuzen sartu du eguneroko jardueraren berezko informazioa base informatikoetan, aurretik zehaztutako irizpideen arabera.
- Jarduera klinikoan eta zerbitzuaren edo hortz-klinikaren kudeaketa-jardueren zerrendak eta laburpenak egin ditu.
- Amaierako jarduerak egin ditu, besteak beste, ekipoak itzali, hurrengo jardunaldia prestatu edo instalazioak itxi.
- Hainbat hondakin mota tratatzeko eta ezabatzeko lanak kudeatu ditu.
- Ordena eta zehaztasuna zaintzea balioetsi du lan egitean.

2. Prozesuak aplikatzen ditu pazienteak hartzeko, eta emango den zerbitzuarekin lotzen ditu haien eskaerak.



Ebaluazio-irizpideak:

- a) Giza baliabideekin lotu ditu zerbitzuko arreta- eta prestazio-prozesuaren faseak eta eragiketak.
- b) Zerbitzuaren arreta- eta prestazio-kalitatea zehazten duten faktoreak identifikatu ditu.
- c) Pazientearen prestatze-prozesua erabaki du, zerbitzua emateko.
- d) Pazienteak eta beste pertsona batzuk zerbitzuko edo hortz-klinikako harreran jasotzeko teknikak aplikatu ditu.
- e) Pazienteei hitzordua emateko prozedurak aplikatu ditu, ezarritako protokoloari jarraiki.
- f) Hortz-klinika bateko berezko harrera-jarduerak egin ditu, besteak beste, posta edo paketeak kudeatu eta telefonoa hartu.
- g) Informazioa argi, zuzen eta kasu bakoitzera egokituta eman die pertsoneri.
- h) Fakturak jaso behar dituen gutxieneko datuak zehaztu ditu.
- i) Ordainketa-modalitateei buruzko informazioa prestatu du.
- j) Zerbitzuak kobratzeko teknikak aplikatu ditu.
- k) Marketin-estrategiak garatu ditu, ordura arteko bezero edo erabiltzaileei eusteko eta bezero edo erabiltzaile izan daitezkeenak erakartzeko.
- l) Errespetuz jokatu du une oro pazienteekin eta lantaldearekin.

3. Pazienteen fitxategiak kudeatzen ditu, eta, horretarako, aplikazio informatikoak baliatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Hortz-kliniketako datu-baseen ezaugarriak eta aplikazioak identifikatu ditu.
- b) Pazienteen datuak erregistratu ditu aplikazio informatikoetan.
- c) Datu-baseak erabili ditu, produktuak eskuratzeko, hala nola jardueren zerrendak edo laburpenak.
- d) Datu-baseak eguneratu ditu.
- e) Segurtasun-kopiak egin ditu, protokoloetan ezarritako frekuentzien arabera.
- f) Egiaztatu da datu-baseak erabiltzean indarrean dagoen araudia bete duela.
- g) Datuen babesari buruzko legeria eta araudia aplikatu du.

4. Dokumentazio klinikoa kudeatzen du, eta, horretarako, dokumentuak identifikatzen ditu inplikaturako beharren eta zerbitzu kliniko motaren arabera.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Sare publikoko eta pribatuko hortz-klinika eta -zerbitzuetako dokumentuen ezaugarriak identifikatu ditu.
- b) Dokumentuak sailkatu ditu, egingo diren jardueren arabera.
- c) Dokumentuak bete ditu, ezarritako protokoloari jarraiki.
- d) Datuak erregistratu ditu historia klinikoan.
- e) Egindako tratamenduen txostenak prestatu ditu.
- f) Jakinarazitako baimena erabili du, bidezkoa izan denean.
- g) Dokumentuak tramitatu ditu.
- h) Dokumentuak artxibatu eta gorde ditu, ezarritako arauari jarraiki.
- i) Aplikatzekoa den lege-araudia bete du.
- j) Datuen isilpekotasuna gorde du, dokumentuak erabili bitartean.
- k) Kalitate-sistemari erantzuten dioten beharrezko erregistroak identifikatu ditu.

5. Ekipoak prestatu eta martxan jartzen ditu, eta, horretarako, erabilera-baldintzak identifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ekipo bakoitzeko elementu nagusiak identifikatu ditu.
- b) Ekipoen eta makineriaren funtzioak eta erabilera-baldintzak identifikatu ditu.
- c) Ekipoak eta makineria martxan jartzeko eta itzaltzeko protokoloak garatu ditu.
- d) Garbitu eta desinfektatzeko jarduerak programatu ditu.
- e) Tresneria eta material esterilizatua banatu du.
- f) Ekipoak berrikusteko plana bete du, operatibo mantentzeko.
- g) Ekipoen jarraibideak eta segurtasun-fitxak interpretatu ditu, erabilera-baldintzak mantentzeko.

6. Materiala eta tresneria eskuratzeko eta biltegitatzeko modua antolatzen du, eta, horretarako, kudeaketa-teknikak aplikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Produktuak salerosteko eta biltegitatzeko prozesuak deskribatu ditu.
- b) Hortz-klinika bateko tresnak, produktuak eta materialak biltegitatzeko ezaugarri eta baldintzak identifikatu ditu.
- c) Biltegitetako eta lan-arloetako izakinen kontrola egin du.
- d) Produktuen eta materialen eskaera egin du, ezarritako jarraibideak kontuan hartuta eta egoera desberdinetan.
- e) Materiala eta produktuak jasotzean, horien kopuruak eta egoera egiaztatu ditu.
- f) Kontuan hartu ditu produktu eta materialak erabiltzeko eta kontserbatzeko baldintzak.
- g) Biltegitetan banatu eta kokatu ditu materiala eta produktuak.
- h) Produktuen erosketari, salmentari eta biltegitatzeari dagokion dokumentazioa kudeatu du.

7. Laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumen-babesari buruzko arauak aplikatzen ditu, lotutako arriskuak eta horiei aurrea hartzeko neurriak eta ekipoak identifikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Aho-hortzen klinika edo osasun-zerbitzu bateko materialak, produktuak, ekipoak eta tresnak manipulatzek dakartzan arriskuak eta arriskugarritasun maila identifikatu ditu.
- b) Hortz-kliniketan jarduerak eta lan-arloko eragiketak egitean hartu beharreko segurtasun-neurriak, eta norbera eta taldea babestekoak deskribatu ditu.
- c) Aho-hortzen klinika edo osasun-zerbitzu bateko materialak, produktuak, ekipoak eta tresneria manipulatzek dakartzan istripu ohikoenen kausak identifikatu ditu.
- d) Arriskuei aurrea hartzeko lehen faktore gisa, instalazioen eta ekipoen ordena eta garbitasuna baloratu ditu.
- e) Sortutako hondakinak sailkatu ditu, gaika biltzeko.
- f) Egindako eragiketetan, laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumen-babesari buruzko arauak bete ditu.



c) Oinarrizko edukiak:

| 1. JARDUERAK ANTOLATZEA HORTZ-UNITATEAN EDO -KLINIKAN |  |
|---|--|
| prozedurazkoak  | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hortz-klinika edo -zerbitzu bateko espazioa eta instalazioak antolatzea.</li> <li>- Ekipoen eta instalazioen oinarrizko mantentze-lanerako eta garbiketarako teknikak aplikatzea.</li> <li>- Hortz-klinika, -kabinete edo -zerbitzu bateko hondakinak kudeatzea. Hondakinak antolatzea eta sailkatzea.</li> <li>- Unitate edo kabinete bateko lana programatzea.</li> <li>- Ordu-tegi eta txandak antolatzea.</li> <li>- Sistema informatikoak erabiltzea, hortz-kliniketako kudeaketarako.</li> </ul>  |
| kontzeptuzkoak  | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hortzen gaineko laguntza emateko zerbitzuak eta klinikak. Establezimenduen sailkapena. Hortz-establezimendu bateko jarduerak eta zerbitzuak. Hortz-laguntzaren ereduak. Legezko betekizunak.</li> <li>- Hortz-klinika bateko profesionalen ekipoa. Antolaketa eta funtzioak.</li> <li>- Aho-hortzen higiena, lanbide gisa. Erantzukizunak eta kompetentziak. Norbere irudia eta higiena. Legeak.</li> <li>- Hortz-klinika bateko instalazioak eta bulegoak. Baldintzak. Oinarrizko ekipoak.</li> <li>- Hondakin sanitarioak. Motak. Kudeaketa-sistemak. Legeak.</li> <li>- Unitate edo kabinete bateko lana programatzeko sistemak eta baliabideak.</li> <li>- Hortz-klinika eta datu-baseak kudeatzeko programak.</li> </ul> |
| jarrerazkoak  | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Norberaren itxuraren eta higienearen gaineko interesa.</li> <li>- Protokoloak zorrotz betetzea.</li> <li>- Zuzentasuna eta errespetua pertsonetikiko tratuan.</li> <li>- Lana arduraz egitea.</li> <li>- Laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumena babesteari buruzko araudiekiko errespetua izatea.</li> <li>- Elkarlanarekiko eta talde-lanarekiko interesa.</li> <li>- Lanbidearekin zerikusia daukan informazioa lortzeko interesa.</li> <li>- Argitasuna eta zehaztasuna, informazioa helaraztean.</li> <li>- Profesionalen eta pazienteen beharrak ulertzeko eta horiei erantzuteko interesa eta kezka.</li> </ul>  |

| 2. PAZIENTEAK HARTZEKO PROZESUAK APLIKATZEA |  |
|---|--|
| prozedurazkoak                              | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Aho-hortzen klinikako edo osasun-zerbitzuko harrera-zerbitzua antolatzea.</li> <li>- Klinika edo zerbitzu bateko harrerari arreta emateko teknikak aplikatzea. Korrespondentzia kudeatzea. Paketeak jasotzea eta bidaltzea. Telefonoari, faxari edo mezu elektronikoei erantzutea. Pazienteen eta hornitzaileen inguruko informazioa erregistratzea eta eguneratzea.</li> <li>- Hitzorduak hartzeko eta aldatzeko, kontrolatzeko eta horien jarraibidea egiteko teknikak aplikatzea.</li> <li>- Komunikazio-teknikak aplikatzea.</li> <li>- Informazioa eta datuen transmisioa prestatzea.</li> </ul> |

|                       |   |
|-----------------------|---|
|                       | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Zerbitzuak fakturatzeko teknikak aplikatzea. Fakturak eta aurrekontuak egitea. Zerbitzuak ordaintzea eta kobratzea.</li> <li>- Marketin-estrategiak aplikatzea. Informazioa biltzea. Planen segimendua egitea.</li> </ul>  |
| <b>kontzeptuzkoak</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Aho-hortzen klinikako edo osasun-zerbitzuko harrera. Harreran jendeari, oro har, edo profesionalei arreta emateko prozesuak. Pertsonetikiko tratua ezaugarriak eta baldintzak. Pertsonen arreta emateko kalitatea zehazten duten irizpideak. Indarrean dagoen araudia.</li> <li>- Hortz-klinika bateko harrera baten berezko komunikazio-teknikak. Informazioaren transmisioa. Komunikazioaren elementuak. Zailtasunak. Informazioaren eta hizkeraren ezaugarriak.</li> <li>- Hortz-klinika bateko harreraren berezko jardueri arreta emateko prozesuak. Korrespondentziaren kudeaketa. Paketeen kudeaketa. Telefonoa, faxa, erantzungailua, posta elektronikoa eta antzekoak kudeatzea.</li> <li>- Pazienteei hitzordua emateko prozesua. Hitzordurako dokumentuak. Hitzorduen jarraipena, kontrola eta aldaketa egiteko sistemak.</li> <li>- Zerbitzuak fakturatzeko prozesua. Kobratzeko eta ordaintzeko sistemak. Tarifak. Zerbitzuak kobratzeko eta ordaintzeko dokumentuak. Dokumentu motak, elementuak eta legezko eskakizunak. Aurrekontuak. Fakturak. Ordainagiriak. Kobrantza telematikoa.</li> <li>- Aho-hortzen klinikekin eta osasun-zerbitzuekin lotutako marketin-estrategiak. Merkataritzako hizkuntza eta gutunak.</li> </ul> |
| <b>jarrerazkoak</b>   | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Lana arduraz egitea.</li> <li>- Gorabeherak ebazteko ekimena izatea.</li> <li>- Argitasuna eta zehaztasuna, informazioa helaraztean.</li> <li>- Zuzentasuna eta errespetua, pertsonetikiko tratuan.</li> <li>- Diskrezioa pazienteen eta familien datuak maneiatzean.</li> <li>- Pertsona bakoitzaren baldintza eta egoeretara egokitzeko interesa.</li> <li>- Laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumena babesteari buruzko araudiekiko errespetua izatea.</li> <li>- Elkarlanarekiko eta talde-lanarekiko interesa.</li> </ul>  |

### 3. PAZIENTEEN FITXATEGIAK KUDEATZEA

|                       |   |
|-----------------------|---|
| <b>prozedurazkoak</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Paziente eta erakundearen datuak kudeatzeko teknikak aplikatzea.</li> <li>- Pazienteen datuak erabiltzeko informatika-aplikazioak erabiltzea. Datuak sartzea eta aldatzea. Produktuak eskuratzeko, besteak beste, jardueren zerrendak edo laburpenak. Datuak egiaztatzea. Datu-baseak eguneratzea. Babes-kopiak egitea.</li> <li>- Indarrean dagoen legeria interpretatzea.</li> </ul> |
| <b>kontzeptuzkoak</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Pazienteen datuak kudeatzea. Filiazio-datuak. Datu klinikoak. Osasun-prestazioen erakunde erantzuleen datuak.</li> <li>- Pazienteen datuak erabiltzeko informatika-aplikazioak. Datu-baseak. Aplikazio motak eta erabilgarritasunak. Segurtasuna.</li> <li>- Indarrean dagoen legeria eta araudia. Datuen babesari buruzko segurtasun-dokumentua. Datuak babesteko legeria.</li> </ul> |
| <b>jarrerazkoak</b>   | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ordena eta garbitasuna zaintzea lan egitean.</li> <li>- Zuzentasuna eta errespetua, pertsonetikiko tratuan.</li> <li>- Diskrezioa pazienteen eta familien datuak maneiatzean.</li> </ul>   |



|  |  |
|--|--|
|  | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Indarrean dagoen legeria errespetatzea.</li> <li>- Laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumena babesteari buruzko araudiekiko errespetua izatea.</li> <li>- Elkarlanarekiko eta talde-lanarekiko interesa.</li> </ul> |
|--|--|

#### 4. DOKUMENTAZIO KLINIKOA KUDEATZEA

|                       |   |
|-----------------------|---|
| <p>prozedurazkoak</p> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Dokumentu klinikoak identifikatzea, hautatzea eta sailkatzea.</li> <li>- Dokumentu klinikoak prestatzea.</li> <li>- Dokumentu klinikoak betetzea.</li> <li>- Dokumentuak izapidetzeko (bidalketak, erreklamazioak, eskaerak...) teknikak aplikatzea.</li> <li>- Dokumentuak artxibatzea.</li> <li>- Dokumentuak betetzeko eta kudeatzeko aplikazio informatikoak erabiltzea.</li> <li>- Indarrean dagoen legeria interpretatzea eta aplikatzea.</li> </ul> |
|-----------------------|---|

|                       |  |
|-----------------------|--|
| <p>kontzeptuzkoak</p> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Osasun-antolaketa. Lehen mailako arreta eta espezializatua. Zerbitzu klinikoak. Laguntza-sare publikoa eta pribatua. Prestazioak.</li> <li>- Dokumentu klinikoak. Prestazioak.</li> <li>- Historia klinikoa. Barnean dituen atalak eta dokumentuak. Dokumentuak zaindu eta gordetzea. Betetzeko jarraibideak. Araudia. Historia klinikoen motak.</li> <li>- Beste osasun-dokumentu batzuk. Hitzordurako dokumentuak. Eskaerak. Bolanteak. Eskaerak. Kontsulta arteko dokumentuak. Txostenak. Egiaztagiriak. Baimen informatua.</li> <li>- Hortz-kliniken berezko kalitatea kudeatzeko sistemei dagokien dokumentazioa.</li> <li>- Dokumentuak betetzeko eta izapidetzeko teknikak. Irizpideak eta araudia. Bidalketarako, erreklamazioetarako eta dokumentuak artxibatzeko sistemak. Kalitate-eskakizunak dokumentuen kudeaketan.</li> <li>- Dokumentuak betetzeko eta izapidetzeko aplikazio informatikoak.</li> <li>- Datuen babesa. Konfidentzialtasuna eta lanbide-sekretua. Dokumentazioaren, datuen babesaren eta dokumentazioarekin lotutako eskubide eta betebeharren inguruan indarrean dagoen legeria.</li> </ul> |
|-----------------------|--|

|                     |   |
|---------------------|---|
| <p>jarrerazkoak</p> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Lana arduraz egitea.</li> <li>- Gorabeherak ebazteko ekimena izatea.</li> <li>- Argitasuna eta zehaztasuna, informazioa helaraztean.</li> <li>- Zuzentasuna eta errespetua, pertsonetikiko tratuan.</li> <li>- Diskrezioa pazienteen eta familien datuak maneiatzean.</li> <li>- Indarrean dagoen legeria errespetatzea.</li> <li>- Laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumena babesteari buruzko araudiekiko errespetua izatea.</li> <li>- Elkarlanarekiko eta talde-lanarekiko interesa.</li> </ul> |
|---------------------|---|

#### 5. EKIPOAK PRESTATZEA ETA MARTXAN JARTZEA

|                       |  |
|-----------------------|--|
| <p>prozedurazkoak</p> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hortz-klinika bateko ohiko ekipo edo aparatuak identifikatzea.</li> <li>- Hortz-besaulkia osatzen duten elementuak identifikatzea eta manipulatzeko.</li> </ul> |
|-----------------------|--|

|                       |   |
|-----------------------|---|
|                       | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ekipoak martxan jartzeko, erabiltzeko, mantentzeko eta amatatzeko teknikak aplikatzea.</li> <li>- Ekipoen higiene- eta garbiketa-teknikak aplikatzea.</li> <li>- Garbiketa-, desinfekzio- eta esterilizazio-kontrola ekipo eta instalazioetan.</li> <li>- Kabineteak prestatzea eta tresneria birjartzea eguneroko lanerako.</li> <li>- Matxurak kudeatzea eta aldi behingo berrikuspenak kontrolatzea.</li> <li>- Hortz-klinika bateko dokumentazioa eta oinarrizko ekipoen jarraibideak interpretatzea.</li> </ul>   |
| <b>kontzeptuzkoak</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hortz-klinika bateko oinarrizko ekipamendua. Ezaugarriak. Aplikazioak. Martxan jartzeko, erabiltzeko, mantentzeko eta amatatzeko teknikak.</li> <li>- Ekipoetarako garbiketa- eta higiene-sistemak. Garbitu, desinfektatu eta esterilizatzeko kontrol-sistemak.</li> <li>- Kabineteetan tresneria birjartzeko sistemak.</li> <li>- Ekipoak mantentzeko teknikak. Infekzioen kontrolerako ohiturak.</li> <li>- Matxuren kudeaketa. Aldizkako berrikuspenak.</li> <li>- Ekipo eta makinen dokumentazioa. Jarraibideak eta segurtasun-fitxak.</li> <li>- Ekipamendua maneiatzeari lotutako lan-arriskuak eta neurriak.</li> </ul> |
| <b>jarrerazkoak</b>   | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Lana arduraz egitea.</li> <li>- Ordena eta garbitasuna zaintzea lan egitean.</li> <li>- Gorabeherak ebazteko ekimena izatea.</li> <li>- Profesionalen eta pazienteen beharrak ulertzeko eta horiei erantzuteko interesa eta kezka.</li> <li>- Indarrean dagoen legeria errespetatzea.</li> <li>- Laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumena babesteari buruzko araudiekiko errespetua izatea.</li> <li>- Elkarlanarekiko eta talde-lanarekiko interesa.</li> </ul>  |

## 6. MATERIALA ETA TRESNERIA ESKURATZEKO ETA BILTEGIRATZEKO MODUA ANTOLATzea

|                       |   |
|-----------------------|---|
| <b>prozedurazkoak</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Oinarrizko tresneria, produktuak eta materialak identifikatzea.</li> <li>- Produktuak erosteko teknikak aplikatzea. Aurrekontuak eskatzea eta ordainketak izapidetzea.</li> <li>- Biltegiak kudeatzeko teknikak aplikatzea. Produktuak banatu eta ipintzea. Produktuen baldintzak egiaztatzea. Izakinen kontrola. Inbentarioak egitea. Biltegi-fitxak egitea.</li> <li>- Eskaerak kudeatzea. Eskaerak egitea. Produktuak hartzea.</li> </ul>   |
| <b>kontzeptuzkoak</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hortz-klinika bateko oinarrizko tresneria, produktu eta materialak. Sailkapena. Ezaugarriak. Katalogoak.</li> <li>- Erosketak kudeatzea. Erosteko eta ordaintzeko dokumentuak. Eskaerak. Emate-agiriak. Fakturak. Zerga-betebeharrak.</li> <li>- Osasun-biltegien kudeaketa. Biltegiratzeko sistemak. Osasun-biltegietan produktuak eta materialak mantentzeko baldintzak. Biltegien dokumentazioa. Inbentarioak. Biltegi fitxak.</li> <li>- Eskaerak kudeatzea. Produktuak eskatzeko eta hartzeko sistemak.</li> <li>- Produktu eta materialen kudeaketarekin lotutako aplikazio informatikoak.</li> <li>- Produktuak erabiltzeari eta manipulatzeari lotutako lan-arriskuak eta neurriak.</li> </ul> |
| <b>jarrerazkoak</b>   | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ordena eta garbitasuna zaintzea lan egitean.</li> </ul>  |



|  |   |
|--|---|
|  | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Erantzukizuna bere funtzioak betetzean.</li> <li>- Argitasuna eta zehaztasuna, informazioa helaraztean.</li> <li>- Profesionalen eta pazienteen beharrak ulertzeko eta horiei erantzuteko interesa eta kezka.</li> <li>- Indarrean dagoen legeria errespetatzea.</li> <li>- Laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumena babesteari buruzko araudiekiko errespetua izatea.</li> </ul> |
|--|---|

**7. LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOARI ETA INGURUMEN-BABESARI BURUZKO ARAUAK APLIKATZEA**

|                |   |
|----------------|---|
| prozedurazkoak | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Instalazio, ekipo eta lan-prozeduretan norbere eta ingurumeneko arriskuak identifikatzea.</li> <li>- Arriskuen sinbologia identifikatzea.</li> <li>- Laneko arriskuen prebentzioari buruzko neurriak zehaztea.</li> <li>- Banakoen eta taldeen prebentzio- eta babes-sistemak hautatzea.</li> <li>- Laneko arriskuak prebenitzeko eta horietatik babesteko sistemak erabiltzea.</li> <li>- Lan-ingurunean arriskuak gutxitzeko arauak eta sistemak aplikatzea.</li> <li>- Laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia betetzeko neurriak aplikatzea.</li> <li>- Larrialdietarako oinarrizko botikin baten osagaiak erabiltzea.</li> <li>- Hondakin arriskutsuen sailkapena, arriskuaren eta araudiaren arabera.</li> <li>- Hondakin arriskutsuak kudeatzeko eta ezabatzeko protokoloak aplikatzea.</li> </ul>   |
| kontzeptuzkoak | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Norberaren gaineko eta ingurumeneko arriskuak hortz-kliniketan. Arrisku-faktoreak eta -egoerak. Lan-ingurunearen faktore fisikoak. Babes erradiologikoa. Lan-ingurunearen faktore kimikoak. Faktore biologikoak: Babes biologikoa. Txertoak. Faktore psikosozialak.</li> <li>- Segurtasuna hortz-klinikan. Arriskuak prebenitzeko eta horietatik babesteko neurriak. Norbera babesteko ekipamendua eta bitartekoak. Prebentzio eta babes kolektiboa. Seinaleak. Makinei eta ekipoei aplikatzen zaizkien segurtasun-sistemak. Hortz-klinika bateko berezko larrialdi-egoerak. Jarduteko sistemak. Botikinak.</li> <li>- Hortz-klinika eta -zerbitzuetan laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia.</li> <li>- Ingurumen-kudeaketa. Hondakinen kudeaketa. Sailkatzea eta biltegitratzea. Hondakinak tratatu eta biltzeko sistemak. Hondakinen kudeaketa erregulatzen duen araudia. Ordena eta garbitasuna zaintzeko metodoak eta arauak.</li> </ul> |
| jarrerazkoak   | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Lana arduraz egitea.</li> <li>- Protokoloak zorrotz betetzea.</li> <li>- Gorabeherak ebazteko ekimena izatea.</li> <li>- Indarrean dagoen legeria errespetatzea.</li> <li>- Laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumena babesteari buruzko araudiekiko errespetua izatea.</li> <li>- Lanbidearekin zerikusia daukan informazioa lortzeko interesa.</li> <li>- Ingurumen- eta kultura-ondarea zaintzearen eta babestearen aldeko konpromiso etikoa hartzea.</li> </ul>  |

**d) Orientabide metodologikoak**

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

### 1) Sekuentziazioa

Modulua ahoko osasun-klinika eta -zerbitzuetan lanean diharduten aho-hortzen higienisten eta beste profesional batzuen profil profesionala aztertzen has daiteke (1. blokea). Gero, ahoko asistentzia eskaintzen duten hortz-klinikak, zerbitzuak eta establezimenduak azter daitezke, barnean direla haien instalazioak, ekipamendua, oinarrizko tresneria, egiten duten jardueraren antolaketa eta plangintza... eta establezimendu horien osasun-antolaketa orokorra. Eduki horiek aztertzeko helburua da ikasleek hasieratik jasotzea inguruan izango duten esparru profesionala ulertzeko prestakuntza.

Lanbideko alderdiekin lotura gehien duten edukien aurkezpen honekin batera eta profil profesionalaren edo hortz-kliniken azterlanari dagokionez, lan-arriskuei buruzko azterketa laburra egin daiteke, ikasleek hasieratik jakin dezaten zer arrisku dituzten eta zer neurri hartu behar duten babesteko. Kontua ez da azterketa zorrotza egitea, baina bai arrisku horien eta babes-neurrien aurkezpen antolatua egitea, aurrerantzean, modulu profesional honetan eta beste batzuetan eduki horiek sakonago lantzeko.

Jarraian, dokumentazio klinikoa azter daiteke (4. blokea), historia klinikoa oinarri hartuta eta dokumentu horiek kudeatuta, inplikaturako zerbitzu motarekin lotuta; gero, hortz-kliniketan egiten den administrazio-prozedurekin jarrai daiteke (2., 3. eta 4. blokeak), besteak beste, pazienteei harrera, datuak eta fitxategiak, korrespondentzia, hitzorduen prozesua eta fakturazioa kudeatzea.

Gero, ekipo, biltegi eta produktuekin lotutako edukiak landu daitezke (5. eta 6. blokeak) eta hondakinen kudeaketa (1. eta 7. blokeak), esparru honetan lantzea gomendatzen dena, errazago ulertzeko.

7. blokeko edukiak: "*Lan-arriskuak prebenitzeko eta ingurumena babesteko neurriak aplikatzea*", aurretik esan den bezala, modu sistematizatuan ikas daitezke moduluaren amaieran, nahiz eta hasieran aurkeztu eta unitate didaktikoetan horiekin lotutako zati bakoitza lantzen joan (esate baterako, jardueraren antolaketaren kasuan, zenbait arrisku ikas daitezke, besteak beste, estresa, edo oinarrizko ekipamenduaren kasuan erradiazioek eragindako arriskua ikas daiteke...).

Kontuan hartu behar da, halaber, modulu honetan deskribatzen diren edukiak bat datozela zikloko beste modulu batzuetakoekin eta, horrenbestez, ezinbestekoa dela irakasleen arteko koordinazioa. Alde batetik, hortz-klinika bateko ekipamendua eta tresneria ditugu, garbiketa- eta desinfekzio-teknikak edo historia klinikoa, 2. moduluarekin –"**Aho-barrunbearen azterketa**"– eta 3. moduluarekin –"**Aho-barrunbearen miaketa**"– partekatzen direnak Irakasleek horietako bakoitza nola landu adostu beharko dute, baina, oro har, kontuan hartuko da modulu honetan oinarrizko ezagutza eskuratzeko baino ez direla aurkeztuko eta horietan beste modulu batzuetan sakonduko dela.

Arriskuen prebentzioarekin eta ingurumeneko babesarekin lotutako edukien kasuan proposatzen da modulu honetan sistematizatuta eta nahiko sakon ikastea eta gainerakoetan, besteak beste 3. moduluan –"**Aho-barrunbearen miaketa**"–, beharrezkoa izanez gero, berrikustea eta sistematikoki aplikatzea jardueren garapenean.

### 2) Alderdi metodologikoak



Modulu hau garatzeko komeni da jarduera teorikoagoak beste praktikoago batzuekin konbinatzen joatea. Ia eduki guztiak ikas daitezke teorikoki, baina garrantzitsua da ikasleak inplikaraztea, eta, horretarako, eduki berak ariketen bidez aplikatuta ikas daitezke, besteak beste, fakturak egiten, espazioa antolatzen, inbentarioak egiten, biltegiak antolatzen... ikasiz eta bizitza errealeko egoerak eredu gisa hartuz.

Pertsonetikiko tratuarekin eta harremanarekin lotutako edukietarako (telefono bidezko arreta, hitzorduak, arreta hornitzaileei...), ondo bereizitako egoerak planteatu daitezke eta ahalegina egin daiteke horiek ebazteko kontuan hartuta nola aurre egin dakiekeen edo zer egin beharko litzatekeen, baina, halaber, portaera irudikatu eta hari beha dakioke (keinuak, ahotsa...), aztertu eta hobetu ahal izateko.

Modulu honen garapenean eta edukiak errealean antzeko testuinguruetan aplikatu ahal izateko, ikasleen ohiko gelaz gainera, beste espazio batzuk ere eduki beharko dira. Instalazioekin lotutako edukien kasuan, garrantzitsua izango da ekipatutako klinika baten antzeko lekua erabiltzea, ariketak egiteko: bertan kabinetea antolatzeko, prestatzeko eta batzeko ariketak, ekipoak martxan jartzeko ariketak, biltegiratzeko baldintzak antolatu eta berrikusteko ariketak eta abar.

Bestalde, administrazio-izaerako edukiak horretarako prestatutako espazioetan garatu behar dira, eta interesgarria da ekipo informatikoa eta klinikako kudeaketa-aplikazioa izatea, tartean diren prozesuak mailaz maila ikasteko, besteak beste, pazienteen hitzordu-hartzeak, fitxategien kudeaketa edo produktuaren erosketaren simulazioa.

Moduluaren amaieran, unitate didaktikoetan ikasitako edukiak integratzeko ariketa globalen baten garapena planteatu liteke. Horretarako, laguntza-kasu bat aurkez daiteke, ezaugarri zehatz batzuk dituen, konplexuak edo ez hain konplexuak direnak, eta ikasleei eska dakieke dokumentazio kliniko eta ez-kliniko guztia prestatzeko; kabineterako beharrezko prestakuntzan pentsatzeko, inplikatuta dauden langileetan, zerbitzua kobratzeko sistemari... Beste adibide posible bat lan-denboraren antolaketa izan daiteke (esaterako, eguneko jardunaldia edo astebetekoa), zenbait pazienterekin, eta lan-txandak antolatzea, kabineteak eta ekipoak erabiltzea, produktuak eta materialak aurreikustea etab.

### 3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Hortz-klinika edo -zerbitzu bateko berezko zerbitzu eta profesionalen ezaugarriak.
- ✓ Hortzen inguruan laguntza eskaintzen duten organismoak eta erakundeak identifikatzea.
- ✓ Hortz-klinika edo -zerbitzua osatzen duten elementuak identifikatzea.
- ✓ Hortz-klinika eta -zerbitzu bateko espazioaren eta instalazioen antolaketa.
- ✓ Ekipoak eta instalazioak martxan jartzeko, horien oinarrizko mantentze-lanerako eta garbiketarako teknikak aplikatzea.
- ✓ Kabineteak prestatzea eta tresneria birjartzea eguneroko lanerako.
- ✓ Unitate edo kabinete bateko lana programatzea.
- ✓ Hortz-klinika bateko administrazio-prozesu eta dokumentuen ezaugarriak.
- ✓ Klinika edo zerbitzu bateko harrera.
- ✓ Hitzorduen prozesua kudeatzea.
- ✓ Zerbitzuak fakturatzeko teknikak aplikatzea.
- ✓ Paziente eta erakundeen datuak kudeatzeko teknikak aplikatzea.
- ✓ Dokumentu klinikoaren eta bere zatien ezaugarriak.
- ✓ Dokumentuak bete eta izapidetzea.
- ✓ Hortz-klinika bateko ohiko ekipoen ezaugarriak.

- ✓ Ekipoak martxan jartzeko, erabiltzeko, mantentzeko eta amatatzeko teknikak aplikatzea.
- ✓ Ekipoen higiene- eta garbiketa-teknikak aplikatzea.
- ✓ Kabineteak prestatzea eta tresneria birjartzea eguneroko lanerako.
- ✓ Matxurak kudeatzea eta aldian behingo berrikuspenak kontrolatzea.
- ✓ Produktuak eta biltegia kudeatzea.
- ✓ Instalazio, ekipo eta lan-prozeduretan arriskuak eta seinaleak identifikatzea.
- ✓ Laneko arriskuak prebenitzeko eta horietatik babesteko sistemak erabiltzea.
- ✓ Larrialdietarako oinarrizko botikin baten osagaiak erabiltzea.
- ✓ Hondakin arriskutsuak kudeatzeko eta ezabatzeko protokoloak aplikatzea.
- ✓ Sistema informatikoak erabiltzea, hortz-kliniketako kudeaketarako.
- ✓ Indarrean dagoen legeria interpretatzea.



## 2. lanbide-modulua

### AHO-BARRUNBEAREN AZTERKETA

#### a) Aurkezpena

|                            |   |
|----------------------------|---|
| Lanbide-modulua:           | <b>Aho-barrunbearen azterketa</b>   |
| Kodea:                     | 0731  |
| Heziketa-zikloa:           | Ahoaren eta hortzen higieena  |
| Maila:                     | Goi-maila   |
| Lanbide-arloa:             | Osasuna   |
| Iraupena:                  | 165   |
| Kurtsoa:                   | 1   |
| Kreditu kop.:              | 12  |
| Irakasleen espezialitatea: | Prozesu sanitarioak<br>(Bigarren Hezkuntzako irakaslea)   |
| Modulu mota:               | Konpetentzia-atal honi lotuta dago:<br>UC1592_3: Aparatu estomatognatikoaren ezaugarri anatomikoak, fisiologikoak eta patologikoak identifikatzea, balioespena eta erregistroa egiteko. |
| Helburu orokorrak:         | 5 / 6 / 7 / 13 / 15   |

#### b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Hortzen formazioaren eta irteeraren sekuentzia kronologikoa zehazten du, garapen enbriologikoaren faseekin lotuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- Gizakiaren garapen enbriologikoaren faseak bereizi ditu.
- Buruaren eta lepoaren egitura enbriologikoak identifikatu ditu.
- Hortzen ezaugarri enbriologikoak identifikatu ditu.
- Haginen irteera kronologikoki sekuentziatu du.
- Hortz-taldeen morfologia ezaugarritu du.
- Hortzen nomenklaturaren sistemak deskribatu ditu.
- Ahoaren eta hortzen egituren histologia identifikatu du.
- Erlazio oklusalak eta intermaxilarrak sailkatu ditu.

2. Buruko eta lepoko egitura anatomikoak ezagutzen ditu, eta ezaugarri morfologikoak deskribatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Garezuraren eta aurpegiaren hezur-egiturak definitu ditu.
- b) Garezureko eta aurpegiko muskuluak kokatu ditu.
- c) Garezureko eta aurpegiko pakete baskulonekbiosoak kokatu ditu.
- d) Linfa-sistemaren osagaiak kokatu ditu.
- e) Listu- eta tiroide-guruinak kokatu ditu.
- f) Aho-barrunbearen anatomia deskribatu du.
- g) Egitura tenporomandibularra deskribatu du.

### 3. Aparatu estomatognatikoaren funtzionamendua baloratu eta haren fisiologiarekin lotzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Arnasketan inplikaturik dauden egitura nagusiak deskribatu ditu.
- b) Ahoaren eta hortzen egitura fonazioarekin lotu ditu.
- c) Ahoaren eta hortzen egitura listu-jarioarekin eta irenketarekin identifikatu ditu.
- d) Masailezureko dinamika deskribatu du.
- e) Murtzikatze-, irenketatze- eta fonazio-prozesuak deskribatu ditu.
- f) Azterketa fisikoaren bidez, aparatu estomatologikoaren funtzionamendua egiaztatzen du.
- g) Listu-jarioaren proba funtzionalak egin ditu.

### 4. Txantzar-lesioak ezaugarritzen ditu, faktore etiopatogeniko eta klinikoekin lotuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Plaka bakterianoaren formazio- eta patogenia-prozesua identifikatu du.
- b) Etiopatogenia eta txantzar-lesioak deskribatu ditu.
- c) Txantzarra faktore etiopatogenikoaren arabera sailkatu du.
- d) Hortzen txantzarren ondorio lokalak, erregionalak eta sistemikoak zehaztu ditu.
- e) Dietaren eragina eta txantzarren lotu du.
- f) Proba bereziak egin ditu, pertsona bakoitzak txantzarretarako zer-nolako suszeptibilitatea duen zehazteko.
- g) Txantzarra prebenitzeko eta tratatzeko urratsak zerrendatu ditu.
- h) Txantzarra identifikatzeko proba diagnostikoak deskribatu dira.

### 5. Gaixotasun periodontala ezagutzen du, eta faktore etiopatogeniko eta klinikoekin lotzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Gingibitisaren eta gaixotasun periodontalaren prozesu klinikoan konprometiturik dauden egitura anatomikoak identifikatu ditu.
- b) Etiopatogenia, klinika eta gingibitisaren eta gaixotasun periodontalaren lesioen bilakaera deskribatu ditu.
- c) Gingibitisa eta gaixotasun periodontala horien faktore etiopatogenikoaren arabera sailkatu ditu.
- d) Periodontitisaren ondorio kliniko lokalak, erregionalak eta sistemikoak sailkatu ditu.
- e) Periapikitisaren eta mukositis periapikariaren ezaugarriak identifikatu ditu.
- f) Periodontitisa prebenitzeko eta tratatzeko urratsak zerrendatu ditu.
- g) Gaixotasun periodontala identifikatzeko proba diagnostikoak deskribatu ditu.

### 6. Aho-hortzen barrunbearen beraren nahasmenduak identifikatzen ditu, eta ezaugarri patologikoekin lotzen ditu.



Ebaluazio-irizpideak:

- a) Aho-hortzen mukosaren oinarrizko lesioak ezaugarritu ditu.
- b) Lesioak identifikatu ditu hortzen ehunetan.
- c) Aho-hortzen neoformazio onberak deskribatu ditu.
- d) Aho-barrunbearen bakterio, birus eta onddoengatiko gaixotasunak sailkatu ditu.
- e) Irten aurreko eta osteko hortz-patologia deskribatu du.
- f) Hortzen traumatismoak eta eskeletikoak zerrendatu ditu.
- g) Hortzen maloklusio motak eta ondorio klinikoak sailkatu ditu.
- h) Aho-hortzetako minbizia hautemateko miaketetan aho-hortzetan izaten diren manifestazioak zerrendatu ditu.
- i) Prebentzio- eta terapia-aukerak deskribatu ditu kasu bakoitzean.

7. Aho-hortzen barrunbearen beraren nahasmenduak identifikatzen ditu, eta patologia sistemikoarekin lotzen.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Historia klinikoaren anamnesiaren bidez, aho-hortzetako eta ahotik kanpoko datu patologiko esanguratsuak identifikatu ditu.
- b) Sistema estomatognatikoan zuzeneko eragina duten patologia sistemikoak deskribatu ditu.
- c) Pazientearen egoera orokorraren eraginarekin lotu ditu aho-hortzen zantzuak eta sintomak.
- d) Aho-hortzen kanpoko jatorria duten gaixotasunetan aho-hortzen mukosaren eta ehun bigunen lesio patognomonikoak deskribatu ditu.
- e) Aho-hortzen barrunbean minbiziaren bigarren mailako lesioak identifikatu ditu.
- f) Tratamendu odontologikoko botika nagusiak eta aho-hortzen osasunean eragina duten bigarren mailako eraginak dituzten botikak deskribatu ditu.
- g) Zahartzearekin lotuta dauden aho-hortzen zantzuak eta sintomak lotu ditu.

8. Arrisku-faktoreak identifikatzen ditu paziente berezietan, eta emandako asistentziarekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Tratamendu odontologikoa baldintzatuko duten gaixotasun sistemikoak deskribatu ditu.
- b) Hortzen tratamenduak sailkatu ditu, tratamendu antikuagulantea duten pazienteengan duen odoljario-arriskuaren eta ondorioaren arabera.
- c) Hortzen operatorian tratamendu antikuagulantea duen pazientearen erabilera egokia deskribatu du.
- d) Endokarditis infekziosoaren profilaxi antibiotikoa indikatuta duten hortz-prozedurak sailkatu ditu.
- e) Odontologiako jardun-protokoloak diseinatu ditu, kasu berezietarako, besteak beste, haurdunaldi, oheratu eta droga-mendekotasunetarako.
- f) Desgaitasun motak eta horien kontsiderazio terapeutikoak deskribatu ditu.
- g) Banakako tratamendu-plana diseinatu du, pazientearen baldintza fisiologiko eta patologikoen arabera.
- h) Prebentzio- eta terapia-aukerak deskribatu ditu kasu bakoitzean.

**c) Oinarrizko edukiak:**

| 1. HORTZEN FORMAIOA ETA HORTZALDIA IDENTIFIKATZEA |   |
|---|---|
| prozedurazkoak                                    | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hortzen morfologia eta erlazio oklusalak deskribatzea.</li> <li>- Hortzen piezak eta erlazio oklusalak deskribatzea.</li> <li>- Nominazio-sistemak eta hortzen erregistroa erabiltzea.</li> </ul>  |
| kontzeptuzkoak                                    | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Aurpegi-masailletako enbriologia. Faseak. Hartzaldiaren kronologia.</li> <li>- Hartz-piezen morfologia. Morfologia zaharkitua eta behin betikoa.</li> <li>- Hartz-piezen histologia eta morfologia eta hartz-euskarriaren ehunak.</li> <li>- Hartz-taldeak. Nomenklatura. Gainazalak. Ertzak. Hartz-nomenklaturaren sistemak.</li> <li>- Hartz-oklusioa. Elementuak. Oklusio-erlazioak eta intermaxilarrak.</li> </ul> |
| jarrerazkoak                                      | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Lanbidearekin zerikusia daukan informazioa lortzeko interesa.</li> <li>- Zehaztapena hartz-nominazioan.</li> <li>- Argitasuna eta ordena informazioa erabiltzean eta helaraztean.</li> <li>- Elkarlanarekiko eta talde-lanarekiko interesa.</li> </ul>   |

| 2. GAREZURAREN ETA AURPEGIAREN AZTERKETA ANATOMIKOA |   |
|---|---|
| prozedurazkoak                                      | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Egitura anatomikoak identifikatzea, hainbat euskarritan.</li> <li>- Egitura anatomikoak eta haren erlazioak deskribatzea.</li> <li>- Egitura anatomikoak identifikatzea, hainbat euskarritan.</li> <li>- Terminologia espezifikoa erabiltzea.</li> </ul>   |
| kontzeptuzkoak                                      | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Garezur- eta aurpegi-aldea. Osteologia. Miologia. Murtxikatzearen, mimikaren eta mingainaren muskulu bereziak eta osagarriak.</li> <li>- Garezurreko, aurpegiko eta ATMko artikulazioak. Ezaugarri anatomikoak eta barailaren mugimenduak.</li> <li>- Ahoa eta lepoa. Anatomia, histologia eta fisiologia. Listu-guruinak eta tiroide-guruinak.</li> <li>- Buruko eta lepoko odol-hodiak, linfa-basoak eta nerbioak. Pakete baskularrak. Garuneko nerbioak. Sistema neurobegetatiboa.</li> </ul> |
| jarrerazkoak  | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Lanbidearekin zerikusia daukan informazioa lortzeko interesa.</li> <li>- Zorroztasuna, terminologia erabiltzean.</li> <li>- Argitasuna eta ordena informazioa erabiltzean eta helaraztean.</li> <li>- Elkarlanarekiko eta talde-lanarekiko interesa.</li> </ul>  |

| 3. APARATU ESTOMATOGNATIKOAREN BALORAZIO FUNTZIONALA |  |
|--|--|
| prozedurazkoak                                       | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Aparatu estomatognatikoaren miaketa fisikoa.</li> <li>- Guneko balorazio funtzionalak egitea.</li> <li>- Listu-jarioaren estimulazio-, bilketa- eta neurketa-teknikak aplikatzea.</li> <li>- Listuaren gaitasun moteltzailea neurtzeko probak egitea.</li> <li>- Terminologia espezifikoa erabiltzea.</li> </ul>            |
| kontzeptuzkoak                                       | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Fonazioaren anatomia eta fisiologia.</li> <li>- Irensketaren anatomia eta fisiologia.</li> <li>- Listu-jariatzearen anatomia eta fisiologia. Listuaren ezaugarriak. Listu-jariatzearen fisiologia. Listu-jarioaren estimulazio-, bilketa- eta neurketa-prozedurak. Listuaren gaitasun moteltzailea estimulatuzko</li> </ul> |



|              |  |
|--------------|--|
|              | <p>probak. Listuaren kultibo bakteriologikoak.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Arnasketaren anatomia eta fisiologia.</li> <li>- Murtxikatzearen anatomia eta fisiologia. Masailezurreko dinamika. Eskeletoen eta hortzen mugimendu nagusiak.</li> <li>- Oklusioaren anatomia eta fisiologia.</li> </ul>                                   |
| jarrerazkoak | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Lanbidearekin zerikusia daukan informazioa lortzeko interesa.</li> <li>- Zorroztasuna, terminologia erabiltzean.</li> <li>- Ordena, garbitasuna eta metodoa jarduerak egitean.</li> <li>- Argitasuna eta ordena informazioa erabiltzean.</li> <li>- Elkarlanarekiko eta talde-lanarekiko interesa.</li> </ul> |

#### 4. TXANTXAR-LESIOAK EZAGUTZEA

|                |  |
|----------------|--|
| prozedurazkoak | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hortz-plaka eta txantxar-lesioak identifikatzea.</li> <li>- Txantxar-lesioak sailkatzea.</li> <li>- Hortz-plaka diagnostikatzeko teknikak aplikatzea.</li> <li>- Txantxarrak diagnostikatzeko teknikak aplikatzea.</li> <li>- Kultibo bakteriologikoak eta suszeptibilitate-probak egitea.</li> <li>- Hortz-plaken eta -lesioen dokumentu-erregistroa.</li> <li>- Terminologia espezifikoa erabiltzea.</li> </ul>   |
| kontzeptuzkoak | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Plaka bakterianoa. Biofilma. Mikrobio-flora arrunta. Plaka-motak. Formazio-prozesua. Plaka-formazioko faktore etiologikoak eta lagungarriak. Plaka bakterianoaren bilakaera.</li> <li>- Plakaren diagnostikoa. Plakaren errebelatzaileak.</li> <li>- Plaka bakterianoa kontrolatzeko neurriak. Prebentzioa eta tratamendua.</li> <li>- Hortzetako txantxarra. Faktore patogenikoak txantxarreen.</li> <li>- Txantxar motak.</li> <li>- Txantxarraren klinika. Txantxarraren forma berezi batzuk (txantxar herrestaria, erradioengatiko txantxarra...)</li> <li>- Txantxarraren diagnostikoa. Anamnesia, miaketa, proba erradiologikoak, transiluminazioa eta beste batzuk. Listuaren kultibo bakteriologikoak eta suszeptibilitate-probak.</li> <li>- Txantxarren lesioaren bilakaera. Arriskua zehazten duten faktoreak.</li> <li>- Txantxarraren konplikazioak eta ondorioak.</li> <li>- Txantxarra kontrolatzeko neurriak. Prebentzioa eta tratamendua.</li> <li>- Plaka eta txantxarra erregistratzeko sistemak. Odontogramak.</li> </ul> |
| jarrerazkoak   | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Lanbidearekin zerikusia daukan informazioa lortzeko interesa.</li> <li>- Zorroztasuna, terminologia erabiltzean.</li> <li>- Ordena, garbitasuna eta metodoa jarduerak egitean.</li> <li>- Erantzukizuna bere funtzioak betetzean.</li> <li>- Argitasuna eta zehaztasuna, informazioa helaraztean.</li> <li>- Elkarlanarekiko eta talde-lanarekiko interesa.</li> </ul>  |

#### 5. GAIXOTASUN PERIODONTALA EZAGUTZEA

|                |   |
|----------------|---|
| prozedurazkoak | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Gingibitisaren zantzuak eta sintomak, gaixotasun periodontala, mukositis eta periimplantitis identifikatzea.</li> <li>- Gaixotasun periodontalaren bilakaera-egoeraren araberako lesioak eta manifestazioak sailkatzea.</li> </ul> |
|----------------|---|

|                |   |
|----------------|---|
|                | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Gingibitisa, gaixotasun periodontala, mukositis eta periinplantitisa diagnostikatzeko teknikak aplikatzea.</li> <li>- Gaixotasun periodontalaren dokumentu-erregistroa.</li> <li>- Terminologia espezifikoa erabiltzea.</li> </ul>   |
| kontzeptuzkoak | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Periodontoaren anatomia eta fisiologia. Eginkizunak.</li> <li>- Gingibitisa. Etiologia. Klinika. Eboluzio-faseak. Motak. Tratamendua.</li> <li>- Periodontitisa. Etiologia. Klinika. Eboluzio-faseak. Motak.</li> <li>- Gaixotasun periodontalaren diagnostikoa. Tresneria eta ekipamendua. Anamnesia, miaketa fisikoa, proba erradiologikoak eta beste batzuk.</li> <li>- Gaixotasun periodontalaren konplikazio klinikoak eta orokorrak. Pronostikorako elementuak.</li> <li>- Mukositis eta periinplantitisa. Etiologia, arrisku-faktoreak, klinika eta diagnostikoa.</li> <li>- Gaixotasun periodontalaren kontrola, prebentzioa eta tratamendua.</li> <li>- Erregistro-sistemak. Periodontogramak.</li> </ul> |
| jarrerazkoak   | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Lanbidearekin zerikusia daukan informazioa lortzeko interesa.</li> <li>- Zorroztasuna, terminologia erabiltzean.</li> <li>- Ordena, garbitasuna eta metodoa jarduerak egitean.</li> <li>- Erantzukizuna bere funtzioak betetzean.</li> <li>- Argitasuna eta zehaztasuna, informazioa helaraztean.</li> <li>- Elkarlanarekiko eta talde-lanarekiko interesa.</li> </ul>   |

| <b>6. AHO-HORTZEN BARRUNBEAREN LESIOAK IDENTIFIKATZEA, EZAUGARRI PATOLOGIKOEI DAGOKIENEZ</b> |   |
|--|---|
| prozedurazkoak   | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Aho-barrunbearen lesioak eta alterazioak identifikatzea.</li> <li>- Aho-barrunbearen lesioak eta alterazioak sailkatzea.</li> <li>- Aho-barrunbearen lesioak eta alterazioak diagnostikatzeko teknikak aplikatzea.</li> <li>- Aho-lesioen dokumentu-erregistroa.</li> <li>- Terminologia espezifikoa erabiltzea.</li> </ul>  |
| kontzeptuzkoak   | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Aho-mukosaren ezaugarriak. Ehun bigunen funtsezko lesioak. Lesio makroskopikoak eta mikroskopikoak. Azterketa diagnostiko espezifikoa. Anamnesia eta sintomatologia. Esplorazioa. Biopsia.</li> <li>- Mukosaren eta ehun bigunen patologia (neoformazioak, hanturazko pseudofibroma, mukozela, minbizi aurreko lesioak, eritroplasia, leukoplasia, aho-minbizi, ultzerak...). Etiologia, diagnostikoa, klinika, prebentzioa eta tratamendua.</li> <li>- Aho-barrunbearen beste gaixotasun batzuk (gaixotasun bakterianoak, birikoak, mikosia eta kausa ezezaguneko gaixotasunak). Etiologia, diagnostikoa, klinika, prebentzioa eta tratamendua.</li> <li>- Hartz-patologia. Hortzen garapenaren anomalia, kopurua, tamaina, forma eta lotura. Etiologia, diagnostikoa, klinika, prebentzioa eta tratamendua.</li> <li>- Maloklusioak. Motak. Diagnostikoa, klinika, prebentzioa eta tratamendua.</li> <li>- Hartz eta masailezurreko traumatismoak. Etiologia, diagnostikoa, klinika, prebentzioa eta tratamendua.</li> </ul> |
| jarrerazkoak   | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Lanbidearekin zerikusia daukan informazioa lortzeko interesa.</li> <li>- Zorroztasuna, terminologia erabiltzean.</li> <li>- Ordena, garbitasuna eta metodoa jarduerak egitean.</li> </ul>  |



|  |   |
|--|---|
|  | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Erantzukizuna bere funtzioak betetzean.</li> <li>- Argitasuna eta zehaztasuna, informazioa helaraztean.</li> <li>- Elkarlanarekiko eta talde-lanarekiko interesa.</li> </ul> |
|--|---|

### 7. AHO-HORTZEN BARRUNBEAREN ASALDURAK IDENTIFIKATZEA, EZAUGARRI PATOLOGIKOEI DAGOKIENEZ

|                       |   |
|-----------------------|---|
| <b>prozedurazkoak</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Patologia sistemikoarekin lotutako aho-hortzen barrunbearen beraren asaldurak identifikatzea.</li> <li>- Historia klinikoa eta beste dokumentu kliniko batzuk interpretatzea.</li> <li>- Botikak identifikatzea eta sailkatzea.</li> <li>- Terminologia espezifikoa erabiltzea.</li> </ul>   |
| <b>kontzeptuzkoak</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Asaldura sistemiko nagusiak, aho-hortzen zantzuekin (sexu-transmisioko gaixotasunak, tuberkulosia, immunoeskasia-sindromeak, anemiak eta leuzemiak, besteak beste).</li> <li>- Lesioak agente mekanikoengatik (hozkadak...), fisikoengatik (erradiazioak, beroa, hotza, elektrizitatea...), kimikoengatik (zilarra, merkurioa, alkoholak...), gaixotasun alergikoengatik eta botikengatik.</li> <li>- Farmakologia odontologikoa. Farmakozinetika. Forma sendagarriak. Sendagaiak emateko bideak.</li> <li>- Odontologian erabiltzen diren botikak (analgesikoak, hantura-contrakoak, antibiotikoak, antifungikoak, anestesikoak, hemostatikoak, antiagregatzaileak, antikoagulatzaileak...). Ezaugarriak, indikazioak, kontraindikazioak eta kontrako ondorioak.</li> </ul> |
| <b>jarrerazkoak</b>   | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Lanbidearekin zerikusia daukan informazioa lortzeko interesa.</li> <li>- Zorroztasuna, terminologia erabiltzean.</li> <li>- Argitasuna eta zehaztasuna, informazioa helaraztean.</li> <li>- Pertsonen beharrak ulertzeko eta horiei erantzuteko interesa eta kezka.</li> <li>- Elkarlanarekiko eta talde-lanarekiko interesa.</li> </ul>   |

### 8. ARRISKU-FAKTOREAK IDENTIFIKATZEA PAZIENTE BEREZIENGAN

|                       |  |
|-----------------------|--|
| <b>prozedurazkoak</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Pertsona bat berezi egiten duten ezaugarriak identifikatzea.</li> <li>- Arreta odontologikoa pertsona bakoitzera egokitzeko proposamenak egitea.</li> <li>- Terminologia espezifikoa erabiltzea.</li> </ul>   |
| <b>kontzeptuzkoak</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Arreta odontologikoa patologia sistemikoa duten pertsonengan (diabetes mellitus, nahasmendu kardiobaskularrak, nahasmendu hepatikoak, besteak beste gutxiegitasuna edo hepatitis, giltzurrun-alterazioak eta beste batzuk).</li> <li>- Arreta odontologikoa antikoagulazioa duten pertsonengan.</li> <li>- Jarduera odontologikoa bereziak haurdun dauden emakumei, droga-mendekotasunen bat duten pertsonen, oheratuta dauden pazienteei, desgaitasunen bat duten pazienteei, buru-atzerapena duten pertsonen, garun-paralisia duten pertsonen, epilepsia duten pertsonen, Down-en sindromea duten pertsonen, paziente pediatrikoei eta paziente adinekoei, besteak beste.</li> <li>- Endokarditis infekziosoa. Epidemiologia. Etiopatogenia. Profilaxi-urratsak.</li> </ul> |

## jarrerazkoak

- Lanbidearekin zerikusia daukan informazioa lortzeko interesa.
- Argitasuna eta zehaztasuna informazioa helaraztean.
- Pertsonen beharrak ulertzeko eta horiei erantzuteko interesa eta kezka.
- Elkarlanarekiko eta talde-lanarekiko interesa.

## d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

### 1) Sekuentziak

Modulu hau edukien atalean (hortzak, aho-barrunbea, aurpegia, garezurra eta lepoa...) deskribatutako aldean anatomia eta fisiologia ikasten has daiteke, organo edo egitura bakoitzean alderdi morfologikoak eta fisiologikoak eta 3. blokean deskribatutako organo horien funtzio orokorrak aipatuz.

Jarraian, aho-barrunbearen asaldurak eta patologia aztertuko dira, besteak beste txantxarrak (4. blokea), gaixotasun periodontala (5. blokea), aho-barrunbearen beste lesio batzuk (6. blokea) eta patologia orokorrak eragindako asaldurak (7. blokea).

Farmakologia orokorrarekin lotutako edukiak (7. blokea) nahiko independenteak dira; beraz, anatomofisiologiaren edo patologiaren ondoren azter daitezke, beste modulu batzuekiko koordinazioak planteatutako beharren arabera.

Azkenik, paziente berezi izenekoek (8. blokea) aurkez ditzaketen ezaugarriak edo bereizgarriak ikusiko dira; izan ere, beharrezkotzat ikusten da ohikoenari eta arruntenari buruzko ezagutza batzuk izatea, egoera bereziak hobeto ulertzeko.

Sekuentzia hori zehazteko, garrantzitsua da heziketa-zikloko gainerako irakasleekin koordinatzea; izan ere, eduki batzuk (hortzen izendapena eta erregistroa, anatomia eta fisiologia...) sakontasun gehiagorekin edo gutxiagorekin ikasten dira beste modulu batzuetan ere. Beraz, erabaki beharko da sekuentzia eta sakontasun maila, horietako bakoitzean.

Gainera, aho-patologiarekin lotutako edukien kasuan (esaterako, txantxarra, gaixotasun periodontala edo maloklusioak), nahiko sakon aztertzen dira halaber, bai 3. moduluan – "**Aho-barrunbearen miaketa**"–, bai 7. moduluan – "**Kontserbatzailea, periodontzia, kirurgia eta inplanteak**" baita 8. moduluan – "**Protesia eta ortodontzia**"– ere. Beraz, irakasle-taldeak aurretik ezarritako antolaketa eta maila bete beharko dira, errepikapenik egon ez dadin eta ikasleek beharrezkoa denean oinarritzko ezagutzak dituztela bermatzeko.

### 2) Alderdi metodologikoak

Modulu honetan aurkeztutako edukiak oso zabalak dira; izan ere, lanbide-jarduerarekin lotutako anatomia, fisiologia eta patologia jasotzen ditu. Hautaketa egin behar da, kontuan hartuta ez dela hain garrantzitsua izango informazio asko ikastea, baizik eta hura kontsultatzeko eta autonomia nahikoz interpretatzeko gai izatea.



Nahiko eduki teorikoak dira; beraz, ikasleentzako jarduera motibatzaileak prestatu beharko dira. Ikus-entzunezko baliabideetara (laminak, bideoak, irudiak...) jo daiteke eta anatomiaren, fisiologiaren egituren arteko harremanen, lesioen... ulermena errazten duten maketak balia daitezke.

Hortz-erradiografiak ikustea ere interesgarria izan daiteke, egitura anatomikoak eta egon daitezkeen asaldurak eta lesioak ezagut ditzaten, nahiz eta oraindik erradiografia-teknikak ikasi ez –ziklo honetako beste modulu batean ikasten dira–. Egitura anatomikoko marrazkia dela eta, ikaskuntzarako tresna izan daiteke, baina, aurrekoa bezala, ez da edukia berez; horrenbestez, horretarako emandako denbora balioetsi beharko da.

Posible denean, gela-tailerrera jo daiteke eta, nahiz eta miaketa modulu honetan lortu beharreko gaitasun gisa jaso ez, baliabide motibatzaile gisa erabil daiteke. Kasu horietan, jardueraren helburua izango litzateke egiturak, elementuak, lesioak edo patologia identifikatzea eta ez miaketa-teknika bera.

Beste jarduera batzuk ere antola daitezke, modu pertsonalean eta taldean egiteko, besteak beste, informazioa bilatzea, aztertze materiala egitea, kasuak ebatzea edo kasu klinikoak aztertzea... Horien bidez, edukiak errazago ulertuko dira, modu pertsonalizatuan.

### 3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Garezurreko eta aurpegiko elementu eta organoak identifikatzea eta ezagutzea.
- ✓ Ahoko, buruko eta lepoko elementuen eta organoen erlazioak ezaugarritzea eta deskribatzea.
- ✓ Aparatu estomatognatikoaren balorazio funtzionala egitea.
- ✓ Lesioak eta patologia identifikatzea eta ezagutzea, besteak beste, txantxar-lesioak, gaixotasun periodontalen lesioak, mukosako lesioak, patologia sistemikoekin edo beste faktore batzuekin lotutakoak eta abar, bai paziente arruntengan, bai ezaugarri bereziak dituzten pazienteengan.
- ✓ Botika ohikoenak eta horien indikazioak ezaugarritzea eta identifikatzea.
- ✓ Patologia sistemikoarekin lotutako aho-barrunbearen nahasmenduak lotzea.
- ✓ Paziente arruntengan eta ezaugarri bereziak dituzten pazienteengan arrisku-faktoreak antzematea eta identifikatzea.
- ✓ Termino bereziak definitzea.

### 3. lanbide-modulua

#### AHO-BARRUNBEAREN MIAKETA

##### a) Aurkezpena

|                            |   |
|----------------------------|---|
| Lanbide-modulua:           | <b>Aho-barrunbearen miaketa</b>   |
| Kodea:                     | 0732  |
| Heziketa-zikloa:           | Ahoaren eta hortzen higieena  |
| Maila:                     | Goi-maila   |
| Lanbide-arloa:             | Osasuna   |
| Iraupena:                  | 132   |
| Kurtsoa:                   | 1   |
| Kreditu kop.:              | 9   |
| Irakasleen espezialitatea: | Osasun- eta laguntza-prozedurak<br>(Lanbide Heziketako irakasle teknikoa)<br>Irakasle espezialista  |
| Modulu mota:               | Konpetentzia-atal honi lotuta dago:<br>UC1593_3: Osasun-zerbitzuetako<br>paziente/erabiltzaileen aho-hortzen osasun-<br>egoera miaztea, helburu epidemiologikoetarako<br>eta zuzeneko jarduketan bidez esku hartzeko. |
| Helburu orokorrak:         | 5 / 6 / 7 / 8 / 10 / 11 / 13 / 14 / 16 / 17 / 18  |

##### b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Hortz-ekipoak ondo funtzionatzen duela egiaztatzen du, eta, horretarako, osagaien ezaugarriak deskribatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Hortz-ekipoaren eta osagaien ezaugarriak identifikatu ditu.
- Ekipoaren funtzioak zehaztu ditu.
- Besaulkiaren mugimenduak zehaztu eta egiaztatu ditu.
- Besaulkira egoki daitezkeen elementuak muntatu eta desmuntatu ditu.
- Tresneria birakaria ekipora egokitu du, eta ongi funtzionatzen duela egiaztatu.
- Ekipoa mantentzeko beharrezko materiala prestatu du.
- Ekipoa mantentzeko eragiketak egin ditu.
- Prozeduraren urrats bakoitzean kalitate-irizpideak bete ditu.

2. Aho-hortzen kabineteko tresneria eta materiala prestatzen ditu, eta desinfekzio- eta esterilizazio-teknikak hautatzen ditu horretarako.

Ebaluazio-irizpideak:



- a) Mikroorganismoak gure organismoan sartzeko dituen bideak aipatu ditu.
- b) Infekziorik ez egoteko prebentzio-neurriak sailkatu ditu.
- c) Garbiketa, desinfekzioa eta esterilizazioa definitu ditu.
- d) Hortz-kabinete batean erabilitako barrerako materialak prestatu ditu.
- e) Tresneria garbitu eta desinfektatu du.
- f) Poltsaratzeko eragiketak egin ditu.
- g) Kabineteen erabilitako tresnak protokoloen arabera esterilizatu ditu.
- h) Esterilizazio-kontrolerako testen emaitzak balioetsi ditu.
- i) Prozesuaren fase guztietan ordena eta garbitasuna baloratu ditu.

**3. Anamnesia eta aho-hortzen barrunbearen miaketa egiten ditu, eta, horretarako, ezaugarriak identifikatzen ditu.**

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Higienistaren jarrera ergonomikoa eta pazientearen jarrera zehaztu ditu.
- b) Aho-hortzen anamnesiaren datu esanguratsuak bereizi ditu.
- c) Miaketa arrunteko zantzuak ezagutu ditu.
- d) Miaketa-teknikak deskribatu ditu eta beharrezko materiala identifikatu du.
- e) Aurpegiko, ahoko eta hortzetako miaketarako eta oklusaletarako eta periodontaletarako teknikak aplikatu ditu.
- f) Antzemandako patologiaak eta erregistro-dokumentuetan eskuratutako indizeak bete ditu.
- g) Historia klinikorako irudiak eskuratu ditu, argazki digitalen bidez.
- h) Prozesuaren faseetan jarrera arduratsua izan du.

**4. Hortzen erradiodiagnostikoaren irudiak eskuratzeko teknikak aplikatzen ditu, eta, horretarako, parametro erradiologikoak hautatzen ditu.**

Ebaluazio-irizpideak:

- a) X izpiak, horiek materiarekin duten elkarreragina eta irudi erradiologikoaren formazioa zehaztu ditu.
- b) Ekipoen ezaugarri fisikoak eta X izpien sortak aipatu ditu.
- c) Erradiazioaren magnitudeak, neurriak eta neurketa-ekipoak sailkatu ditu.
- d) Pazientea erabiliko den teknikaren arabera kokatu du.
- e) Beharrezkoak diren ekipamenduak eta materialak prestatu ditu.
- f) Irudia lortzeko teknika hautatu du.
- g) Pelikula erradiografikoa errebelatzeko teknikak erabili ditu.
- h) Irudiaren tratamendu digitala egin du.

**5. Erradiobabeseko neurriak eta hortzen erradiodiagnostikoaren kalitate-neurriak aplikatzen ditu, eta, horretarako, berriazko araudia interpretatzen du.**

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Erradiazio ionizatzaileen ondorio biologikoak identifikatu ditu.
- b) Hortz-erradiodiagnostikoko instalazioetarako araudia, legeria eta eskakizun teknikoak eta administratiboak aipatu ditu.
- c) Oinarrizko babes erradiologikoa zehaztu du.
- d) Hortz-erradiodiagnostikoko babes erradiologiko bereziko neurriak sailkatu ditu.
- e) Babes-neurriak zaindu ditu erradiodiagnostikoarekin lotutako simulazioetan.
- f) Dokumentazioa araudiari jarraikiz bete du.
- g) Erradiodiagnostikorako kalitate-irizpideak ezarri ditu.

h) Kalitatea bermatzeko programaren emaitzak interpretatu ditu.

6. Laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumen-babesari buruzko arauak aplikatzen ditu, lotutako arriskuak eta horiei aurrea hartzeko neurriak eta ekipoak identifikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- Aho-hortzen klinika edo osasun-zerbitzu bateko materialak, produktuak, ekipoak eta tresneria manipulatzek dakartzan arriskuak eta arriskugarritasun maila identifikatu ditu.
- Hortz-klinikan jarduerak eta lan-arloko eragiketak egitean hartu beharreko segurtasun-neurriak, eta norbera eta taldea babestekoak deskribatu ditu.
- Aho-hortzen klinika edo osasun-zerbitzu bateko materialak, produktuak, ekipoak eta tresneria manipulatzek dakartzan istripu ohikoenen kausak identifikatu ditu.
- Arriskuei aurrea hartzeko lehen faktore gisa, instalazioen eta tresneriaren txukuntasuna eta garbitasuna baloratu du.
- Sortutako hondakinak sailkatu ditu, gaika biltzeko.
- Egindako eragiketetan, laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumen-babesari buruzko arauak bete ditu.

7. Jarrera eta egoera emozionalak hautematen ditu, psikologia orokorreko oinarrizko printzipioak aplikatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- Aho-hortzen arretarekin lotzen diren jarrera eta egoera emozionalak deskribatu ditu.
- Erabiltzaileei informatzeko prozesuan komunikazio-teknikak deskribatu ditu.
- Hautemandako jarrera eta egoera emozionalen arabeko komunikazio-teknika hautatu du.
- Umeen eta nerabeen profil psikologikoa deskribatu du.
- Pertsona helduen ezaugarri psikologikoak deskribatu ditu.
- Adineko pertsonen profil psikologikoa deskribatu du.
- Desgaitasunen bat duen pertsonari zuzendutako laguntza psikologikoko eta arretako jardunak hautatu ditu.
- Erabiltzaileen beharrei erantzuteko interesa eta kezka balioetsi ditu.

### c) Oinarrizko edukiak:

| 1. HORTZ-EKIPOAK FUNTZIONATZEN DUELA EGIAZTATZEA |   |
|--|---|
| prozedurazkoak                                   | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Lan-eremuak prestatzea.</li> <li>- Besaulki odontologikoa manipulatzek.</li> <li>- Egoki daitezkeen elementuak erabiltzea.</li> <li>- Tresneria birakaria manipulatzek eta mantentzea.</li> <li>- Hortz-ekipamendua mantentzea eta garbitzea. Xurgatze-sistemaren, mahuken, iragazkien eta dekantatze-ontzia garbitzea eta desinfektatzea. Kontrol antiespumogenoko sistemak erabiltzea. Tresneria birakariko olioien soberakina kentzea. Hortzen lanparako bonbilla aldatzea.</li> <li>- Prozesuaren fase bakoitzean kalitate-irizpideak betetzea.</li> </ul> |
| kontzeptuzkoak                                   | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hortz-ekipamendua. Ekipamenduaren atalak. Besaulki odontologikoa. Unitate odontologikoa. Zutabea. Xurgatzeko eta husteko sistemak. Lanpara operatorioa. Pedala. Konpresoreak. Aulkiak.</li> </ul>  |



|              |   |
|--------------|---|
|              | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Besaulki odontologikoaren funtzioak. Besaulki odontologikoaren mugimenduak.</li> <li>- Elementu egokitzailak. Motak. Muntatzeko eta desmuntatzeko teknikak.</li> <li>- Tresneria birakariaren funtzionamendua.</li> <li>- Ekipamenduaren zaintza orokorrak.</li> <li>- Prozesuaren fase bakoitzeko kalitate-irizpideak.</li> </ul> |
| jarrerazkoak | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Tailerra eta instalazioak zaintzeko interesa.</li> <li>- Prozeduretan antolamendua eta metodoa izatea.</li> <li>- Talde-lanerako errespetua eta gaitasuna.</li> <li>- Segurtasun- eta higiene-arauak betearaztea.</li> </ul>   |

## 2. TRESNERIA ETA MATERIALA PRESTATZEA

|                |   |
|----------------|---|
| prozedurazkoak | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Infekzioen prebentzioari buruzko neurriak aplikatzea.</li> <li>- Tresneria eta material odontologikoa garbitzea, desinfektatzea, paketatzea eta esterilizatzea.</li> <li>- Esterilizazio-prozesuaren kalitate-kontrolerako teknikak aplikatzea.</li> </ul>   |
| kontzeptuzkoak | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Patogenoak izan daitezkeen mikroorganismoak. Sailkapena.</li> <li>- Infekzioa transmititzeko mekanismoa. Kate epidemiologikoa.</li> <li>- Infekzioak prebenitzeko metodoak. Arretazko neurri unibertsalak. Hesi-metodoak.</li> <li>- Garbiketarako, desinfekziorako, paketzeko, esterilizatzeko eta kalitate-kontrolerako teknikak.</li> </ul>   |
| jarrerazkoak   | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Laneko arriskuaren prebentzioari buruzko arauak mantentzeko konstantzia.</li> <li>- Antolamendua eta zehaztasuna prozeduretan.</li> <li>- Erantzukizuna, egindako zereginen aurrean.</li> <li>- Talde-lanerako errespetua eta gaitasuna.</li> <li>- Infekzioekin lotutako ezagutzak eguneratzeko interesa eta infekzioen prebentzioa.</li> </ul> |

## 3. ANAMNESIA ETA AHO-HORTZEN MIAKETA EGITEA

|                |   |
|----------------|---|
| prozedurazkoak | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Profesionalaren eta pazientearen jarrera ergonomikoa.</li> <li>- Lan-eremua prestatzea.</li> <li>- Aho-hortzen anamnesia egitea.</li> <li>- Miaketa orofaziala egitea.</li> <li>- Lau eskuko teknika aplikatzea.</li> <li>- Egindako aurkikuntzen dokumentuak erregistratzea.</li> <li>- Miaketa orofazialarekin lotutako argazki digitalak egitea.</li> </ul>   |
| kontzeptuzkoak | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Laneko posizioa eta jarrera-kontrola.</li> <li>- Aho-hortzen anamnesia. Filiazio-datuak. Kotsultaren arrazoia. Historia medikoa. Hortzen historia.</li> <li>- Miaketa orofazialaren teknikak. Ikuskapena. Haztapena. Kolpekatzea. Zundaketa.</li> <li>- Ahoz kanpoko miaketa. Hezurak. Muskuluak. ATM. Guruinak. Gongoilak.</li> <li>- Aho barruko miaketa. Hortz-piezak. Periodontoa. Mukosak. Mingaina.</li> </ul> |

|              |   |
|--------------|---|
|              | <p>Ahosabaia. Aho-zorua. Faringea.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Lan-eremua prestatzeko teknikak. Tresneria. Oinarrizko maniobrak lau eskuko eta sei eskuko teknikan.</li> <li>- Miaketa arrunteko zantzuak. Aho-hortzen miaketa-irizpide patologikoak.</li> <li>- Erregistorako dokumentuak. Historia klinikoa. Anamnesia. Ahoz kanpoko eta aho barruko miaketa-erregistroa. Odontograma. Periodontograma. Oinarrizko indize periodontalak.</li> <li>- Argazkigintza digitala. Teknikak. Materiala. Tresneria.</li> </ul> |
| jarrerazkoak | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Errespetua eta adeitasuna pazienteekiko harremanetan.</li> <li>- Erantzukizuna eta errespetua pazienteen osasunarekin eta ongizatearekin.</li> <li>- Enpatia eta asertibitatea pazienteekin eta lan-ekipoarekin.</li> <li>- Miaketa orofazialarekin eta ergonomiarekin lotutako jakintzak eguneratzeko interesa.</li> <li>- Antolamendua eta zehaztasuna prozeduretan.</li> <li>- Erantzukizuna egindako zeregin eta prozesuetan.</li> <li>- Jarrerazko irizpideak prozesuan.</li> </ul>         |

#### 4. HORTZETAKO ERRADIODIAGNOSTIKOKO IRUDIAK ESURATZEKO TEKNIKAK APLIKATZEA

|                |  |
|----------------|--|
| prozedurazkoak | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Erradiografiak eskuratzea zenbait teknikaren bidez.</li> <li>- Pazientearen posizioa, erradiodiagnostikoko irudiak eskuratzeko.</li> <li>- Erradiografiak errebelatzea zenbait teknikaren bidez.</li> <li>- Komunikazio-teknikak aplikatzea pazienteekin. Prozedura erradiologikoen, onuren eta arriskuen helburuei buruzko informazioa ematea.</li> <li>- Pazienteen lankidetzaren nahikoa lortzeko estrategiak erabiltzea.</li> </ul> |
| kontzeptuzkoak | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Erradiologia-oinarriak. Erradiazio ionizatzaileen aplikazioak. Ekipoen eta X izpien sorten ezaugarriak.</li> <li>- Hortzen teknika erradiologikoak. Erdikaria. Paralelotasuna.</li> <li>- Errebelatze-teknikak. Eskuzko teknikak, automatikoak eta digitalak. Produktuak.</li> </ul>  |
| jarrerazkoak   | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Antolamendua eta zehaztasuna prozeduretan.</li> <li>- Erantzukizuna eta errespetua pazienteen osasunarekin, ongizatearekin eta osotasunarekin.</li> <li>- Errespetua eta erantzukizuna pazienteekin eta lan-ekipoarekin.</li> <li>- Enpatia eta asertibitatea pazienteekin eta lan-ekipoarekin.</li> <li>- Hertz-erradiologiako aurrerapenetan jakintzak eguneratzeko interesa.</li> </ul>  |

#### 5. HORTZETAKO ERRADIODIAGNOSTIKOAN ERRADIOPABES- ETA KALITATE-NEURRIAK APLIKATZEA

|                |  |
|----------------|--|
| prozedurazkoak | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Paziente eta profesionalentzat beharrezkoak diren erradiopabes-neurriak hautatzea eta aplikatzea.</li> <li>- Erradiopabes-neurriak administratiboki kudeatzea.</li> <li>- Dosimetroak eta lotutako dokumentazioa kudeatzea.</li> <li>- Behar bereziak dituzten erabiltzaileekin komunikatzeko teknikak aplikatzea.</li> </ul> |
|----------------|--|



|                       |   |
|-----------------------|---|
| <b>kontzeptuzkoak</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Erradiazio ionizatzaileen ondorio biologikoak. Erradiazioaren magnitudeak eta neurria.</li> <li>- Erradiobabesa. Erradiodiagnostikoko instalazioetako araudia eta oinarrizko legeria. Oinarrizko babes erradiologikoa. Berariazko babes erradiologikoa hortzen erradiodiagnostikoko instalazioetan. Kalitatea bermatzeko programa. Administrazioko beharkizun teknikoak.</li> <li>- Arretako berariazko beharrak. Erabiltzailearekiko informazio- eta komunikazio-teknikak.</li> </ul> |
| <b>jarrerazkoak</b>   | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Antolamendua eta zehaztasuna prozeduretan.</li> <li>- Errespetua eta erantzukizuna pazienteekin eta lan-ekipoarekin.</li> <li>- Erantzukizuna eta errespetua pazienteen osasunarekin, ongizatearekin eta osotasunarekin.</li> <li>- Ingurumenarekiko interesa eta errespetua.</li> <li>- Erradiobabesari buruzko ezagutzak eguneratzeko interesa.</li> </ul>   |

### 6. LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOARI ETA INGURUMEN-BABESARI BURUZKO ARAUAK APLIKATZEA

|                       |   |
|-----------------------|---|
| <b>prozedurazkoak</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hortz-klinika bateko arrisku pertsonalak eta ingurumenekoak identifikatzea.</li> <li>- Faktore fisiko, kimiko, biologiko eta psikosozialetarako babes pertsonaleko eta ingurumeneko neurriak aplikatzea eta balioestea.</li> <li>- Segurtasun-neurri indibidualak eta kolektiboak aplikatzea eta balioestea hortz-klinikan.</li> <li>- Arauak betetzea.</li> <li>- Kliniketan arrisku-seinaleak interpretatzea.</li> <li>- Hondakinen kudeaketa. Sailkatzea eta biltegitratzea. Hondakinak tratatzea eta biltzea.</li> <li>- Makinei eta tresneriari aplikatzen zaizkien segurtasun-sistemak berrikustea eta erabiltzea.</li> </ul>  |
| <b>kontzeptuzkoak</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Norberaren gaineko eta ingurumeneko arriskuak hortz-kliniketan. Arrisku-faktoreak eta -egoerak. Lan-ingurunearen faktore fisikoak. Babes erradiologikoa. Lan-ingurunearen faktore kimikoak. Faktore biologikoak: Babes biologikoa. Txertoak. Faktore psikosozialak.</li> <li>- Segurtasuna hortz-klinikan. Laneko arriskuen prebentzioari buruzko neurriak zehaztea. Arriskuak prebenitzeko eta horietatik babesteko neurriak. Norbera babesteko ekipamendua eta bitartekoak. Prebentzio eta babes kolektiboa. Seinaleak. Makinei eta ekipoei aplikatzen zaizkien segurtasun-sistemak.</li> <li>- Hortz-klinika bateko berezko larrialdi-egoerak. Jarduteko sistemak. Botikinak.</li> <li>- Hortz-kliniketan laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumen-babesari buruzko araudia. Ingurumen-kudeaketa. Araudia. Birziklapena. Ordena eta garbitasuna zaintzeko metodoak eta arauak.</li> </ul> |
| <b>jarrerazkoak</b>   | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Antolamendua eta zehaztasuna prozeduretan.</li> <li>- Hortz-klinikako erabiltzaileen osasunaren, ongizatearen eta osotasunaren gaineko erantzukizuna eta errespetua izatea.</li> <li>- Laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumen-babesari buruzko ezagutzak eguneratzeko interesa izatea.</li> <li>- Laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia etengabe betetzea.</li> <li>- Ingurumen- eta kultura-ondarea zaintzearen eta babestearen aldeko</li> </ul>  |

|  |                            |
|--|----------------------------|
|  | konpromiso etikoa hartzea. |
|--|----------------------------|

| 7. PAZIENTEETAN JARRERA ETA EGOERA EMOZIONALAK IDENTIFIKATZEA |   |
|---|---|
| prozedurazkoak  | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Egoera emozionalak identifikatzea.</li> <li>- Arreta-teknikak eta pertsona bakoitzarentzako berariazko laguntza indibidualizatuak aplikatzea.</li> <li>- Paziente bakoitzarentzako informazio indibidualizatuak hautatzea.</li> <li>- Komunikazio-teknikak aplikatzea.</li> </ul>  |
| kontzeptuzkoak  | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Pazienteen berezko egoera emozionalak. Zantzuak eta sintomak. Beldurra eta antsietatea. Oinarrizko laguntza-teknikak.</li> <li>- Arretako berariazko beharrak. Haurrentzako eta nerabeentzako laguntza. Helduentzako beharrak eta arreta. Adinekoentzako beharrak eta arreta. Behar bereziak dituzten pazienteentzako arreta.</li> <li>- Erabiltzailearentzako informazio-teknikak. Motibatze-teknikak.</li> <li>- Komunikazio-teknikak. Portaera enpatikoak eta asertziozkoak.</li> </ul> |
| jarrerazkoak  | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Enpatia pertsonarekin, tratamenduetan zehar.</li> <li>- Aserbitatea pazienteekiko eta lantaldeko kideekiko komunikazioan.</li> <li>- Erantzukizuna eta errespetua pazienteen osasunarekin, ongizatearekin eta osotasunarekin.</li> <li>- Komunikazioari buruzko ezagutzak eguneratzeko interesa.</li> </ul>  |

#### d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

##### 1) Sekuentziak

Komeni da modulua hasteko laneko instalazioak aurkeztea eta espazio eta ekipo bakoitzarekin lotuta dauden lan-arriskuak azaltzeko, lehenengo egunetik lan-ohitura egokiek lan egiten hasi ahal izateko.

*Laneko arriskuen prebentzioko eta ingurumen-babeseko arauak* (6. blokean deskribatzen dira) zenbait modulutan deskribatzen dira; beraz, ezinbestekoa da irakasleen artean koordinazioa egotea, eta interesgarria izan daiteke eduki horien tratamendua adostea, kontzeptuzko edukiak sistematizatuago ikasteko, esaterako, 1. moduluan, "**Harrera eta logistika**", babes erradiologikoarekin eta erradiografiak eskuratzearekin lotutako edukiak izan ezik, modulu honetan sakonago gara baitaitezke, miaketa erradiologikoa hemen ikasten baita.

Jarraian, *hortz-ekipoaren* elementuak eta funtzionamendua azter daitezke (1. blokea). Tresneriarekin eta tresnak, materialak, ekipoak eta azalera *garbitzeko, desinfektatzeko eta esterilizatzeko teknikekin, infekzioen kontrolarekin* eta hortz-ekipamenduaren mantentze-lanarekin jarrai dezakegu (2. blokea).

Pazienteekin lan egiten den edukiarekin lan egiten hasi aurretik, *pazienteen jarrera eta egoera emozionalak* azter daitezke (7. blokea); izan ere, modulu osoan zehar aplikatzen joango den eduki garrantzitsua da.



Pazienteekin lanean hasi eta berehala ikasiko den beste edukietako bat *ergonomia* izango da (3. blokea); horrela, langileek izan ditzaketen lesioak eta minak prebenitzeko ahalegina egingo da, eta, gainera, pazienteen erosotasuna bermatuko da.

Jarraian, pazienteen *anamnesia* eta *ahotik kanpoko eta aho barruko miaketa* aztertuko da (3. blokea). Azkenik, pazienteen miaketa erradiologikoa aztertuko da. Horretarako, interesgarria izan liteke lehenengo erradiobabeseko neurriak ikastea (5. blokea) eta, gero, hortzen irudi erradiodiagnostikoko irudiak eskuratzeko teknikak (6. blokea).

Modulua amaitzean, denbora bat eskaini beharko litzaioke ikasitako edukiak unitate didaktikoetan integratzeari eta pazienteren baten miaketa osoaren ariketaren bat prestatzeari, sekuentzia osoa jarraian eta dagokion dokumentazioarekin.

## 2) Alderdi metodologikoak

Modulu hau aztertzean, azpimarratu behar da eduki gehienak oinarrizkoak eta ezinbestekoak direla aho-hortzen higienisten funtzioak betetzeko. Beraz, garrantzitsua da egindako prozedurak ondo ikastea, trebetasun nahikoa izatea eta horiek zein garrantzitsuak diren ulertzea.

Modulu honetako edukiak prozedurazkoak dira, oso; beraz, funtsean, ikasgela-tailerrean izango da (aho-hortzen higieneko gela teknikoak). Horretarako, zenbait espazio erabiliko dira, besteak beste: hortz-kabinetea, hortz-ekipoa garbitzeko eta desinfektatzeko, anamnesirako, ahotik kanpoko eta aho barruko miaketarako, argazki digitalerako etab.; esterilizazio-aretoa, tresneria garbitzeko, desinfektatzeko eta esterilizatzeko; eta erradiologia-aretoa, erradiobabesa eta miaketa erradiologikoa aplikatzeko.

Ikasgela-tailerrean lan-diziplina eta -giroa errespetatu beharko dira; horretarako, ezarritako arauak bete beharko dituzte ikasleek, hasieratik, eta taldeko lanean lankidetzan jardun eta bertan pertsona bakoitzak duen garrantziaz ohartu beharko dira. Horrek esan nahi du hasieratik beteko direla higieneko, autobabeseko eta arrisku-kontrolerako arauak, arropa egokia eta babes-ekipo individualak erabiliko direla, itxura eta higiene pertsonala zainduko direla (azazkalak, eskuak, ilea...), lana betetzeko erantzule izango direla, gainerakoak errespetatuko direla (ikaskideak, paziente izan daitezkeenak, irakasleak...) etab.

Garrantzitsua izango da irakasleek azaltzea zer eta zergatik eskatzen den, jokabide egokia izateko. Aipatutako jarrerazko edukien eskuratzeko, interesgarria izan daiteke eredu batzuk prestatzea, sailkatzeko eta bete ahala etengabe erregistratzeko.

Modulu honen zati garrantzitsu bat jarduera praktikoen garapena izango da. Gehienetan, ikasgela teknikoaren eta ekipamenduaren arabera, ezinezkoa izango da ikasle guztiek jarduera bera egitea aldi berean. Hori dela eta, komeni da aldi berean egin daitezkeen jarduera batzuk izatea prest, batek bestea oztopatu gabe. Esate baterako, ikasle batzuek (2-3 pertsonako taldeak) argazki digitalak egiten dituzten bitartean, beste talde batzuek ahoz kanpoko eta aho barruko miaketak egiten jardun dezakete, aurreko egunetan eginiko argazkiak aztertzen egon daitezke, tresneria esterilizatzen etab.

Era berean, edukietako asko zenbait aldiz errepikatu beharko dira, beharrezko trebetasuna eskuratu ahal izateko. Beraz, batzuek eduki berriak ikasten dituzten bitartean, beste ikasle batzuk beste eduki batzuk birpasatzen joan daitezke, modu autonomoagoan, eguneroko lanean egingo duten bezala.

Jarduera askotan, ikasleek hainbat rol hartuko dituzte, besteak beste, higienistarena, laguntzailearena edo pazientearena. Pazienteen lekuan jartzeak lagunduko du ikasleengan enpatia handia garatzen. Interesgarria da hainbat ezaugarritako (adina,

formakuntza maila, higiene maila, patologia...) "eredu-pazienteak" izatea, ikaskuntza zabalagoa izateko.

Erabiltzen diren erregistro-dokumentuek benetako en antzekoak izan behar dute, eta hainbat motatakoak, laneko testuinguru errealean errazago igarotzeko.

### 3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Osagaiak identifikatzea eta hortz-ekipoaren funtzionamendua ezagutzea.
- ✓ Infekzioen transmisioaren mekanismoak eta prebentzio-neurriak identifikatzea eta ezaugarritzea.
- ✓ Garbitu, desinfektatu eta esterilizatzeko metodoak, ekipoak eta materialak ezaugarritzea.
- ✓ Tresneria, ekipoak eta laneko azalerak mantentzeko, garbitzeko, desinfektatzeko eta esterilizatzeko teknikak aplikatzea.
- ✓ Hainbat egoeratako neurri ergonomiko bereziak aplikatzea.
- ✓ Jarduketa bakoitzean beharrezkoak diren hesi-metodoak hautatzea eta erabiltzea.
- ✓ Anamnesi- eta miaketa-teknikak ezaugarritzea.
- ✓ Anamnesia egitea eta erregistratzea.
- ✓ Ahoz kanpoko eta aho barruko miaketa egitea eta erregistratzea.
- ✓ Pazienteei argazkiak egitea.
- ✓ Teknika erradiografikoak eta arrisku pertsonalak eta ingurumenekoak eta babes-neurri eta -sistemak ezaugarritzea.
- ✓ Aho barruko erradiografiak eskuratzea, erdikari- eta paralelismo-teknikaren bidez eta dagozkion erradiobabes-neurriak aplikatuz.
- ✓ Erradiografiak errebelatzea.
- ✓ Irudien tratamendu digitala.
- ✓ Hortz-kliniketan pazienteen egoera emozionalak eta oinarrizko laguntza-teknikak ezaugarritzea.
- ✓ Ezaugarri desberdinak dituzten pazienteengan jarrera eta egoera emozionalak identifikatzea.
- ✓ Laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumen-babesari buruzko arauak aplikatzea.



## 4. lanbide-modulua

### AHO-HORTZETAKO INTERBENTZIOA

#### a) Aurkezpena

|                            |   |
|----------------------------|---|
| Lanbide-modulua:           | <b>Aho-hortzetako interbentzioa</b>   |
| Kodea:                     | 0733  |
| Heziketa-zikloa:           | Ahoaren eta hortzen higieena  |
| Maila:                     | Goi-maila   |
| Lanbide-arloa:             | Osasuna   |
| Iraupena:                  | 165   |
| Kurtsoa:                   | 1   |
| Kreditu kop.:              | 12  |
| Irakasleen espezialitatea: | Osasun- eta laguntza-prozedurak<br>(Lanbide Heziketako irakasle teknikoa)<br>Irakasle espezialista  |
| Modulu mota:               | Konpetentzia-atal honi lotuta dago:<br>UC1593_3: Osasun-zerbitzuetako<br>paziente/erabiltzaileen aho-hortzen osasun-<br>egoera miatzea, helburu epidemiologikoetarako<br>eta zuzeneko jarduketan bidez esku hartzeko. |
| Helburu orokorrak:         | 4 / 7 / 9 / 10 / 11 / 16  |

#### b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Hobi eta arrailadurak zigilatzen ditu, eta hortzen azalaren ezaugarriekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Zigilatu behar diren hortzen azalera identifikatu ditu.
- b) Material zigilatzailearen motak bereizi ditu.
- c) Zigilatzailea jartzeko materiala prestatu du.
- d) Ebakuntza-eremua isolatu du.
- e) Tratatu beharreko hortzen azalera egokitu du.
- f) Material zigilatzailea aplikatu du, teknika egokien bidez.
- g) Zigilatzailearen biziraupen-irizpideak zehaztu ditu.
- h) Zigiluaren fase guztietan kalitate-irizpideak bete ditu.

2. Fluoruro topikoak aplikatzen ditu, eta aplikazio motak eta teknikak deskribatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Fluoruro motak definitu ditu.

- b) Fluoruroen posologia zehaztu du.
- c) Fluoruro topikoak aplikatzeko teknikak sailkatu ditu.
- d) Kubetetan fluorra aplikatzeko beharrezko materiala prestatu du.
- e) Tratatu beharreko hortzen azalera egokitu du.
- f) Kubetetan fluorra aplikatu du.
- g) Fluorra aplikatu ondoko gomendioak definitu ditu.

**3. Hortzetako lertzoa ezabatzen du, eta teknika egokia hautatzen du, horretarako.**

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Hortzetako lertzoaren motak eta kausak definitu ditu.
- b) Tartrektomia, arraspatze eta akabera erradikularreko teknikak definitu ditu.
- c) Pazientearen ezaugarrien arabera indikazioak eta kontraindikazioak aipatu ditu.
- d) Hortzetako lertzoa ezabatzeko materiala eta tresneria prestatu ditu.
- e) Lertzoa ezabatzeko eta azalera leuntzeko teknikak egin ditu.
- f) Lertzoa prebenitzeko neurriak definitu ditu.
- g) Konplikazioak eta neurri zuzentzaileak identifikatu ditu.
- h) Prozesuaren faseetan ordenaren, garbiketaren eta metodoaren jarrera izan du.
- i) Egiaztatu du ez dela lertzorik geratu gainaldean.

**4. Hortz-tindaketa estrintsekoak ezabatzen ditu, eta, horretarako, teknika egokia hautatzen du.**

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Hortz-tindaketa estrintsekoak definitu ditu.
- b) Hortz-tindaketa estrintsekoak ezabatzeko teknikak definitu ditu.
- c) Tindaketa ezabatzeko beharrezko materiala eta tresneria prestatu ditu.
- d) Hortz-tindaketa estrintsekoak ezabatzeko teknikak egin ditu.
- e) Prebentzio-neurriak definitu ditu.
- f) Ordenaz, garbitasunez eta metodoz egin du lan.
- g) Egiaztatu du azaleran ez dela hortz-tindaketa estrintsekorik geratu.

**5. Hortzen obturazioak leuntzen ditu, eta, horretarako, teknika egokiak hautatzen ditu.**

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Leundu behar diren hortzen azalera identifikatu ditu.
- b) Obturazioen leunketa justifikatzen duten irizpideak definitu ditu.
- c) Leundu beharreko material motak identifikatu ditu.
- d) Tresna urratzaileak sailkatu ditu, leundu behar den materialaren arabera.
- e) Leunketa egiteko beharrezko materiala prestatu du.
- f) Errotazioaren eta hoztearen abiadura hautatu du.
- g) Obturazioen leunketa egin du.
- h) Egiaztatu du leundutako azalera ez duela oklusioan eragiten.

**6. Aho-hortzen barrunbeko plaka bakterianoa kentzen du, eta, horretarako, kontrol- eta ezabatze-metodoak hautatzen ditu.**

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Eskuila motak, hortzetako zetak eta plaka ezabatzeko beste metodo mekaniko batzuk sailkatu ditu.



- b) Plaka kontrolatzeko metodo kimikoak sailkatu ditu.
- c) Kolutorioen eta hortzen orearen osaera plakaren kontrolarekin lotu du.
- d) Plaka bakterianoaren tindaketa egin du.
- e) Aho-hortzen higienearen teknikak aplikatzen ikasi du.
- f) Plaka bakterioa prebenitzeko neurriak aipatu ditu.
- g) Hortz-protesietan plaka bakterioa kontrolatzeko neurriak tipifikatu ditu.
- h) Hortz-klinikan plaka kontrolatzeko programa egiteko irizpideak definitu ditu.

7. Hortzen hipersentikortasuna kontrolatzeko teknikak aplikatzen ditu, hortzen azaleraren lesioen etologiarekin lotuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Hortzen hipersentikortasuna eragin duten estimuluak aipatu ditu.
- b) Hortzen hipersentikortasunaren etiologia identifikatu du.
- c) Hortzen hipersentikortasunaren sintomak deskribatu ditu.
- d) Hortzen hipersentikortasuna miaketaren bidez egiaztatu du.
- e) Hortzen hipersentikortasunaren kontrolean erabilitako prestakin desentsibilizatzaileak sailkatu ditu.
- f) Kasu bakoitzera egokitutako prestakin desentsibilizatzailea aplikatu du.

**c) Oinarrizko edukiak:**

| 1. HOBIAK ETA ARTEKAK ZIGILATZEA |   |
|----------------------------------|---|
| prozedurazkoak                   | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Isolamendu erlatiborako beharrezko elementuak identifikatzea eta prestatzea.</li> <li>- Isolamendu osorako beharrezko elementuak identifikatzea eta prestatzea.</li> <li>- Gomazko dikea jartzeko teknika aplikatzea.</li> <li>- Artekak zigilatzeke behar den materiala prestatzea eta tresneria identifikatzea.</li> <li>- Artekak zigilatzeke teknika aplikatzea. Zigilurako azalera identifikatzea. Hortzen azalera prestatzea: garbiketa eta grabatu azidoa. Zigilatzailea jartzea eta zabaltzea. Polimerizazioa. Oklusioaren kontrola</li> </ul> |
| kontzeptuzkoak                   | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hobien eta arrailduren zigilatzaileak. Sailkapena. Indikazioak. Zigilurako hortzen azalaren ezaugarriak.</li> <li>- Zigilatzaileak aplikatzeko teknikak. Zigilatzaileen eraginkortasuna ebaluatzeke irizpideak: eraginkortasuna, mantentzea eta horien euste-maila.</li> <li>- Hortzak isolatzeko teknikak. Isolamendu absolutua (gomazko dikea) eta isolamendu erlatiboa (kotoiak, zelulosazko plantxak eta beste batzuk).</li> <li>- Prozesuaren fase bakoitzeko kalitate-irizpideak.</li> </ul>   |
| jarrerazkoak                     | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ordena eta zehaztasuna zaintzea lan egitean.</li> <li>- Erantzukizuna tresneria eta materiala zaintzean eta maneatzean.</li> <li>- Pazientearekin komunikazioa ezartzeko interesa.</li> <li>- Laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia eta horretarako protokoloak errespetatzea.</li> <li>- Zorrotza izatea protokoloen segimenduan eta jarduerak gauzatzean.</li> <li>- Zorroztasuna, terminologia erabiltzean.</li> <li>- Funtzioak gauzatzeko ekimena eta autonomia.</li> </ul>  |

## 2. FLUORURO TOPIKOAK APLIKATZEA

|                       |  |
|-----------------------|--|
| <b>prozedurazkoak</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Fluorra aplikatzea, kubeten bidez. Beharrezko materiala prestatzea. Pazientea prestatzea. Kubeta hautatzea. Hortzen azalera garbitzea eta lehortzea. Kubeta ahoan jartzea. Irensten den fluorra kontrolatzea. Soberako fluorra garbitzea.</li> <li>- Fluorra gelen bidez aplikatzea. Beharrezko materiala prestatzea. Pazientea prestatzea. Hortzen azalera garbitzea eta lehortzea. Hortz-piezetan gela aplikatzea.</li> <li>- Fluoruroak aplikatu ondoko zaintzei buruzko eta fluorraren autoaplikazioari buruzko jarraibideak transmititzeko teknikak aplikatzea.</li> </ul>   |
| <b>kontzeptuzkoak</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Fluorra. Fluor-gatzen motak. Sodio fluoruroa; eztafluoruroa; sodio monofluorofosfata (MFP) eta fluorofosfato azidotua (APF).</li> <li>- Fluoruroen ekintza-mekanismoa: desmineralizazioa eta bermineralizazioa, erupzio aurreko ekintza eta erupzio ondokoa.</li> <li>- Fluorra hartzeko bideak: sistemikoa eta topikoa.</li> <li>- Fluoruroen posologia. Toxikotasuna.</li> <li>- Fluoruro topikoak aplikatzeko teknikak. Aplikazio profesionala (soluzio fluoratuak, kubetetan fluoratutako gelak, fluor-bernizak eta beste batzuk). Autoaplikazioa (dentifrikoak, gelak eta beste batzuk).</li> <li>- Fluoruroak aplikatu ondoko zaintzak. Informazioa transmititzeko irizpideak.</li> </ul> |
| <b>jarrerazkoak</b>   | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ordena eta zehaztasuna zaintzea lan egitean.</li> <li>- Funtzioak gauzatzeko ekimena eta autonomia.</li> <li>- Laneko eta ingurumeneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia eta horretarako protokoloak errespetatzea.</li> <li>- Zorrotza izatea protokoloen segimenduan eta jarduerak gauzatzean.</li> <li>- Lanbidearekin zerikusia daukan informazioa lortzeko interesa.</li> <li>- Zorroztasuna, terminologia erabiltzean.</li> <li>- Zuzentasuna eta adeitasuna pazienteekiko tratuan.</li> </ul>  |

## 3. HORTZETAKO LERTZOA EZABATZEA

|                       |   |
|-----------------------|---|
| <b>prozedurazkoak</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Lertzoa hautemateko teknikak aplikatzea.</li> <li>- Lertzoa hainbat sistemaren bidez ezabatzeko (eskuz, ultrasoinuen bidez) eta arraspatzeko eta leunketa erradikularrerako materiala eta tresneria prestatzea.</li> <li>- Hortzetako lertzoa eskuzko tartrektomiaren bidez kentzea.</li> <li>- Lertzoa ultrasoinuekin kentzea tartrektomiaren bidez. Hortzen azalera leuntzea eta, horretarako, gomazko kopak, ore urratzailea, leuntzeko tirak eta bikarbonatoko profilaxi <i>spraya</i> erabiltzea.</li> <li>- Arraspatze eta leunketa erradikularreko teknikak aplikatzea.</li> <li>- Lertzoa ezabatu dela egiaztatzea.</li> <li>- Konplikazioak aztertzea eta neurri zuzentzaileak hartzea.</li> <li>- Kureten zorrozketak eskuzkoa eta mekanikoa.</li> <li>- Ahoko osasuna prebenitzeko neurriei buruzko jarraibideak transmititzeko teknikak aplikatzea.</li> </ul> |
| <b>kontzeptuzkoak</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hortzetako lertzoa. Etiologia. Patogenia. Lokalizazio supragingibala eta azigingibala. Osaera.</li> <li>- Hortzetako lertzoa ezabatzeko teknikak.</li> </ul>   |



|              |   |
|--------------|---|
|              | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Eskuzko tartrektomia. Indikazioak. Tresneria (arraspatzaileak, kuretak...)</li> <li>- Tartrektomia mekanikoa. Indikazioak. Tresneria eta ekipamendua. Ultrasoniak. Leuntzea. Tartrektomiaren indikazioak eta kontraindikazioak. Konplikazio eta neurri zuzentzaileak. Kalitate-irizpideak.</li> <li>- Arraspatze eta leunketa erradikularra. Indikazioak eta kontraindikazioak. Tresneria. Kuretak, zorrozketak motak eta sistemak. Konplikazio eta neurri zuzentzaileak. Kalitate-irizpideak.</li> <li>- Plaka sortzeko prebentzio-neurriak. Pazienteak eginiko aho-higienerako neurriak (eskuilaketa-teknika, maiztasuna, beharrezko elementuak, garbiketa interproximala, kolutorioen erabilera, mingainaren garbiketa...). Profesionalak eginiko aho-higienearen neurriak.</li> <li>- Lertzoa hautemateko teknikak: besteak beste, bistaratzea, sondajea eta erradiografia.</li> </ul> |
| jarrerazkoak | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ordena eta zehaztasuna zaintzea lan egitean.</li> <li>- Laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia eta horretarako protokoloak errespetatzea.</li> <li>- Zorrotza izatea protokoloen segimenduan eta jarduerak gauzatzean.</li> <li>- Lanbidearekin zerikusia daukan informazioa lortzeko interesa.</li> <li>- Zorroztasuna, terminologia erabiltzean.</li> <li>- Funtzioak gauzatzeko ekimena eta autonomia.</li> <li>- Ezusteko egoeretan erantzuteko gaitasuna izatea.</li> <li>- Zuzentasuna eta adeitasuna pazienteekiko tratuan.</li> <li>- Diskrezioa datuak erabiltzean.</li> </ul>  |

#### 4. HORTZ-TINDAKETA ESTRINTSEKOAK EZABATZEA

|                |  |
|----------------|--|
| prozedurazkoak | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hortz-tindaketa ezabatzeko eta leunketarako beharrezko materiala eta tresneria hautatzea eta prestatzea.</li> <li>- Tindaketa estrintsekoak ezabatzeko teknikak erabiltzea.</li> <li>- Hortz-leunketa egitea, bikarbonatozko <i>sprayan</i> eta ore urratzaileen bidez, besteak beste.</li> <li>- Kalitatea kontrolatzeko sistemak aplikatzea.</li> </ul>   |
| kontzeptuzkoak | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hortz-tindaketak. Definizioa. Motak: estrintsekoak eta intrintsekoak. Diagnostiko diferentziala.</li> <li>- Hortz-tindaketa ezabatzeko teknikak. Hortzak leuntzea. Tindaketa estrintsekoak ezabatzeko beharrezko tresnak, ekipoak eta materialak (ore urratzailea, kontraangelua, leunketa-kopak, profilaxi eskuila, bikarbonatozko <i>spraya</i>...)</li> </ul>  |
| jarrerazkoak   | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ordena eta zehaztasuna zaintzea lan egitean.</li> <li>- Laneko eta ingurumeneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia eta horretarako protokoloak errespetatzea.</li> <li>- Zorrotza izatea protokoloen segimenduan eta jarduerak gauzatzean.</li> <li>- Lanbidearekin zerikusia daukan informazioa lortzeko interesa.</li> <li>- Funtzioak gauzatzeko ekimena eta autonomia.</li> <li>- Ezusteko egoeretan erantzuteko gaitasuna izatea.</li> <li>- Zuzentasuna eta adeitasuna pazienteekiko tratuan.</li> <li>- Iraunkortasuna sekretu profesionala mantentzean.</li> </ul> |

| 5. OBTURAZIOAK LEUNTzea |  |
|-------------------------|--|
| prozedurazkoak          | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Leundu beharreko azalerak identifikatzea.</li> <li>- Behar diren material eta tresneria hautatzea eta prestatzea.</li> <li>- Tresna birakariko parametroak hautatzea, abiadura kontrolatzea eta kontraangelua hoztea.</li> <li>- Amalgamaren obturazioa leuntzea.</li> <li>- Erretxina konposatuen obturazioa leuntzea.</li> <li>- Oklusioaren kontrola</li> <li>- Leundutako azalera egiaztatzea.</li> </ul>   |
| kontzeptuzkoak          | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Amalgamaren obturazioak eta erretxina konposatuen obturazioak leuntzeko teknika. Azalerak identifikatzeko teknikak. Leunketa justifikatzea. Leundu beharreko material motak.</li> <li>- Azalerak leuntzeko tresneria. Tresna birakaria (kontraangelua) eta urratzailea (leuntzeko puntak eta kopak, paperezko tirak eta diskoak...), besteak beste.</li> <li>- Oklusioan interferentziarik ez dagoela egiaztatzeko sistemak.</li> </ul>                                     |
| jarrerazkoak            | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ordena eta metodoa lan egitean.</li> <li>- Laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia eta horretarako protokoloak errespetatzea.</li> <li>- Zorrotza izatea protokoloen segimenduan eta jarduerak gauzatzean.</li> <li>- Lanbidearekin zerikusia daukan informazioa lortzeko interesa.</li> <li>- Zorroztasuna, terminologia erabiltzean.</li> <li>- Funtzioak gauzatzeko ekimena eta autonomia.</li> <li>- Ezusteko egoeretan erantzuteko gaitasuna izatea.</li> </ul> |

| 6. PLAKA BAKTERIANOAZ EZABATzea |  |
|---------------------------------|--|
| prozedurazkoak                  | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Pertsona bakoitzarentzako eskuilatzeteknika egokiena hautatzea.</li> <li>- Eskuilatzeteknika egoki egiteko beharrezkoak diren elementu guztiak hautatzea.</li> <li>- Plaka kontrolatzeko metodo mekanikoak eta kimikoak erabiltzea.</li> <li>- Garbiketa interproximaleko teknika aplikatzea.</li> <li>- Hortz-plaka errebelatzea.</li> <li>- Pazienteen plakaren indizea zehaztea.</li> <li>- Hortzetan eta hortz-protesietan plaka ezabatzeko teknikari buruzko jarraibideak transmititzeko teknikak aplikatzea.</li> </ul>   |
| kontzeptuzkoak                  | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Plaka kontrolatzeko metodo mekanikoak. Sailkapena. Eskuilatzeteknikak.</li> <li>- Hortzetako eskuila. Motak (eskuzkoak, elektrikoak, sonikoak, ultrasonikoak eta beste batzuk). Ezaugarriak. Garbiketa interproximala. Hortzetako zeta. Zetazko hari-sartzailea. Eskuila interproximalak. Erabiltzeko teknikak.</li> <li>- Aho-hortzen higienaren elementu osagarriak. Mingainaren garbitzaileak, zotzak, estimulatzaileak, hortzetarako ureztagailuak eta beste batzuk.</li> <li>- Dentifrikoak. Osagaiak (urratzaileak, aglutinatzaileak, hezetzailak, detergenteak, aromatizatzaileak, kontserbagarriak, koloragarriak, ura eta agente terapeutikoak). Indikazioak.</li> <li>- Plaka kontrolatzeko metodo kimikoak. Sailkapena.</li> <li>- Kolutorioak. Motak. Osagaiak. Osagaiak plaka ezabatzearekin lotzea.</li> <li>- Antibiotikoak. Detergenteak (laurilsulfato sodikoa...). Alkohol</li> </ul> |



|              |   |
|--------------|---|
|              | <p>aminatuak. Beste metodo kimiko batzuk.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Plaka bakterianoaren tindaketa-teknikak. Plaka errebelatzaile motak (eritrosina, eosina, adierazle dikromatikoak, fluoreszeina...). Plaka-indizeak.</li> <li>- Plaka ezabatzeko programa hortz-klinikan.</li> <li>- Hortz-protesi finkoetan, erauzgarrietan eta inplanteetan plaka ezabatzeko teknikak.</li> </ul>   |
| jarrerazkoak | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ordena eta metodoa lan egitean.</li> <li>- Laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia eta horretarako protokoloak errespetatzea.</li> <li>- Zorroztasuna, terminologia erabiltzean.</li> <li>- Funtzioak gauzatzeko ekimena eta autonomia.</li> <li>- Ezusteko egoeretan erantzuteko gaitasuna izatea.</li> <li>- Zuzentasuna eta adeitasuna pazienteekiko tratuan.</li> <li>- Diskrezioa datuak erabiltzean.</li> </ul> |

| 7. HORTZEN HIPERSENTIKORTASUNA KONTROLATZEKO TEKNIKAK APLIKATZEA |  |
|--|--|
| prozedurazkoak   | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Estimulu termikoak, kimikoak eta mekarnikoak aplikatzea, hortzen hipersentikortasuna egiaztatzeko.</li> <li>- Prestakin desentsibilizatzaileak hautatzea eta aplikatzea.</li> <li>- Hortzen hipersentikortasuna tratatzeari buruzko jarraibideak transmititzeko teknikak aplikatzea.</li> </ul>   |
| kontzeptuzkoak   | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hortzen hipersentikortasuna. Etiologia. Hortz-patologia (txantxarra, esmaltearen prozesu suntsitzaileak, hausturak, hortz pitzatuak, zuritzea, ebakuntza-prozedurak eta beste batzuk).</li> <li>- Sintomatologia. Estimulu eragileak (termikoak, kimikoak, mekanikoak) eta minaren lokalizazioa.</li> <li>- Miatze-teknikak.</li> <li>- Prebentzio-tratamendua, etiologikoa eta sintomatikoa.</li> <li>- Hortz-hiperestesiarako preparakinak. Motak. Aplikatzeko irizpideak.</li> </ul>   |
| jarrerazkoak   | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ordena eta zehaztasuna zaintzea lan egitean.</li> <li>- Laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia eta horretarako protokoloak errespetatzea.</li> <li>- Zorrotza izatea protokoloen segimenduan eta jarduerak gauzatzean.</li> <li>- Lanbidearekin zerikusia daukan informazioa lortzeko interesa.</li> <li>- Zorroztasuna, terminologia erabiltzean.</li> <li>- Funtzioak gauzatzeko ekimena eta autonomia.</li> <li>- Ezusteko egoeretan erantzuteko gaitasuna izatea.</li> <li>- Zuzentasuna eta adeitasuna pazienteekiko tratuan.</li> <li>- Diskrezioa tratuan, iraunkortasuna sekretu profesionala mantentzen. Diskrezioa datuak erabiltzean.</li> </ul> |

### d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

#### 1) Sekuentziak

3., 4., 6. eta 7. blokeen edukiak oso lotuta daude. *Plaka bakterianoaren kontrolarekin* has gaitzke, eskuilatze-teknikak eta metodo kimikoak (6. blokea) ezagutzen, gero *kalkulu*

supragingibalaren ezabatzea azter dezakegu (3. blokea), gero orban estrintsekoak ezabatzeko eta azalera leuntzeko tekniken aplikazioa (4. blokea) eta, amaitzeko, hortzen hipersentikortasuna kontrolatzeko tekniken aplikazioa azter dezakegu (7. blokea).

Jarraian, 1. blokeko edukiak azter ditzakegu: *Zigiluak eta arrailadurak*; horretarako, zigitatuak egiteko azalera anatomikoak identifikatuko ditu. Nabarmendu behar da hortzen anatomia "**Aho-barrunbearen azterketa**" 2. moduluan garatzen dela; beraz, bloke honetan modu bereziak tratatuko dira zigila daitezkeen eremuak eta horien ezaugarriak eta, gero, isolamendurako eta arrailadurak zigitatzeko teknikak aztertuko dira.

2. blokeko - *Fluoruro topikoen aplikazioa*- eta 5. blokeko -*Obturazioak leuntzea*- edukiak direla eta, irakasleek nahi duten ordenan azter daitezke; izan ere, a priori, ez da irizpide berezirik ikusten sekuentziatzeko.

## 2) Alderdi metodologikoak

Modulu honen garapenerako, proposatzen da prozedurazko edukiak izatea irakaskuntza-prozesua gidatzen dutenak, metodologia aktiboa eta parte-hartzailea hartuz, ikasleak irakaslearekin eta gainerako ikaskideekin batera arituz lor ditzan helburuak. Horretarako, kontzeptu teorikoak eta teoriko-praktikoak landu eta lan praktikoak egingo dituzte.

Prozedurazko eduki batzuetarako, besteak beste, hobiak eta arrailadurak zigitatzea edo amalgamako eta konpositeko obturazioak leuntzea, garrantzitsua izango da beste behin ere hortzen azalera ahalik eta modu sinesgarrienean erreproduzituko dituzten lan-ereduak edukitzea (esaterako, hortz naturalen bidez eginiko ereduak).

Batzuetan, profil profesional honen berezkoak ez diren teknika batzuk egin beharko dira, nahiz eta bere gaitasunetara mugatu. Horrela, esaterako, obturazioak leuntzeko kasuan, horiek ereduaren gainean egin ditzaketen obturazioen gainean egin beharko dituzte. Horrek, lan-materiala prestatzeko ez ezik, prestakuntza osagarria ere emango die, besteak beste, tresnak erabiltzean, eskuzko trebezian etab.

Horren garrantzitsua izanik ikaskuntza egokirako prozeduretako batzuk modu errealean egitea (plaka, lertzoa eta tindaketa ezabatzea), hortz-klinika bateko ekipamendu-baldintza berdinak eduki behar dira, eta prozedura horiek kasu errealetan egin. Hori dela eta, interesgarria izango da pertsona boluntarioak izatea, ikaskideak edo tratamenduak egiteko prest daudenak.

Baliabide informatikoak eta interaktiboak erabiltzeak (sarean informazioa bilatzea, Interneten dagoen ikus-entzunezko materiala proiektatzea etab.) irakaskuntza-prozesuan aukera ematen du informazioa batzeko eta kontzeptuzko eta prozedurazko edukietan sakontzeko, eta aukera ematen du, halaber, irakasleak edukien gaineko azalpena eta deskribapena emateko.

Eduki batzuetarako, batez ere teknika batekin lotutakoetarako, komeni da irakasleak prozedurak egitea (artekak zigitatzea, obturazioak leuntzea...), eredu orientatzaile izateko, gero ikasleak gauzatzeko.

## 3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak



- ✓ Isolamendu-teknikak ezaugarritzea, fluorra aplikatzea, artekak zigilatzeke, plaka, lertzoa, tindaketa ezabatzea eta hipersentikortasuna kontrolatzea.
- ✓ Teknika bakoitzeko tresneria, materiala eta ekipoak identifikatzea.
- ✓ Inplikaturako prozesuak eta errespetatu beharreko arauak deskribatzea.
- ✓ Egin behar den lanerako tresneria, materiala eta ekipoak hautatzea eta prestatzea.
- ✓ Isolamendu-teknikak gauzatzea, fluorra aplikatzea, artekak zigilatzeke, plaka, lertzoa, tindaketa hautematea eta ezabatzea eta hipersentikortasuna kontrolatzea.
- ✓ Lertzoa hainbat sistemaren bidez ezabatzeko (eskuz, ultrasoinuen bidez) eta arraspatzeko eta leunketa erradikularrerako materiala eta tresneria prestatzea.
- ✓ Pazienteak interbentzioetarako egokitzea eta prestatzea.
- ✓ Pazienteen jarraipena eta zaintza egiteko teknikak aplikatzea.
- ✓ Ahoko prebentzio-, zaintza- eta tratamendu-neurriei buruzko jarraibideak transmititzeko teknikak aplikatzea.
- ✓ Laneko eta ingurumeneko arriskuak prebenitzeko teknikak aplikatzea.
- ✓ Babes pertsonaleko eta kolektiboko ekipoak eta sistemak erabiltzea, arriskuak gutxitzeko.

## 5. lanbide-modulua

### EPIDEMIOLOGIA AHO-OSASUNEAN

#### a) Aurkezpena

|                            |   |
|----------------------------|---|
| Lanbide-modulua:           | <b>Epidemiologia aho-osasunean</b>  |
| Kodea:                     | 0734  |
| Heziketa-zikloa:           | Ahoaren eta hortzen higieena  |
| Maila:                     | Goi-maila   |
| Lanbide-arloa:             | Osasuna   |
| Iraupena:                  | 132   |
| Kurtsoa:                   | 1   |
| Kreditu kop.:              | 6   |
| Irakasleen espezialitatea: | Prozesu sanitarioak<br>(Bigarren Hezkuntzako irakaslea)   |
| Modulu mota:               | Konpetentzia-atal honi lotuta dago:<br>UC1594_3: Pertsonen eta gizartearen aho-<br>hortzen osasuna ebaluatzea, ikuskaritza<br>epidemiologikoko jardueren bidez. |
| Helburu orokorrak:         | 9 / 12 / 13 / 14 / 15 / 16  |

#### b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Jarraipen-programak eta ikasketa epidemiologikoak planifikatzen ditu, populazio talde berezietarako, helburuak eta jarduketak zehaztuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- Epidemiologiaren aplikazioak definitu ditu.
- Azterketa epidemiologikoen motak ezaugarritu ditu.
- Adierazle demografiko esanguratsuenak identifikatu ditu.
- Talde berezien ezaugarri demografikoak deskribatu ditu.
- Gizarte-talde jakin batean azterketa epidemiologikoa garatzeko faseak definitu ditu.
- Azterketa epidemiologikoen helburuak egin ditu gizatalde jakin baterako.
- Azterketako populazioa eta aztertu beharreko aldagaiak hautatu ditu.
- Egingo den jarduketarako beharrezko giza baliabideak eta baliabide materialak zerrendatu ditu.
- Azterketaren helburu diren biztanleei eta beste eragile batzuei informazioa emateko ekintzak zehaztu ditu.



2. Gizarte-talde baten aho eta hortzen osasun-mailak zehazten ditu, adierazleak aztertuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Gizarte-talde baten osasunarekin eta gaixotasunarekin lotutako terminologia erabili du.
- b) Osasun-adierazleak tipifikatu ditu, aplikazioen arabera.
- c) Aho eta hortzen osasunaren adierazleak sailkatu ditu.
- d) Aho eta hortzen osasunaren adierazleak lortzeko beharrezko kalkuluak eta eragiketak egin ditu.
- e) Gizarte-talde baten osasun eta gaixotasun maila ebaluatu du, eskuratutako adierazleen bidez.
- f) Hainbat sistematan lortutako emaitzak erregistratu ditu.
- g) Egon daitezkeen gorabeherak ebatzi ditu, ezarritako arau eta protokoloak betez.
- h) Eskuratutako informazioa diskrezioz eta errespetuz tratatu du.
- i) Balioetsi du ordena eta zehaztasuna zaintzea lan egitean.

3. Taldeen datu epidemiologikoak eskuratzen ditu, galde-sorten bidez, eta, horretarako, horiek egiteko teknikak deskribatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Informazioa eskuratzeko metodoen ezaugarriak eta aplikazioak identifikatu ditu.
- b) Elkarrizketetako galdetegiak eta gidoiak landu ditu.
- c) Datuak eskuratzeko diseinatuta zeuden tresnak egokitu ditu.
- d) Elkarrizketak egiteko eta datuak eskuratzeko galde-sortak egiteko teknikak aplikatu ditu.
- e) Elkarrizketa eta galde-sorten datuak atera ditu.
- f) Bigarren mailako iturriak kontsultatu ditu informazioa eskuratzeko.
- g) Eskuratutako informazioa zenbait euskarritan erregistratu du.
- h) Eskuratutako datuen kalitatea egiaztatu du.
- i) Aztertzaileen entrenamendu eta kalibrazio-prozedurak egin ditu.
- j) Egon daitezkeen gorabeherak ebatzi ditu, ezarritako arau eta protokoloak betez.
- k) Eskuratutako informazioa diskrezioz eta errespetuz tratatu du.

4. Gizarte-talde baten aho-hortzen osasun-mailak identifikatzen ditu, eta, horretarako, azterketa epidemiologikoetan eskuratutako emaitzak interpretatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Azterketa epidemiologikoen datuak ebaluatzeko metodoak identifikatu ditu.
- b) Datuak tabulatzeko prozedurak aplikatu ditu.
- c) Datuen kalkulua eta analisi estatistikoa egin du.
- d) Gizarte-talde baten egoera eta bilakaera deskribatzeko adierazleak ebaluatu ditu.
- e) Azterketa epidemiologikoen emaitzekin txostenak egin ditu.
- f) Aurkitutako asalduren kausa izan daitezkeenei eta ondorioei buruzko hipotesia egin du.
- g) Lortutako emaitzak beste ikerketa batzuetan lortutakoekin konparatu ditu.
- h) Ezarritako lan-protokoloak eta -arauak errespetatu ditu.

5. Osasun-arloan esku hartzeko programetan datu epidemiologikoei buruzko informazioa ematen du, eta arrisku-taldeak ezaugarriak deskribatzen ditu horretarako.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Herritar-taldeak sailkatu ditu, ezaugarrien eta ohitura esanguratsuen arabera.
- b) Aho-hortzen patologian arrisku-populazioak identifikatu ditu.
- c) Aho-hortzen gaixotasun-arriskua areagotzen duten faktoreak ezaugarritu ditu.
- d) Aho-hortzen gaixotasuna prebenitzen eta babesten duten faktoreak ezaugarritu ditu.
- e) Aho-hortzen gaixotasunen epidemiologia deskribatu du.
- f) Agente horiei datuen berri emateko informazioa prestatu du.
- g) Aho-hortzen gaixotasunen kausak eta ondorioak lotu ditu.
- h) Ezarritako lan-prozedurak eta -arauak errespetatu ditu.
- i) Talde hartzailearen ezaugarrietara egokitzeko ahalmena erakutsi du.



c) Oinarrizko edukiak:

| 1. JARRAIPEN-PROGRAMAK ETA AZTERKETA EPIDEMIOLOGIKOAK PLANIFIKATZEA |   |
|---|---|
| prozedurazkoak  | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Adierazleen, maiztasun-neurrien, arrisku-faktoreen eta fenomeno epidemiologikoen lotura- eta eragin-neurrien kalkulua egitea.</li> <li>- Azterketa epidemiologikoak planifikatzea.</li> <li>- Helburuak zehaztea.</li> <li>- Aztertuko diren populazioak definitzea.</li> <li>- Laginketa-teknikak zehaztea.</li> <li>- Aldagaiak hautatzea eta definitzea.</li> <li>- Aldagaiak neurtzeko eskalak prestatzea.</li> <li>- Datuak lortzeko eta ebaluatzeko plangintza egitea.</li> <li>- Datuak eskuratzeko tresnak prestatzea.</li> </ul>  |
| kontzeptuzkoak  | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Epidemiologia. Definizioak. Epidemiologiako fenomenoaren neurketa. Maiztasun-neurrien kalkulua. Gorabehera. Prebalentzia. Lotura-neurrien kalkulua. Arrisku erlatiboa. Aukera-arrazoiak. Inpaktu-neurriak.</li> <li>- Demografia. Demografia estatikoa eta dinamikoa. Definizioak. Helburuak. Adierazle demografikoak.</li> <li>- Informazio demografikoaren eta epidemiologikoaren iturriak.</li> <li>- Azterketa epidemiologikoak. Ezaugarriak. Metodologia. Sailkapena. Aplikazioak.</li> <li>- Saiakuntzako azterketak. Saiakuntza klinikoak. Azterketa komunitarioak.</li> <li>- Saiakuntzakoak ez diren azterketak. Deskribapen-azterketak. Azterketa ekologikoak. Prebalentzia-azterketak. Azterketa analitikoak. Kasuak eta kontrolak. Taldeak.</li> <li>- Zaintza epidemiologikoa. Ezaugarriak. Teknikak. Zainketa epidemiologikoko sareak.</li> <li>- Ikerketa epidemiologikoko etapak. Plangintza. Landa-lana. Emaitzak aztertzea.</li> <li>- Azterketa epidemiologikoak planifikatzea. Helburuak zehaztea. Aztertuko diren populazioak definitzea. Laginak hartzeko teknikak. Laginketa motak. Aldagaiak hautatzea eta definitzea. Aldagaiak neurtzeko eskalak.</li> <li>- Datuak lortzeko plangintza egitea. Datuak eskuratzeko metodoak prestatzea.</li> <li>- Datuak aztertzeko eta ebaluatzeko plangintza egitea.</li> </ul> |
| jarrerazkoak  | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ordena eta metodoa lan egitean.</li> <li>- Zorroztasuna, terminologia erabiltzean.</li> <li>- Funtzioak gauzatzeko ekimena eta autonomia.</li> <li>- Lanbidearekin zerikusia daukan informazioa lortzeko interesa.</li> <li>- Argitasuna eta zehaztasuna, informazioa helaraztean.</li> <li>- Indarrean dagoen legeria errespetatzea.</li> <li>- Elkarlanarekiko eta talde-lanarekiko interesa.</li> </ul>   |

| 2. AHO-HORTZEN OSASUN-MAILAREN ADIERAZLEAK ZEHAZTEA |   |
|---|---|
| prozedurazkoak                                      | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Kasu desberdinetan erabiliko den adierazlea hautatzea eta identifikatzea.</li> <li>- Aho-osasunaren adierazleak neurtzeko teknikak aplikatzea.</li> <li>- Erregistro-dokumentuak prestatzea.</li> <li>- Neurketak erregistratzea dagokion dokumentazioan.</li> </ul>   |
| kontzeptuzkoak                                      | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Osasuna eta gaixotasuna. Osasun-adierazleak. Adierazleen sailkapena. Gaixotasunak kontrolatzeko prebentzio-neurriak eta ekintzak.</li> <li>- Aho-hortzen osasuna. Odontologia komunitarioa.</li> <li>- Ahoko osasun-adierazleak. Ezaugarriak. Eskuratzeko eta kalkulatzeko teknikak.</li> <li>- Aldi baterako hortzaldirako eta iraunkorrerako txantxa-indizeak.</li> <li>- Gaixotasun periodontalaren indizeak. Hortzoietako gaixotasunaren indizeak. Plaka-indizeak.</li> <li>- Maloklusio-indizeak.</li> <li>- Fluorosi-indizeak eta beste batzuk.</li> <li>- Azterketa epidemiologikoetan datuak erregistratzeko dokumentazioa. Fitxak. Odontogramak. Periodontogramak. OMEren dokumentazioa.</li> </ul> |
| jarrerazkoak  | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ordena eta metodoa lan egitean.</li> <li>- Zorroztasuna, terminologia erabiltzean.</li> <li>- Funtzioak gauzatzeko ekimena eta autonomia.</li> <li>- Zuzentasuna eta errespetua, pertsonetikiko tratuan.</li> <li>- Iraunkortasuna sekretu profesionala mantentzean.</li> <li>- Lanbidearekin zerikusia daukan informazioa lortzeko interesa.</li> <li>- Asertibitatea, bere azalpenetan eta ideiak adieraztean.</li> <li>- Pertsona bakoitzaren baldintza eta egoeretara egokitzeak interesa.</li> <li>- Laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumena babesteari buruzko araudiekiko errespetua izatea.</li> <li>- Elkarlanarekiko eta talde-lanarekiko interesa.</li> </ul>                               |

| 3. AZTERKETA EPIDEMIOLOGIKOETAKO DATUAK ESKURATZEA |   |
|--|---|
| prozedurazkoak                                     | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Informazioa eskuratzeko metodoak aplikatzea.</li> <li>- Informazioa eskuratzeko tresnak prestatzea.</li> <li>- Informazioa eskuratzeko tresnak zenbait egoeretara egokitzea.</li> <li>- Aztertzaileak kalibratzeko sistemak aplikatzea.</li> <li>- Zenbait iturritan datu epidemiologikoak kontsultatzea eta aztertzea.</li> </ul>   |
| kontzeptuzkoak                                     | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Behaketan oinarritutako datuak eskuratzeko metodoak. Miaketa fisikoak eta osagarriak.</li> <li>- Inkestetan oinarritutako datuak eskuratzeko metodoak. Elkarrizketak. Galdetegiak. Prestatzeko eta egiteko teknikak.</li> <li>- Bigarren mailako datuetan oinarritutako datuak eskuratzeko metodoak. Ahoko osasunarekin lotutako dokumentuak eta iturri bibliografikoak.</li> <li>- Datuak eskuratzeko kalitate-kontrola. Akats ohikoenak. Aztertzaileak trebatzeko eta kalibratzeko teknikak. Aldagarritasuna eta fidagarritasuna.</li> </ul> |
| jarrerazkoak                                       | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Lana arduraz egitea.</li> </ul>  |



|  |   |
|--|---|
|  | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Zorroztasuna, terminologia erabiltzean.</li> <li>- Zuzentasuna eta errespetua, pertsonetikiko tratuan.</li> <li>- Ezusteko egoeretan erantzuteko gaitasuna izatea.</li> <li>- Iraunkortasuna sekretu profesionala mantentzean.</li> <li>- Asertibitatea, bere azalpenetan eta ideiak adieraztean.</li> <li>- Pertsona bakoitzaren baldintza eta egoeretara egokitzeko interesa.</li> <li>- Elkarlanarekiko eta talde-lanarekiko interesa.</li> </ul> |
|--|---|

#### 4. GIZARTE-TALDE BATEN AHO-HORTZEN OSASUN-MAILA IDENTIFIKATZEA

|                |  |
|----------------|--|
| prozedurazkoak | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Datuak antolatzea. Taulak prestatzea.</li> <li>- Datuen irudikapen grafikoa.</li> <li>- Kalkulu estatistikoak egitea.</li> <li>- Datuak eta egoerak aztertzea.</li> <li>- Datu eta grafiko estatistikoak interpretatzea.</li> </ul>   |
| kontzeptuzkoak | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Datuak ebaluatzeko metodoak.</li> <li>- Galdetegien tabulazio-prozesuak.</li> <li>- Datuen analisi informatikoa. Aplikazio informatikoak.</li> <li>- Datuen analisi estatistikoa. Estatistika deskriptiboa. Zentralizazio- eta dispersio-parametroak. Koerlazioa.</li> <li>- Txosten epidemiologikoak. Egiteko sistemak.</li> <li>- Txostenen interpretazioa. Beste txosten eta iturri bibliografiko batzuk kontsultatzea.</li> </ul> |
| jarrerazkoak   | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Zorroztasuna, terminologia erabiltzean.</li> <li>- Funtzioak gauzatzeko ekimena eta autonomia.</li> <li>- Talde-lanerako errespetua eta gaitasuna.</li> <li>- Argitasuna eta zehaztasuna, informazioa helaraztean.</li> <li>- Pertsona bakoitzaren baldintza eta egoeretara egokitzeko interesa.</li> <li>- Elkarlanarekiko eta talde-lanarekiko interesa.</li> </ul>   |

#### 5. DATU EPIDEMIOLOGIKOEI BURUZKO INFORMAZIOA

|                |   |
|----------------|---|
| prozedurazkoak | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Txosten eta iturri bibliografikoak interpretatzea eta kontsultatzea.</li> <li>- Informazioa emateko eta jakinarazteko teknikak aplikatzea.</li> <li>- Informazio epidemiologikoa emateko txostenak, posterrak eta aplikazio digitalak egitea.</li> </ul>   |
| kontzeptuzkoak | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ahoko gaixotasun batzuen epidemiologia. Banaketa. Eragina eta prebalentzia. Eboluzioa. Tarteko faktoreak. Gaixotasun batzuen kausak eta ondorioak. Osasun-egoeraren eta patologien eboluzioaren aldaketak.</li> <li>- Ahoko patologiaren arriskua gutxitzen eta areagotzen duten faktoreak. Arrisku-faktoreak. Faktore etiologikoak. Prebentzio-faktoreak. Babes-faktoreak. Elikadura-ohiturak. Higiene-ohiturak. Osasun- eta automiaketa-zerbitzuen maiztasun-ohiturak.</li> <li>- Gaixotasun infekzioso, ez-infekzioso eta minbiziaren ezaugarri epidemiologiko orokorrak.</li> <li>- Emaizak jakinarazteko eta komunikatzeko teknikak. Emaizak aurkeztea. Aplikazio informatikoak. Grafikoak. Taulak. Hizketa zientifikoa. Txosten epidemiologikoak. Aurkezpen digitalak. Posterrak.</li> <li>- Datuak kontsultatzeko teknikak. Bibliografia-iturriak. Organismo</li> </ul> |

|              |   |
|--------------|---|
|              | ofizialen datuak.   |
|              |   |
| jarrerazkoak | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ordena eta zehaztasuna zaintzea lan egitean.</li> <li>- Lana arduraz egitea.</li> <li>- Zorroztasuna, terminologia erabiltzean.</li> <li>- Zuzentasuna eta errespetua, pertsonetikiko tratuan.</li> <li>- Lanbidearekin zerikusia daukan informazioa lortzeko interesa.</li> <li>- Argitasuna eta zehaztasuna, informazioa helaraztean.</li> <li>- Elkarlanarekiko eta talde-lanarekiko interesa.</li> </ul> |

## d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

### 1) Sekuentziazioa

Modulua hasteko, sarrera laburra egin daiteke osasunari eta gaixotasunari buruz, erlatiboa eta aldagarria den aldetik, eta osasun-maila hau hobetzeko prebentzio mailari eta jarduteko moduei buruz (2. blokea); horiek ezinbestekoak izango dira ulertzeko zergatik ikasten den heziketa-ziklo honetan eta zenbateko garrantzia duten jarduketek osasuna hobetzeko.

Gero, epidemiologiaren eta demografiaren alderdirik oinarritzkoenak ikas ditzakegu, 1. blokean deskribatutakoak, eta azterketa epidemiologikoen motak eta bakoitzaren ezaugarriak. Gero, 2. blokean deskribatutako adierazleen sarrera laburra egin daiteke eta azterketa hauetan, 1. blokean deskribatutakoetan, egin daitekeen fenomenoek neurketa.

Bigarren fasean, azterketa epidemiologikoen plangintza egin daiteke, lehenengo blokeko plangintza-etapei eta -sistemei jarraiki. Lan zientifiko baten hiru denborak landu daitezke: plangintza, landa-lana eta emaitzen analisisa. Horrela, 3. eta 5. blokeetan deskribatutako edukiak ere landu daitezke, datuak eskuratzeko metodoekin lotutakoak, batez ere galdetegi eta elkarrizketetan oinarrituta, eta 4. eta 5. blokeetan deskribatutako txostenak, emaitzen aurkezpenak eta abar egitearekin lotutako datuak.

Hirugarren fasean, landa-lanarekin lotura gehien duten edukiak garatuko lirateke, alegia, adierazleen neurketa edo ahoko osasunaren eta erregistro-sistemen adierazleak edo indizeak, 2. blokean deskribatutakoak. Komeni da une honetarako, ikasleek 2. moduluan **"Aho-barrunbearen azterketa"**- eta 3. moduluan **"Aho-barrunbearen miaketa"**- ematen diren aho-patologiari buruzko eta prozedura diagnostikoei buruzko prestakuntza pixka bat izatea.

Laugarren fasean, datuen ebaluazioa landuko litzateke eta, testuinguru honetan, analisi estatistikoa jasoko litzateke (4. blokea). Azkenik, amaitzeko, *Datu epidemiologikoei buruzko informazioarekin* ikas daiteke azken blokea, kontuan hartuta une honetarako, ikasleak gai izango direla terminologia erabiltzeko eta datu epidemiologikoak nahikoa autonomiaz interpretatzeko.

### 2) Alderdi metodologikoak

Modulua garatzeko, ahozko azalpen klasikoez eta aurkezpen digitalez gainera, ikaslearentzako metodo aktiboagoak ere erabili behar dira, besteak beste: kalkulu-ariaketak, problemen ebazpena, taula eta grafikoak egitea, azterketa-materiala bilatzea eta prestatzea etab. Interesgarria da banakako eta taldeko lanak antolatzea, esaterako populazio batentzako ikerketa epidemiologikoko plangintzan oinarrituak eta datu zehatz



batzuekin; egin ahal izan den lan jakin bati dagokion txostenen bat egitea; talde zehatz bati eta ezaugarri bereziak dituenari ikerketa batean eskuratutako emaitzak aurkeztea, edo poster zientifiko bat egitea, irakurritako lanen baten laburpen gisa... Horrela, ikasitako edukiak aplikatzen joango dira.

Jarduera gisa azterketa epidemiologiko bat egitea planteatzen bada, datuak jasotzeko lagin erreala komeni den balioetsi beharko da; izan ere, nahiz eta, hasiera batean, interesgarria iruditu dakigukeen, zaila izan daiteke edo denbora gehiegi eman dezakegu horretan, eta horiek egiteko arazok lanaren helburua betetzea oztopa dezakete.

Ahoko osasunaren indizeekin lotutako edukietan, ez da miaketa fisikoa modulu honetan jasotako prozedura gisa aurreikusten, baina, beharrezkoa balitz, sarrerarako edo birpasatzeko jarduera bereziren bat egin ahal izango litzateke, ikasleek eduki horiek hobeto ulertzeko.

Kalkulu-jardueren kasuan (estatistikako ariketak edo maiztasun-neurrien kalkuluak), ezinbestekoa da lan egitean kontuan hartzea kalkulua, garrantzitsua bada ere, eskuratutako datua interpretatzea ere garrantzitsua dela. Beraz, komeni da ikasleari sistematikoki exijitzea jasotako emaitzak azaltzeko eta komentatzeko.

Erabiltzen diren informazioa eta datuak gaurkotuta egongo dira, eta ikasleei eskatu behar zaie datu horien fidagarritasuna jakiteko jatorria edo egiletza jakitea zein garrantzitsua den. Unitate didaktikoetan erabiltzen diren datu-iturriek askotarikoak izan behar dute (organismo ofizialak, osasun-erakundeak, ahoko osasunaren galdetegiak, elkargo profesionalak...) eta hainbat euskarritakoak (papera, digitala...).

Dagoeneko argitaratuta dauden testuak eta lanak, bereziki ahoko osasunari buruzko galdetegiak, oso baliabide interesgarriak izango dira. Ikasleek horiek irakurtzean laguntza gehiago edo gutxiago izan dezakete (esaterako, galdetegi baten bidez, nonbaiteko irakurketa gidatuaren bidez...), zailtasunaren arabera. Kasu batzuetan, eskuratutako informazioaz gainera, erabilitako kontsulta-teknika garrantzitsua izango da; izan ere, datu epidemiologikoak aldatu egiten dira. Horrenbestez, ikasleek, modulua amaitzen dutenean, alde horretatik autonomo izan beharko dute.

5. blokean deskribatutako edukietako batzuek, esaterako patologia zehatzekin edo arrisku- eta babes-faktoreekin lotutakoak, baliteke azalpen teorikorik behar ez izatea; izan ere, gehienak heziketa-zikloko beste modulu batzuetan ikasiko dira (adibidez, 2. moduluan, "**Aho-barrunbearen azterketa**"). Modu autonomoagoan ikas daitezke eta informazioa bilatzeko eta informazioa aurkezteko planteia daiteke, oinarritzko jarduera gisa.

Emaitzak jakinarazteko teknikek esperimenezkoa behar dute. Denbora eskaini behar da ikasleek esan beharrekia prestatzeko eta azaltzeko, baliabideetan oinarrituta, esaterako, aurkezpen digitalen edo poster zientifikoaren bidez; beraiek ere egin ditzakete horiek.

### 3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Azterketa epidemiologikoen eta neurtutako adierazleen motak ezaugarritzea.
- ✓ Azterketa epidemiologikoen faseak eta elementuak deskribatzea.
- ✓ Jarraipen epidemiologikoen ikerketa- eta jarduera-plangintza egitea.
- ✓ Datuak hainbat sistematik lortzea.

- ✓ Galdetegiak eta inkestak egitea.
- ✓ Ahoko osasunaren indizeak ezaugarritzea.
- ✓ Ahoko osasunaren indizeak kalkulatzeko.
- ✓ Datu epidemiologikoak aztertzea eta ebaluatzea.
- ✓ Kalkuluak egitea.
- ✓ Estatistika-datuak interpretatzea.
- ✓ Datuak eta informazioa bilatzea eta kontsultatzea.
- ✓ Datuak eta bibliografia interpretatzea.
- ✓ Jakinarazteko informazioa prestatzea.
- ✓ Emaizak hainbat sistemaren bidez aurkeztea.



## 6. lanbide-modulua

### AHO-OSASUNERAKO HEZKUNTZA

#### a) Aurkezpena

|                            |   |
|----------------------------|---|
| Lanbide-modulua:           | <b>Aho-osasunerako hezkuntza</b>  |
| Kodea:                     | 0735  |
| Heziketa-zikloa:           | Ahoaren eta hortzen higieena  |
| Maila:                     | Goi-maila   |
| Lanbide-arloa:             | Osasuna   |
| Iraupena:                  | 140   |
| Kurtoa:                    | 2   |
| Kreditu kop.:              | 7   |
| Irakasleen espezialitatea: | Prozesu sanitarioak<br>(Bigarren Hezkuntzako irakaslea)   |
| Modulu mota:               | Konpetentzia-atal honi lotuta dago:<br>UC1595_3: Pertsonen eta gizartearen aho-<br>hortzen osasuna sustatzea, osasun-<br>hezkuntzako eta osasun-sustapeneko<br>jardueren bidez. |
| Helburu orokorrak:         | 9 / 11 / 13 / 14 / 15 / 16 / 17   |

#### b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Aho-hortzen osasunari buruzko informazioa eskuratzen du, taldeak eta pertsonak ezaugarritzeko, eta, horretarako, teknika bereziak hautatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Prebentzio mailak, helburuak eta ekintzak bereizi ditu.
- Osasun-determinatzaileen motak pertsonen eta taldeen aho-hortzen osasunari eragiten dieten faktoreekin lotu ditu.
- Aho-hortzen osasun-maila hobetzen duten faktoreak eta arrisku-faktoreak aipatu ditu.
- Helburu diren taldeei buruzko informazioa eskuratzeko iturriak kontsultatu ditu.
- Aho-hortzen osasunari eta pertsona eta kolektiboan gaixotasunari buruzko informazioa jasotzeko teknikak erabili ditu.
- Definitutako taldearekin lotutako informazioa hautatu du.
- Informazioa helburuen arabera antolatu du.
- Osasun publikoarekin eta osasunaren sustapenarekin eta hezkuntzarekin lotutako oinarriko terminologia erabili du.

2. Osasunaren hezkuntzarako eta sustapenerako ekintzak antolatzen ditu, eta, horretarako, zenbait egoera eta pertsonentzako jarduerak programatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Esku hartzeko lehentasunak ezarri ditu, talde bakoitzaren ezaugarrien arabera.
- Osasunean esku hartzeko programetan lortu behar diren helburuak definitu ditu.
- Programaren jarduerak helburuen arabera aipatu ditu.
- Jarduerak diseinatu ditu, eta, horretarako, ekintzaren hartzaille diren pertsona eta kolektiboetara egokitu ditu.
- Jarduerak sekuentziatu ditu eta egiteko denborak esleitu ditu.
- Jarduerak garatzeko beharrezko baliabideak identifikatu ditu.
- Lan-materialak landu ditu, pertsona eta talde parte-hartzaileen arabera.

3. Aho-hortzen osasunari buruzko informazioa prestatzen du, eta, horretarako, helburu den taldearen arabera hautatzen ditu edukiak.

Ebaluazio-irizpideak:

- Helburuetan aurreikusitako helburuak interpretatu ditu.
- Helburu den taldearen ezaugarriak identifikatu ditu.
- Emango den informazioaren ezaugarriak identifikatu ditu.
- Transmitituko diren ezagutzen zailtasunak identifikatu ditu.
- Informazioa talde hartzaillearen adinaren eta ezaugarrien arabera hautatu du.
- Edukiak ezaugarri eta patologia bereziak dituzten pertsona edo taldeetara egokitu ditu.
- Osasuna sustatzeko eta aho-hortzen gaixotasunak prebenitzeko jardueretan transmititu beharreko edukiak antolatu ditu.
- Bibliografia kontsultatu du, aho-hortzen gaixotasunak prebenitzearekin lotutako informazioa eguneratzeko.
- Ekimena adierazi du informazioa bilatu eta tratatzean.

4. Aho-hortzen osasunari buruzko informazioa ematen die pertsona eta taldeei, eta, horretarako, beren ezaugarrietara eta motibaziora egokitutako teknikak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Komunikazio-teknikak, eta horien faseak eta eskakizunak identifikatu ditu.
- Informazioa jasoko duten pertsonen ezaugarriak zehaztu ditu.
- Eman du informazioa argi, zuzen eta kasu bakoitzera egokituta.
- Komunikazio-teknikak, eta horien faseak eta eskakizunak ezaugarritu ditu.
- Tartean diren pertsona eta taldeentzako motibazio gehien duten balioak identifikatu ditu.
- Motibazio- eta errefortzu-teknikak aplikatu ditu hainbat egoeratan.
- Pertsona edo talde hartzaillearen ulermen maila egiaztatzeke teknikak aplikatu ditu.
- Aho-hortzen osasun-sustapenaren eremuan portaera aldatzeko teknika eta oinarri funtsezkoak identifikatu ditu.
- Planteamenduak eta bizimodu desberdinak dituzten pertsonenganako errespetua erakutsi du.

5. Aho-hortzen osasun-arloko hezkuntza- eta sustapen-jarduerak ezartzen ditu, eta horiek taldeen ezaugarrien arabera hautatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:



- a) Osasuna eta metodologia sustatzeko kanpainen helburuak interpretatu ditu.
- b) Osasun-hezkuntzako programak aplikatzeko faseak bete ditu.
- c) Hainbat baliabide erabili ditu, besteak beste, material inprimatuak, ikus-entzunezkoak edo aplikazio informatikoak.
- d) Baliabideak pertsona eta talde hartzaileen ezaugarrietara egokitu ditu.
- e) Osasuna sustatzeko jarduerak garatu ditu.
- f) Populazioaren inplikazioa eta lankidetzaren lortzeko taldeen animazio- eta dinamika-teknikak aplikatu ditu.
- g) Egindako plangintzan markatutako denborak bete ditu.
- h) Aurreikusi ez diren egoerak behar bezala ebatzi ditu.
- i) Talde-lanarekiko interesa erakutsi du.

6. Osasunerako hezkuntza-programak ebaluatzeko teknikak aplikatzen ditu, eta, horretarako, helburuak lortutako emaitzekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Jarduerak ebaluatzeko tresnak identifikatu ditu.
- b) Osasun-arloan esku hartzean programatutako helburuak ebaluatzeko irizpideak egin ditu.
- c) Ekintza ebaluatzailearen helburuaren arabera aplikatu behar diren tresnak bereizi ditu.
- d) Osasunerako hezkuntza-jarduerak ebaluatzeko tresnak prestatu ditu.
- e) Programan garatutako jarduerak ebaluatzeko tresnak erabili ditu.
- f) Aurreikusitako helburuak betetzen ez diren kasuetarako zuzenketa- eta errefortzu-neurriak ezarri ditu.
- g) Jarduketa-protokoloetan ezarritako irizpideak errespetatu ditu.

c) Oinarrizko edukiak:

| 1. AHO-HORTZEN OSASUNARI BURUZKO INFORMAZIOA ESKURATZEA |   |
|---|---|
| prozedurazkoak  | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Prebentzio mailak eta ekintzak identifikatzea.</li> <li>- Maila desberdinetako eta hainbat helburutako prebentzio-jarduerak formulatzea.</li> <li>- Bizitza-estilo batzuetako osasunerako arriskuak identifikatzea.</li> <li>- Taldeetan osasunerako arriskuak identifikatzea (adina, maila sozioekonomikoa...)</li> <li>- Osasunerako hezkuntzako programak garatzeko faseak prestatzea.</li> <li>- Osasunerako hezkuntza-jarduerak helburuaren arabera sailkatzea.</li> <li>- Informazioa lortzeko teknikak aplikatzea.</li> <li>- Galdetegiak prestatzea.</li> <li>- Elkarrizketak prestatzea.</li> <li>- Informazioa eta datuak kontsultatzea eta interpretatzea.</li> </ul> |
| kontzeptuzkoak  | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Osasuna eta gaixotasuna. Osasun publikoa eta komunitarioa. Gaixotasunaren historia naturala eta prebentzio mailak. Odontologia komunitarioa.</li> <li>- Osasunaren mugatzaileak. Ahoko osasunerako faktore babesleak eta kaltegarriak. Bizitza-estiloa ahoko osasun-mailaren baldintzatzaile gisa.</li> <li>- Osasun-hezkuntza. Helburuak. Edukiak. Agenteak. Aplikazio-</li> </ul>  |

|              |  |
|--------------|--|
|              | <ul style="list-style-type: none"> <li>- eremuak. Osasunerako hezkuntzaren eredu teorikoak.</li> <li>- Informazioa biltzeko teknikak.</li> <li>- Informazio-iturriak. Datu epidemiologikoak.</li> <li>- Osasunaren eta aho-hortzen osasunaren adierazleak.</li> <li>- Inkestak. Elkarriketak eta galdetegiak.</li> </ul>   |
| jarrerazkoak | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Lana arduraz egitea.</li> <li>- Erantzukizuna, osasunerako hezkuntza-agente gisa.</li> <li>- Asertibitatea, bere azalpenetan eta ideiak adieraztean.</li> <li>- Zorroztasuna, terminologia erabiltzean.</li> <li>- Zuzentasuna eta errespetua, pertsonetikiko tratuan.</li> <li>- Diskrezioa, jardueretan inplikaturako pertsonen datuen erabileran.</li> <li>- Elkarlanarekiko eta talde-lanarekiko interesa.</li> <li>- Osasunarekiko eta hobekuntza-aukeretikiko interesa.</li> <li>- Hezkuntzaren helburu den tematikaren eta portaera pertsonalaren arteko koherentzia.</li> </ul> |

| 2. OSASUNAREN HEZKUNTZA- ETA SUSTAPEN-EKINTZAK ANTOLATZEA |  |
|---|--|
| prozedurazkoak  | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ahoko osasunaren hezkuntza- eta sustapen-programak planifikatzea.</li> <li>- Helburuak zehaztea. Helburuak egokitzea.</li> <li>- Metodoak hautatu eta aplikatzea. Jarduerak garatzea.</li> <li>- Jarduerak diseinatzea eta sekuentziatzea.</li> <li>- Baliabideak hautatu eta prestatzea.</li> <li>- Materialak prestatzea.</li> <li>- Kronogramak egitea.</li> <li>- Ahoko osasunaren hezkuntza-proiektuak interpretatzea eta egokitzea.</li> </ul>  |
| kontzeptuzkoak  | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Osasun-plangintza. Osasun-plangintzaren mailak eta etapak.</li> <li>- Osasunaren sustapenerako eta heziketarako programak eta jarduerak planifikatzea. Plangintza-faseak. Beharrak antzematea eta lehentasunak ezartzea.</li> <li>- Helburuak. Helburuak sailkatzea. Helburuak azaltzeko eskakizunak.</li> <li>- Metodologia. Metodoen sailkapena.</li> <li>- Zuzeneko metodoak. Talde-teknikak. Indikazioak.</li> <li>- Zeharkako metodoak. Indikazioak.</li> <li>- Hezkuntza-jarduerak. Sailkapena. Sustapen- eta prebentzio-jarduerak Diseinu- eta sekuentziazio-sistemak. Lan-kronogramak.</li> <li>- Baliabideak. Motak.</li> <li>- Materialak. Motak. Lantzeko teknikak. Aplikazioak.</li> <li>- Osasuna sustatzeko jardueretan erabilitako aplikazio informatikoak.</li> <li>- Erakundeek sustaturako aho-hortzen osasunerako hezkuntza-proiektuak.</li> </ul> |
| jarrerazkoak  | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Erantzukizuna, osasunerako hezkuntza-agente gisa.</li> <li>- Asertibitatea, bere azalpenetan eta ideiak adieraztean.</li> <li>- Argitasuna eta zehaztasuna, informazioa helaraztean.</li> <li>- Zuzentasuna eta errespetua, pertsonetikiko tratuan.</li> <li>- Diskrezioa, jardueretan inplikaturako pertsonen datuen erabileran.</li> </ul>  |



|  |   |
|--|---|
|  | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Pertsona bakoitzaren baldintza eta egoeretara egokitzeko interesa.</li> <li>- Funtzioak gauzatzeko ekimena eta autonomia.</li> <li>- Elkarlanarekiko eta talde-lanarekiko interesa.</li> <li>- Osasunarekiko eta hobekuntza-aukerekiko interesa.</li> <li>- Hezkuntzaren helburu den tematikaren eta portaera pertsonalaren arteko koherentzia.</li> </ul> |
|--|---|

### 3. AHO-HORTZEN OSASUNARI BURUZKO INFORMAZIOA PRESTATZEA

|                       |  |
|-----------------------|--|
| <b>prozedurazkoak</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Osasunaren hezkuntza eta sustapenerako ekintzetarako informazioa eta edukiak hautatzea.</li> <li>- Osasunerako hezkuntza-ekintzetan transmititzeko edukiak prestatzea.</li> </ul>   |
| <b>kontzeptuzkoak</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Aho-hortzen gaixotasunak prebenitzeko edukiak. Hautaketarako irizpideak.</li> <li>- Informazio-iturriak. Bibliografia. Internet.</li> <li>- Aho-hortzen osasuna sustatzeko jardueretan transmititu beharreko informazioa. Etiopatogenia, ahoko gaixotasun batzuen ondorioak eta eboluzioa, besteak beste, txantxar, plaka eta gaixotasun periodontalena. Aho-barrunbearen osasunarekin eta gaixotasunekin lotutako ohitura dietetikoak. Aho-hortzen osasunarekin lotutako ohitura kaltegarriak eta onuragarriak. Aho-barrunbea zaintzeko teknikak. Automiaketak. Eskuilatze-teknikak. Fluorra, kolutorioak eta hortzetarako zeta erabiltzea. Protesiak eta ortodontziak zaintzea. Aho-hortzen osasunarekin lotutako prestazioak eta zerbitzuak. Aldizkako berrikuspenak.</li> <li>- Hautzaroan, nerabezaroan eta zahartzaroan osasunerako hezkuntza-programak.</li> <li>- Ezaugarri bereziak dituzten pertsonentzako heziketa-programak, esaterako, haurdun dauden emakumeentzat, desgaitasunen bat duten pertsonentzat, gaixoentzat edo kirolarientzat.</li> </ul> |
| <b>jarrerazkoak</b>   | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Lanaren garapenaren ordena.</li> <li>- Zorroztasuna, terminologia erabiltzean.</li> <li>- Pertsona bakoitzaren baldintza eta egoeretara egokitzeko interesa.</li> <li>- Funtzioak gauzatzeko ekimena eta autonomia.</li> <li>- Elkarlanarekiko eta talde-lanarekiko interesa.</li> <li>- Osasunarekiko eta hobekuntza-aukerekiko interesa.</li> <li>- Hezkuntzaren helburu den tematikaren eta portaera pertsonalaren arteko koherentzia.</li> </ul>  |

### 4. BANAKOEI ETA TALDEEI AHO-HORTZEN OSASUNARI BURUZKO INFORMAZIOA EMATEA

|                       |  |
|-----------------------|--|
| <b>prozedurazkoak</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Komunikazio- eta informazio-teknikak aplikatzea.</li> <li>- Osasun-prozesuetan portaera motibatuzko eta aldatzeko teknikak aplikatzea.</li> </ul> |
| <b>kontzeptuzkoak</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Komunikazio- eta informazio-teknikak Komunikazioaren elementuak. Motak. Kanalak. Betebeharrak. Zailtasunak.</li> </ul>                            |

|              |   |
|--------------|---|
|              | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Komunikazio-estiloak. Gizarte-trebetasunak. Asertibitatea.</li> <li>- Motibatze teknikak. Faktore motibatazaileak. Errefortzua.</li> <li>- Osasun-prozesuetan portaera aldatzea. Informazioa. Motibazioa. Baliabideak eta laguntza-sistemak.</li> </ul>  |
| jarrerazkoak | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Lana arduraz egitea.</li> <li>- Asertibitatea, bere azalpenetan eta ideiak adieraztean.</li> <li>- Argitasuna eta zehaztasuna, informazioa helaraztean.</li> <li>- Zuzentasuna eta errespetua, pertsonetikiko tratuan.</li> <li>- Diskrezioa, jardueretan inplikaturako pertsonen datuen erabileran.</li> <li>- Pertsona bakoitzaren baldintza eta egoeretara egokitzeko interesa.</li> <li>- Osasunarekiko eta hobekuntza-aukeretikiko interesa.</li> </ul> |

## 5. AHO-HORTZEN OSASUNAREN GAINKO HEZKUNTZA- ETA SUSTAPEN-EKINTZAK EZARTZEA

|                |   |
|----------------|---|
| prozedurazkoak | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Osasunerako hezkuntza-programak eta ahoko osasuna sustatzeko kanpainak aztertzea eta interpretatzea.</li> <li>- Erakunde eta organismo ofizialen informazioa kontsultatzea.</li> <li>- Osasunaren hezkuntza- eta sustapen-jarduerak garatzea.</li> <li>- Osasunaren hezkuntza- eta sustapen-teknikak eta metodoak aplikatzea.</li> <li>- Baliabide eta materialak erabiltzea.</li> <li>- Informatika-aplikazioak erabiltzea.</li> <li>- Talde-teknikak aplikatzea.</li> </ul>  |
| kontzeptuzkoak | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Osasunaren hezkuntza- eta sustapen-jarduerak. Ezarpen-teknikak.</li> <li>- Taldeko dinamikak eta teknikak. Metodologia. Indikazioak. Hainbat talderi aplikatzeko irizpideak.</li> </ul>  |
| jarrerazkoak   | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Lana arduraz egitea.</li> <li>- Erantzukizuna, osasunerako hezkuntza-agente gisa.</li> <li>- Asertibitatea, bere azalpenetan eta ideiak adieraztean.</li> <li>- Argitasuna eta zehaztasuna, informazioa helaraztean.</li> <li>- Zuzentasuna eta errespetua, pertsonetikiko tratuan.</li> <li>- Pertsona bakoitzaren baldintza eta egoeretara egokitzeko interesa.</li> <li>- Laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumena babesteari buruzko araudiekiko errespetua izatea.</li> <li>- Elkarlanarekiko eta talde-lanarekiko interesa.</li> <li>- Hezkuntzaren helburu den tematikaren eta portaera pertsonalaren arteko koherentzia.</li> </ul> |

## 6. OSASUNERAKO HEZKUNTZA-PROGRAMETAN EBALUATZE-TEKNIKAK APLIKATZEA

|                |   |
|----------------|---|
| prozedurazkoak | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Programak ebaluatzeko baliabide eta tresnak prestatzea eta egitea (inkestak, galdetegiak, testak, eskalak...)</li> <li>- Programak ebaluatzeko teknikak aplikatzea.</li> </ul> |
| kontzeptuzkoak | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hezkuntza-programak ebaluatzea. Definizioak. Ekintza</li> </ul>  |



|              |  |
|--------------|--|
|              | <p>ebaluatzailearen helburuak eta funtzioak. Erabakiak hartzea. Ebaluazio-motak.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ebaluazio-teknikak eta -tresnak. Galdetegiak. Eskalak. Behatzeko metodoak. Erregistroak. Iturri epidemiologikoak.</li> </ul>   |
| jarrerazkoak | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ordena eta zehaztasuna zaintzea lan egitean.</li> <li>- Erantzukizuna osasunerako hezkuntza-agente gisa onartzea.</li> <li>- Asertibitatea, bere azalpenetan eta ideiak adieraztean.</li> <li>- Funtzioak gauzatzeko ekimena eta autonomia.</li> <li>- Indarrean dagoen legeria errespetatzea.</li> <li>- Elkarlanarekiko eta talde-lanarekiko interesa.</li> </ul> |

### d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

#### 1) Sekuentziazioa

Modulu hau garatzeko, lehenengo fasean eduki orokorrak eta oinarrikoak azter daitezke, osasunerako hezkuntzarekin lotuta daudenak. Zenbait kontzeptu ikasi behar dira: *osasuna, gaixotasuna, prebentzio mailak, osasunaren determinatzaileak* eta osasun-hezkuntzaren *oinarri orokorrak*, 1. blokean deskribatutakoak. Gainera, 4. blokean deskribatutako eduki batzuk sar daitezke, osasunerako hezkuntzako *portaeren aldaketarekin* eta *motibazio-teknikekin* lotuta, behintzat alderdi teknikoei dagokienez.

Bigarren fasean, osasunerako sustapen- eta hezkuntza-ekintzen *plangintza eta programazioa* azter daiteke. Osasun-plangintzarekin eta osasun-programekin has gaitzke (1. blokea); informazioa eskuratzeko eta taldeak ezaugarritzeko teknikekin jarrai dezakegu (1. blokea), gero programazio baten alderdi praktikoko guztiak aztertu, besteak beste, helburuak planteatzea, jarduerak planifikatu eta antolatzea, baliabideak hautatu eta prestatzea eta abar (2. blokea); azkenik, programak ebaluatzeko teknikak landu ditzakegu (6. blokea).

Hirugarren fasean, ahoko osasuna sustatzeko jardueretan transmititu beharreko *informazioaren prestakuntzarekin* eta *antolaketarekin* lotutako edukiak ikasiko ditugu (3. blokea).

Laugarren fasean, jarduera horien garapena eta metodologia ikusiko genuke; metodo zuzenetan oinarritutako jarduerekin hasiko ginatke; horretarako, komunikazio-teknikak eta taldeko teknikak ikasiko genituzke (4. blokea). Bigarrenik, zeharkako metodoetan oinarritutako jarduerak. Kasu guztietan berrikus eta aplikatu daitezke dagozkion ebaluazio-teknikak (6. blokea).

Azkenik, interesgarria izan daiteke moduluan eduki guztiak birpasatzea eta integratzea eta, horretarako, egoera jakin baterako esku hartzeko *proiektua* egitea.

#### 2) Alderdi metodologikoak

Modulu honek psikologiarekin, didaktikarekin, pedagogiarekin edo filosofiarekin lotutako eduki teorikoak ditu; horietan, ez da denbora gehiegi eskaini behar. Garrantzitsua da ez

galtzea lanbide-gaitasunaren eta pertsona horien erantzukizunaren erreferentzia, ahoko osasun-programak garatzean.

Jardueretan erabili beharreko metodologia da ikasle hauek kontrolatu beharko duten alderdi bat; beraz, garrantzitsua da irakasleek unitate didaktikoetan metodo eta baliabideen erabilera planteatzea. Horrela, ikasleak izango dira, ikaskuntzan, aldi berean esperimenezko metodologia helburu.

Nahitaez aplikatu behar dira edukiak jarduera praktikoetan, ikasleek konpetentziak lor ditzaten komunikazioarekin, informazioaren transmisioarekin, jendearekiko harremanarekin, taldeen antolaketarekin eta abarrekin lotuta. Konpetentzia horiek oinarritzeko dira osasunerako hezkuntza-edukiak transmititzean eta ikasleek irakasleen eta beren taldearen laguntza beharko dute horiek lortzeko.

Banakako edo taldeko lanak egin daitezke, praktikan jartzeko metodoak, besteak beste, taldeko teknikak antolatzea, esaterako "ideia-jasa" edo "Phillips 66", hitzaldi bat ematea, erakusketak antolatzea, jokoren bat planteatzea, kartelak edo liburuxkak egitea etab.

Jarduera horiek garatzeko egoera edo kasuak planteatzean, kontuan hartu behar da helburu diren taldeen ezaugarriak desberdinak izango direla, adinaren, instrukzio mailaren, motibazio mailaren, osasun-egoeraren eta abarren arabera, eta ezinbestekoa dela ekintza horietara egokitzea.

Ikasgelako ikasleak edo ikastetxeko beste talde batzuk har daitezke hezkuntza-jardueren helbururako; interesgarri gerta dakieke horiei garatutako jarduerak, baina, kasu hauetan, ez da galdu beharko aho-hortzen higieneko ikasle-taldearentzat planteatutako helburuen erreferentzia.

Bibliografia-materialak berrikusteko eta osasunerako sustapen- eta hezkuntza-kanpainak kontsultatzeko Interneten, "zuzendu" egin beharko da, irakurketa hutsa izan ez dadin, baizik eta analisi bilakatzea. Komeni da jarduera horiek laguntza-tresnaren baten bidez egitea, besteak beste, gidoi baten bidez, bete beharreko taula baten bidez edo galdetegi arrunt baten bidez, ikasleak irakasleak aurreikusitakoan jar dezan arreta lortzeko.

Oso interesgarria izango da, osasunerako hezkuntza-ekintzen euskarri gisa baliabide informatikoak erabiltzeari begira. Aurkezpenen bat presta dezakete edo diseinu-programaren bat erabili, baina kontuan izan behar da aurretiko prestakuntza erabiliko diren programetan, erabili nahi dena baino denbora gehiago ez erabiltzeko.

3. blokeko edukiak -"Aho-hortzen osasunari buruzko informazioa prestatzea"- ez dira gainerako edukien modukoak. Ekintzetan landuko diren edukiei buruzko prestakuntza ikasleak badu, beste modulu batzuetatik. Alegia, eskuilatze-teknikak, dieta egokia edo gaixotasun jakin bateko prebentzio-sistemak, besteak beste, ikasi dituzte eta orain helburua da gai izatea informazio hori hautatzeko eta beste pertsona batzuei transmititzeko antolatzeko. Ez du zentzurik, beraz, modulu honetako irakasleek eduki horiek berriro azaltzea.



### 3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Osasunerako hezkuntza-programa eta -proiektuen elementuak eta etapak ezaugarritzea.
- ✓ Termino zehatzak definitzea, besteak beste, osasuna, gaixotasuna edo osasunaren determinatzaileak.
- ✓ Prebentzio mailak eta horien berezko ekintzak identifikatzea.
- ✓ Taldeak ezaugarritzeko teknikak aplikatzea.
- ✓ Pertsona eta taldeen ahoko osasunari buruzko informazioa eskuratzea.
- ✓ Ahoko osasuna sustatzeko eta osasun-heziketako ekintzak programatzea.
- ✓ Jarduerak antolatzea.
- ✓ Materialak eta baliabideak prestatzea.
- ✓ Ahoko osasuna sustatzeko programetan transmititzeko informazioa hautatzea eta prestatzea.
- ✓ Pertsonen eta taldeen informazioa helarazteko teknikak aplikatzea.
- ✓ Pertsonen eta taldeen komunikazioa helarazteko teknikak aplikatzea.
- ✓ Pertsonen eta taldeen motibazioa helarazteko teknikak aplikatzea.
- ✓ Ahoko osasunerako hezkuntzako programak garatzeko teknikak aplikatzea.
- ✓ Osasunerako hezkuntza- jarduera eta -programak ebaluatzeko teknikak aplikatzea.

## 7. lanbide-modulua

### KONTSERBATZAILEA, PERIODONTZIA, KIRURGIA ETA INPLANTEAK

#### a) Aurkezpena

|                            |   |
|----------------------------|---|
| Lanbide-modulua:           | <b>Kontserbatzailea, periodontzia, kirurgia eta inplanteak</b>          |
| Kodea:                     | 0736  |
| Heziketa-zikloa:           | Ahoaren eta hortzen higieena  |
| Maila:                     | Goi-maila   |
| Lanbide-arloa:             | Osasuna   |
| Iraupena:                  | 160   |
| Kurtoa:                    | 2   |
| Kreditu kop.:              | 8   |
| Irakasleen espezialitatea: | Osasun- eta laguntza-prozedurak (Lanbide Heziketako irakasle teknikoak) |

#### b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Laguntza-teknikak aplikatzen ditu obturazioak egitean, eta, horretarako, txantxarraren hedapenarekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Buxatu behar diren azalereetan txantxarraren hedapena identifikatu du.
- Interbentzioaren sekuentzia deskribatu du.
- Obturazioaren material motak sailkatu ditu.
- Pazientea anestesiatzeko beharrezko tresnak prestatu ditu.
- Obturazioa egiteko beharrezko materiala eta tresneria prestatu ditu.
- Ebakuntza-eremua isolatu du.
- Obturazioen ebakuntza-sekuentziari jarraiki prestatu du.
- Obturazioan akatsak identifikatu ditu.
- Prozesua doitasunez, ordenatuta eta metodoarekin egin du.

2. Laguntza-teknikak aplikatzen ditu hodiak tratatzean eta, horretarako, hortz-mamiko afektazioarekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Hortz-mamiko afektazioa identifikatu du aldi baterako hortzaldian eta iraunkorrean.
- Interbentzioaren sekuentzia deskribatu du.
- Hodiak zigitatzeko material motak bereizi ditu.
- Pazientea anestesiatzeko behar den tresneria prestatu ditu.
- Endodontzia egiteko behar den materiala eta tresneria prestatu du.



- f) Ebakuntza-eremua isolatu du.
- g) Endodontziaren ebakuntza-sekuentziari jarraiki prestatu du.
- h) Prozesua doitasunez, ordenatuta eta metodoarekin egin du.

3. Laguntza-teknikak aplikatzen ditu hortz-tindaketa intrintsekoak ezabatzeko, eta, horretarako, hortzen zuritze-prozesuarekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Hortz-tindaketa intrintsekoen motak zehaztu ditu.
- b) Hortz-tindaketa intrintsekoak eragiten dituzten kausak zehaztu ditu.
- c) Interbentzioaren sekuentzia deskribatu du.
- d) Zuritzeen material motak sailkatu ditu.
- e) Hortz-tindaketa intrintsekoa ezabatzeko materiala eta tresneria prestatu ditu.
- f) Hortzen zuritzearen ebakuntza-sekuentziari jarraiki prestatu du.
- g) Modu topikoan aplikatu ditu hortzak zuritzeko elementuak.
- h) Prozesuaren jarraipena eta kontrola egiteko jarraibideak ezarri ditu.
- i) Prozesua doitasunez, ordenatuta eta metodoarekin egin du.

4. Periodontzian laguntzeko teknikak aplikatzen ditu eta, horretarako, interbentzio-prozedurak interpretatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Periodontziako interbentzio motak definitu ditu.
- b) Ebakuntza aurreko kontrol mikrobiologikoko teknikak aplikatu ditu.
- c) Interbentzioen sekuentziak deskribatu du.
- d) Ebakuntza periodontaleko tresneria sailkatu du.
- e) Ebakuntza-eremua argizatuta eta siku mantendu du.
- f) Interbentzio periodontaletarako tresneria prestatu du.
- g) Ebakuntza-sekuentziari jarraiki prestatu du.
- h) Prozesua doitasunez, ordenatuta eta metodoarekin egin du.

5. Hortzak ateratzen laguntzeko eta aho-hortzen kirurgiarako teknikak aplikatzen ditu, eta, horretarako, tresneria eta materiala hautatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Interbentzioaren sekuentzia deskribatu du.
- b) Hortzak ateratzeko tresneria sailkatu du.
- c) Aho-hortzen kirurgiako interbentzioetarako tresneria sailkatu du.
- d) Goiko eta beheko arkuen forzepsen arteko desberdintasunak identifikatu ditu.
- e) Goiko eta beheko arkuen egozkailuen arteko desberdintasunak identifikatu ditu.
- f) Hortza ateratzeko tresneria prestatu du.
- g) Pazientearentzako ebakuntza ondoko aldirako instrukzioak definitu ditu.
- h) Barnean geratutako hirugarren molarren erauzketa egiteko prestatu da.
- i) Barnean geratutako letaginen erauzketa egiteko prestatu da.

6. Laguntza-teknikak aplikatzen ditu inplanteak jartzean, eta horretarako tresneria aukeratzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Inplante baten zatiak ezarri ditu.

- b) Interbentzioaren sekuentzia deskribatu du.
- c) Inplanteak jartzeko tresneria identifikatu du.
- d) Pazienteei anestesia jartzeko materiala prestatu du.
- e) Asepsia teknika bereziak aplikatu ditu.
- f) Inplantea jartzeko prestatu da.
- g) Inpresiorako behar den tresneria prestatu du.
- h) Protesia jartzeko behar den tresneria prestatu du.

### c) Oinarrizko edukiak:

| 1. OBTURAZIOAK EGITEKO LAGUNTZA-TEKNIKAK APLIKATZEA |  |
|---|--|
| prozedurazkoak                                      | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Txantxarren lesioak identifikatzea.</li> <li>- Txantxarraren hedadura antzematea.</li> <li>- Hortzen obturazioak balioestea.</li> <li>- Odontograma betetzea.</li> <li>- Obturazioetarako behar den tresneria eta materiala prestatzea.</li> <li>- Interbentzioaren sekuentzia deskribatzea.</li> <li>- Obturazioak egiteko tekniketari instrumentazio-teknikak aplikatzea.</li> <li>- Akatsak identifikatzea obturazioetan.</li> <li>- Anestesiarako materiala eta tresneria prestatzea.</li> <li>- Ebakuntza-eremuaren isolamendua.</li> <li>- Kalitate-irizpideak betetzea obturazioetan laguntza-teknikak egitean.</li> </ul> |
| kontzeptuzkoak                                      | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hortzetako txantxarra. Saillapena. Tratamendu motak.</li> <li>- Hortzen obturazioa. Obturazio motak. Obturazio-teknikak. Interbentzioaren sekuentzia. Materialak. Tresneria. Instrumentazio-teknikak. Hortzen obturazioak baloratzeko irizpideak.</li> <li>- Kalitate-irizpideak obturazioetan laguntza-teknikak egitean.</li> <li>- Anestesia. Motak. Teknikak. Materiala. Tresneria.</li> <li>- Ebakuntza-eremuaren isolamendu-teknikak. Isolamendu partziala. Isolamendu absolutua.</li> </ul>   |
| jarrerazkoak  | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Antolamendua eta zehaztasuna prozeduretan.</li> <li>- Erantzukizuna egindako zeregin eta prozesuetan.</li> <li>- Txantxarrekin eta obturazioekin lotutako gaiak eguneratzeko interesa.</li> <li>- Zuzentasuna eta errespetua, pertsonetikiko tratuan.</li> <li>- Pertsona bakoitzaren baldintza eta egoeretara egokitzeko interesa.</li> <li>- Laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumena babesteari buruzko araudiekiko errespetua izatea.</li> <li>- Elkarlanarekiko eta talde-lanarekiko interesa.</li> </ul>   |

| 2. HODIEN TRATAMENDUAN LAGUNTZA-TEKNIKAK APLIKATZEA |   |
|---|---|
| prozedurazkoak                                      | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hartz-mamiko afektazioa identifikatzea aldi baterako hortzaldian eta iraunkorrean.</li> <li>- Odontograma betetzea.</li> <li>- Hodiak tratatzeko behar den tresneria eta materiala prestatzea.</li> <li>- Interbentzioaren sekuentzia deskribatzea.</li> <li>- Hodiak tratatzeko instrumentazio-teknikak aplikatzea.</li> <li>- Anestesiarako materiala eta tresneria prestatzea.</li> <li>- Ebakuntza-eremuaren isolamendua.</li> <li>- Kalitate-irizpideak betetzea hodiak tratatzeko laguntza-teknikak</li> </ul> |



|                       |   |
|-----------------------|---|
|                       | <p>egitean.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Pazienteen ebakuntza aurreko eta osteko jarraibideak transmititzeko teknikak aplikatzea.</li> </ul>  |
| <b>kontzeptuzkoak</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hartz-mamiko afektazioa. Hartz-mamiko afektazioa. Hartzeria iraunkorra.</li> <li>- Hodien tratamendua. Interbentzioaren sekuentzia. Kamera-irekiera. Konduktometria. Hodien prestaketa mekanikoa eta kimikoa. Hodien obturazioa. Kontrola.</li> <li>- Materialak. Tresneria.</li> <li>- Instrumentazio-teknikak.</li> <li>- Anestesia. Motak. Teknikak. Materiala. Tresneria.</li> <li>- Lan-eremuaren isolamendua. Partziala. Erabatekoa.</li> <li>- Kalitate-irizpideak hodiak tratatzeko laguntza-teknikak egitean.</li> </ul>        |
| <b>jarrerazkoak</b>   | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Antolamendua eta zehaztasuna prozeduretan.</li> <li>- Erantzukizuna egindako zeregin eta prozesuetan.</li> <li>- Hartz-mamiko afektazioekin eta hodian tratamenduekin lotutako gaiak eguneratzeko interesa.</li> <li>- Zuzentasuna eta errespetua, pertsonetikiko tratuan.</li> <li>- Pertsona bakoitzaren baldintza eta egoeretara egokitzeko interesa.</li> <li>- Laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumena babesteari buruzko araudiekiko errespetua izatea.</li> <li>- Elkarlanarekiko eta talde-lanarekiko interesa.</li> </ul> |

| 3. HORTZEN TINDAKETA INTRINTSEKOAK EZABATZEKO LAGUNTZA-TEKNIKAK APLIKATZEA |   |
|--|---|
| <b>prozedurazkoak</b>  | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hortzen tindaketa intrintsekoen motak eta horien etiologiak identifikatzen ditu.</li> <li>- Hartz-tindaketa intrintsekoa ezabatzeko materiala eta tresneria prestatzea.</li> <li>- Interbentzioaren sekuentzia deskribatzea.</li> <li>- Hartzak zuritze instrumentazio-teknikak aplikatzea.</li> <li>- Zuritze elementuen aplikazio topikoa.</li> <li>- Zuritze-tratamenduen jarraipena eta kontrola egiteko teknikak aplikatzea.</li> <li>- Kalitate-irizpideak betetzea hartz-tindaketa intrintsekoak ezabatzeko laguntza-teknikak egitean.</li> <li>- Pazienteen ebakuntza aurreko eta osteko jarraibideak transmititzeko teknikak aplikatzea.</li> </ul> |
| <b>kontzeptuzkoak</b>  | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hartz-tindaketa intrintsekoak. Definizioa. Sailkapena. Etiologia.</li> <li>- Hartzak zuritzea. Interbentzioaren sekuentzia. Materialak. Tresneria. Instrumentazio-teknikak. Jarraipen- eta kontrol-irizpideak.</li> <li>- Kalitate-irizpideak hartz-tindaketa intrintsekoak ezabatzeko laguntza-teknikak egitean.</li> </ul>   |
| <b>jarrerazkoak</b>  | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Antolamendua eta zehaztasuna prozeduretan.</li> <li>- Erantzukizuna egindako zeregin eta prozesuetan.</li> <li>- Hartz-tindaketa intrintsekoekin eta zuritzeekin lotutako gaiak eguneratzeko interesa.</li> <li>- Zuzentasuna eta errespetua, pertsonetikiko tratuan.</li> <li>- Pertsona bakoitzaren baldintza eta egoeretara egokitzeko interesa.</li> <li>- Laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumena babesteari buruzko araudiekiko errespetua izatea.</li> </ul>  |

- Elkarlanarekiko eta talde-lanarekiko interesa.

#### 4. PERIODONTZIAN LAGUNTZA-TEKNIKAK APLIKATZEA

|                       |   |
|-----------------------|---|
| <b>prozedurazkoak</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Gaixotasun periodontalak, gingibitisa eta periodontitisa identifikatzea.</li> <li>- Periodontograma betetzea.</li> <li>- Ebakuntza aurreko eta osteko kontrol mikrobiologikorako teknikak aplikatzea.</li> <li>- Interbentzioaren sekuentzia deskribatzea.</li> <li>- Ebakuntza periodontaleko tresneria eta materiala prestatzea.</li> <li>- Ebakuntza periodontaleko tresneriaren teknikak aplikatzea.</li> <li>- Ebakuntza-eremuak prestatzea.</li> <li>- Ebakuntza-eremua siku eta argizatuta edukitzea.</li> <li>- Anestesiarako materiala eta tresneria prestatzea.</li> <li>- Kalitate-irizpideak betetzea periodontziako laguntza-teknikak egitean.</li> <li>- Pazienteen ebakuntza aurreko eta osteko jarraibideak transmititzeko teknikak aplikatzea.</li> </ul> |
| <b>kontzeptuzkoak</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Aho-hortzen barrunbea desinfektatzeko teknikak.</li> <li>- Ebakuntza periodontalak. Tresneria. Materialak. Interbentzioaren sekuentzia. Instrumentazio-teknikak.</li> <li>- Kalitate-irizpideak periodontziako laguntza-teknikak egitean.</li> </ul>   |
| <b>jarrerazkoak</b>   | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Antolamendua eta zehaztasuna prozeduretan.</li> <li>- Erantzukizuna egindako zeregin eta prozesuetan.</li> <li>- Ebakuntza periodontalarekin lotutako gaiak eguneratzeko interesa.</li> <li>- Zuzentasuna eta errespetua, pertsonetikiko tratuan.</li> <li>- Pertsona bakoitzaren baldintza eta egoeretara egokitzeko interesa.</li> <li>- Laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumena babesteari buruzko araudiekiko errespetua izatea.</li> <li>- Elkarlanarekiko eta talde-lanarekiko interesa.</li> </ul>  |

#### 5. HORTZEN ERAUZKETAN ETA AHO-HORTZEN KIRURGIAN LAGUNTZA-TEKNIKAK APLIKATZEA

|                       |   |
|-----------------------|---|
| <b>prozedurazkoak</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hortzen erauzketan erabiltzen den tresneria prestatzea.</li> <li>- Aho-hortzen kirurgian erabiltzen den tresneria prestatzea.</li> <li>- Barnean geratutako hirugarren molarrak eta letaginak erauzteko tresneria prestatzea.</li> <li>- Interbentzioaren sekuentziak deskribatzea.</li> <li>- Asepsiaren berariazko teknikak aplikatzea.</li> <li>- Ebakuntza-eremuak prestatzea.</li> <li>- Anestesiarako materiala eta tresneria prestatzea.</li> <li>- Pazienteen ebakuntza aurreko eta osteko jarraibideak transmititzeko teknikak aplikatzea.</li> </ul> |
| <b>kontzeptuzkoak</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hortzen erauzketa. Sindesmotomia. Luxazioa. Erauzketa. Hemostasia. Ebakuntzaren aurreko eta osteko jarraibideak. Interbentzioaren sekuentzia.</li> <li>- Hortzen erauzketan erabilitako tresneria. Bereizkuntza. Sailkapena. Forzepsak. Egozkailuak. Bestelakoak.</li> <li>- Barnean geratutako hirugarren molarren erauzketa. Barnean gertutako letaginen erauzketa. Tresnak. Ebakuntzaren ondoko</li> </ul>  |



|                     |   |
|---------------------|---|
|                     | <p>jarraibideak.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Aho-hortzen kirurgia. Sekuentzia. Tresneria. Ebakuntzaren ondoko jarraibideak.</li> </ul>   |
| <b>jarrerazkoak</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Antolamendua eta zehaztasuna prozeduretan.</li> <li>- Erantzukizuna egindako zeregin eta prozesuetan.</li> <li>- Hortz-erazketarekin eta aho-hortzen kirurgiarekin lotutako gaiak eguneratzeko interesa.</li> <li>- Pazientearekin komunikazioa ezartzeko interesa.</li> <li>- Lantaldeko pertsonekin lankidetzan jarduteko interesa.</li> </ul> |

## 6. INPLANTEAK EGITEKO LAGUNTZA-TEKNIKAK APLIKATZEA

|                       |  |
|-----------------------|--|
| <b>prozedurazkoak</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Asepsiaren berariazko teknikak aplikatzea.</li> <li>- Ebakuntza-eremuak prestatzea.</li> <li>- Inplanteak jartzeko tresneria eta materiala prestatzea.</li> <li>- Interbentzioaren sekuentzia deskribatzea.</li> <li>- Inplanteak jartzeko tresnen teknika aplikatzea.</li> <li>- Anestesiarako materiala eta tresneria prestatzea.</li> <li>- Inplanteen inprimatzeak egitea.</li> <li>- Inplanteetan protesiak jartzeko tresnak eta materialak prestatzea.</li> <li>- Pazienteen ebakuntza aurreko eta osteko jarraibideak transmititzeko teknikak aplikatzea.</li> </ul> |
| <b>kontzeptuzkoak</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hortzen inplanteak. Sailkapena. Inplantearen zatiak.</li> <li>- Inplanteak jartzeko teknikak. Interbentzioaren sekuentzia.</li> <li>- Inplante-kirurgiaren kutxak. Tresneria. Instrumentazio-teknikak.</li> <li>- Anestesia. Motak. Teknikak. Materiala. Tresneria.</li> <li>- Inplanteen inpresioak hartzeko teknikak Materialak. Tresneria.</li> <li>- Inplanteen gainean protesiak jartzeko teknikak Materialak. Tresneria.</li> </ul>   |
| <b>jarrerazkoak</b>   | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Antolamendua eta zehaztasuna prozeduretan.</li> <li>- Erantzukizuna egindako zeregin eta prozesuetan.</li> <li>- Inplanteekin lotutako gaiak eguneratzeko interesa.</li> <li>- Lantaldeko pertsonekin lankidetzan jarduteko interesa.</li> </ul>  |

### d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

#### 1) Sekuentziarioa

Modulu honetan, ikasleek zenbait espezialitate eta tratamendutarako laguntza-teknikak ikasiko dituzte eta, hasiera batean blokeak emateko ordena zehatza ez badago ere, komeni da 1., 2. eta 3. blokeak elkarrekin lotzea, ikasleek tratamendu horiek errazago berenganatzeko.

Komeni da lehenengo *obtuzioak egiteko laguntza-tekniken aplikazioa* (1. blokea) aztertzea eta, gero, *hodian tratamenduetan laguntza-tekniken aplikazioa* (2. blokea). Ordena hori logikoa da, hodian tratamendu gehienak txantxarraren ondorioz egiten baitira eta, gainera, hodian tratamenduek obtuzio bat egitea baitakarte.

3. blokea –"Hortz-tindaketa intrintsekoak ezabatzeko laguntza-tekniken aplikazioa"– komeni da 2. blokearen ondoren ematea; izan ere, barneko zuritzeetan aurretik hodian tratamendua egin behar da.

4., 5. eta 6. blokeak emateko edozein ordenari jarrai diezaiokegu, eta lehentasunik egon ezean, ezarritako zenbaki-ordenari. Horrela, paziente erreal batzuen eboluzioa jarraituko dugu: *patologia periodontal aurreratuak* (4. blokea) *hortzen erauzketa* eska dezake (5. blokea) eta, gero, *implantea* jar liteke (6. blokea).

Bigarren mailako modulua da; beraz, ikasleek aurreko ikasturtean ikasiko zituzten tratamendu horiei lotutako patologia gehienak. Modulu hau oso garrantzitsua izango da aurreko ikasturteko edukiak birpasatzeko eta geureganatzeko, eduki berriak ikasteko eta ezagutzak lotzen eta elkarrekin lotzen ikasteko.

## 2) Alderdi metodologikoak

Modulu honen prestakuntzarekin, ikasleek espezialitate bakoitzean egiten diren espezialitate odontologikoen eta tratamenduen ikuspegi orokorra eskuratuko dute. Hori lagungarria izan daiteke, hortz-klinika batean egiten diren zereginak ulertzeko eta berenganatzeko.

Ikasgela-tailerrean emango da zati handi bat eta, hasiera batean zaila bada ere, tarteko teknikan higienisten zeregina lankidetzat delako, garrantzitsua da gogoraraztea, prozesu horien gauzatzaileak ez badira ere, ezagutza praktikoak aukera emango diela beren asistentziako eta laguntzako zeregina hobeto betetzeko (tresna egokiak ematea, odontologoaren beharrei aurrea hartzea, gorabeheren ebazpenean laguntzea...) eta une oro egingo duten lanaren sekuentzia eta oinarria ezagutzeko.

Alderdi teorikoak jakiteaz gainera, ezinbestekoa da tresneria eta materiala prestatzea, bandejak antolatzea, tresnak, laguntza eta abar praktikatzeko. Gainera, beste teknika batzuetan beraiek autonomiaz lan egingo dute, besteak beste, inpresioak hartzean edo pazienteak interbentziorako prestatzean.

Tresneria dela eta, garrantzitsua da pertsona bakoitzak tratamendu bakoitzean erabilitako tresnei behatzea eta horiek manipulatzeko. Hasteko, tresnak identifikatuko dira eta, jarraian, tresneria erabiltzeko teknikak praktikatu dira hortz-kabinetean. Horretarako, onuragarria da higienistaren, laguntzailearen eta pazientearen zeregina adieraztea, pertsona bakoitzak tratamendu odontologikoen aurrean duen ikuspuntua sentitu ahal izateko.

Ikasleak ezagutu beharko dituen tratamendu batzuk egongo dira (hortzen erauzketa, esaterako), eta ikasleak FCT modulura arte ikusiko ez dituenak; beraz, eduki horiek ikasteko eta berenganatzeko oso lagungarria izan daiteke ikasgelan bideoak erabiltzea. Horrela, ikasleek tratamenduak nola gauzatzen diren ikus dezakete eta, aldi berean, aukera ematen du tratamendu batzuek horiei behatzean eragin ditzaketan erreakzio psikologikoak lantzeko (esaterako, kirurgia batzuk).

Tratamendu batzuk (besteak beste, obturazioak, hodian tratamenduak edo barneko zuritzeak) erauzitako hortz naturaletan egin daitezke, eta beste batzuk modelo eta fantometan egin ahalko dira; horrela, hobeto ulertu eta berenganatu ahalko dituzte prozesuak, tresnen funtzioak eta tresnen teknikak.

Ikasleek nahiko arintasun eta trebezia lortu beharko dute teknikak gauzatzeko. Praktikak nahiko bider errepikatu beharko dira, eta denbora jakin batean gauza dadila motibatuzko, denbora hartu eta kontrola daiteke eta gauzatzea graba daiteke, gero guztion artean aztertzeko.



Gaietan eguneratzeko, eskolan ikusten diren edukiakin lotutako artikuluekin lan egin daiteke, bai irakasleek emandakoekin, bai ikasleek eramandakoekin eta beste iturri batzuetatik lortutakoekin.

Jarrerazko edukiak lantzen joan beharko dira, besteak beste, erantzukizuna, autonomia eta ekimena edo tarteko prozeduraren arabera ezarritako urratsekiko errespetua. Horretarako, denbora bat eskain dakioko jarrera horien zergatia azaltzeari eta arrazoitzeari eta etengabe betearaztea eragin daiteke. Ebaluaziorako, ereduren bat presta daiteke, eskala batzuekin, eta moduluan zehar ikasle bakoitzean duen ikaskuntza kontrolatzen joan.

### 3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Erabilitako teknikak ezaugarritzea eta identifikatzea.
- ✓ Historia klinikoa, odontogramak, periodontogramak eta beste dokumentu batzuk betetzea.
- ✓ Informazioa prestatzea eta pazienteei ebakuntza aurreko eta osteko transmisio-teknikak aplikatzea.
- ✓ Interbentzioetarako beharrezko tresneria eta materiala prestatzea.
- ✓ Tresna-teknika egokiak aplikatzea obturazio-tratamenduetan, hodian tratamenduetan, hortz-tindaketa intrintsekoen ezabaketan, hortzen zuriketanan, ebakuntza periodontalean, hortzen erauzketan, aho-hortzen kirurgian eta inplanteak jartzean.
- ✓ Zuritze-elementuen aplikazio topikoa eta zuritze-tratamenduen jarraipena eta kontrola egiteko tekniken aplikazio topikoa.
- ✓ Txantxarrak, gaixotasun periodontalak, gingibitisa eta periodontitisa identifikatzea.
- ✓ Asepsiaren teknika bereziak aplikatzea eta ebakuntza aurreko eta osteko kontrol mikrobiologikoko teknikak aplikatzea.
- ✓ Inplanteen inprimatzeak egitea.

## 8. lanbide-modulua

### PROTESIAK ETA ORTODONTZIA

#### a) Aurkezpena

|                            |  |
|----------------------------|--|
| Lanbide-modulua:           | <b>Protesiak eta ortodontzia</b>   |
| Kodea:                     | 0737   |
| Heziketa-zikloa:           | Ahoaren eta hortzen higiena  |
| Maila:                     | Goi-maila  |
| Lanbide-arloa:             | Osasuna  |
| Iraupena:                  | 140  |
| Kurtsoa:                   | 2  |
| Kreditu kop.:              | 8  |
| Irakasleen espezialitatea: | Osasun- eta laguntza-prozedurak<br>(Lanbide Heziketako irakasle tekniko) |
| Modulu mota:               | Tituluaren profilari lotutako modulua.                                   |
| Helburu orokorrak:         | 3 / 9 / 12   |

#### b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Betetzen du fitxa kliniko, eta, horretarako, protesi eta ortodontziako erregistro diagnostikoak identifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Fitxa kliniko protesikoaren datu garrantzitsuenak erregistratu ditu.
- Tratamenduaren pazienteari buruzko dokumentazioa sailkatu du.
- Paziente horzgabearen eta partzialki horzgabearen ezaugarri anatomikoak, funtzionalak eta sozialak deskribatu ditu.
- Pazientearen asaldurak eskeletoaren eta hortzen patologiarekin lotu ditu.
- Argazki, erradiografia eta informatikako baliabide diagnostikoen zereginak eta ezaugarriak definitu ditu.
- Jarduteko protokoloa teknika bakoitzarekin lotu du.
- Amaitutako tratamenduaren jarraipena erregistratu du.

2. Inpresioetarako ekipoa eta materialak prestatzen ditu, eta eskuratutako emaitzak egiaztatzen ditu; horretarako, teknikak protesi motekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Inpresioak hartzeko material eta tresnen ezaugarriak deskribatu ditu.
- Material motak eta tresnak inpresio-hartzearekin lotu ditu.



- c) Inpresioa hartzeko protokoloak deskribatu ditu.
- d) Paziente eta profesionalei zuzendutako segurtasunari eta higienari buruzko arauak aplikatu ditu.
- e) Lortutako inpresioak fidagarritasunaren eta kalitatearen irizpideak asetzen dituen egiaztatu du.
- f) Produktua desinfektatzeko, ontziratze eta etiketatzeko protokoloak aplikatu ditu, enbalatzeko eta entregatzeko.
- g) Prozesuaren txostena egin da, erabilitako materialen trazabilitatea egiaztatu ahal izateko.

**3. Eredua eta oklusioaren erregistroak planifikatzen ditu, eta, horretarako, lan-teknikak eredu motarekin eta eskatutako erregistroarekin lotzen ditu.**

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Moldea egiteko erabilitako materialen ezaugarriak deskribatu ditu.
- b) Oklusioaren erregistroak eskuratzeko erabilitako materialen ezaugarriak deskribatu ditu.
- c) Moldea egiteko eta hozkada erregistratzeko material eta tresna motak hautatu ditu.
- d) Teknika bakoitzean jarduteko protokoloak ezarri ditu.
- e) Lortutako erreproduktzioak kalitatearen irizpideak asetzen dituen egiaztatu du.
- f) Eskuratutako erregistroen laborategira bidaltzeko baldintzak tipifikatu ditu, medikuaren preskripzioen arabera amaiera protesikorako.
- g) Prozesuaren txostena egin da, erabilitako materialen trazabilitatea egiaztatu ahal izateko.
- h) Sortutako hondakinak sailkatu ditu, gaika biltzeko.
- i) Egindako eragiketetan, laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumen-babesari buruzko arauak bete ditu.

**4. Protesiaren egokitzapena egiaztatzen du, eta kontserbazioa zehazten du, eta, horretarako, amaierako emaitza erabiltzailearen beharrekin lotzen du.**

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Protesi erazgarri oso, partzial eta finkoen ezaugarri teknikoak deskribatu ditu.
- b) Protesien egokitzapenaren ezaugarriak zehaztu ditu.
- c) Hartz-protesien diseinurako ekipo eta aplikazio informatikoak erabili ditu.
- d) Protesi motaren arabera hautatu ditu egiaztapen-probak.
- e) Protesien eustea eta egonkortasuna egiaztatu ditu.
- f) Protesiaren erabilera egokirako eta higiena zuzenerako beharrezko informazioa identifikatu du.
- g) Hartz-protesia moldatzeko plana egin du.
- h) Protesien larrialdietan arreta eskaintzeko protokoloa ezarri du.

**5. Tratamenduari laguntzeko prozedura definitzen du, eta, horretarako, erabiltzailearen ezaugarri fisiopatologikoak inplantatuko den ortodontzia-aparatuaren ezaugarriekin lotzen ditu.**

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ortodontzia- eta ortopedia-gailuen ezaugarri teknikoak zehaztu ditu.
- b) Paziente edo erabiltzaile batengan balioetsi behar diren ezaugarri anatomikoak, fisiopatologiko oklusalak eta sozialak aipatu ditu.

- c) Pazientearen edo erabiltzailearen osasun-egoeratik eskuratutako informazioa dagokion euskarrian erregistratu du.
- d) Argazki-dokumentazioa, erradiografiak, zefalometriak eta ereduak miaketa klinikoarekin lotu ditu.
- e) Pazientearen osasun-egoera inplantatuko den aparatuaren ezaugarriekin lotu da.
- f) Tratamendurako laguntza-jarduketak zehaztu ditu, diagnosi-erregistro berezietatik abiatuta.
- g) Tratamendu ortodontzikoak eguneroko bizitzan dituen ondorioak aipatu ditu.

6. Ortodontzia-aparatua egokitzen du, eta kontserbatzeko protokoloa definitzen du; horretarako, egokitzapen- eta mantentze-teknikak interpretatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Tresneria, ekipoa eta materialak hautatu ditu, gailu ortodontzikoak jartzeko eta kentzeko.
- b) Aplikazio informatikoak erabili ditu, gailu terapeutikoak egokitzeko.
- c) Errehabilitazio oklusaleko metodo osagarriak definitu ditu.
- d) Aparatologia ortodontziko mantentzeko eragiketak egin ditu.
- e) Etxez etxeko aho-hortzen higienaren protokoloa zehaztu du, gailu finko eta/edo erazgarrietan.
- f) Egokitzapen-prozesuan pazienteen edo erabiltzaileen adinaren eta gaitasunaren arabera egin behar diren ekintzak zehaztu ditu.
- g) Jarduera autonomiaz egiteko estrategiak deskribatu ditu.

c) Oinarrizko edukiak:

| 1. FITXA KLINIKOA BETETZEA |  |
|----------------------------|--|
| prozedurazkoak             | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Paziente horzgabeen eta horzgabe partzialen dokumentazio berezia betetzea.</li> <li>- Odontogramak eta beste dokumentu batzuk betetzea.</li> <li>- Argazkiak egiteko behar den tresneria hautatzea eta prestatzea.</li> <li>- Aho barruko eta aurpegiko argazkiak egitea.</li> </ul>  |
| kontzeptuzkoak             | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Dokumentuak. Dokumentu motak. Fitxa klinikoa. Anamnesi medikoa eta odontologikoa. Pazientearen ohiturak. Dokumentazioa. Odontogramak. Baimen informatua. Tratamendu-plana.</li> <li>- Zefalometria. Azterketa erradiografikoa, ortopantomografia eta telerradiografia ortodontzian.</li> <li>- Argazkigintza digitala. Aho barruko eta aurpegiko argazkia. Tresneria.</li> <li>- Eskeleto- eta hortz-patologiako asaldura nagusiak. Paziente horzgabea eta horzgabe partziala: ezaugarri anatomofisiologikoak.</li> </ul> |
| jarrerazkoak               | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ordena eta metodoa lan egitean.</li> <li>- Laneko eta ingurumeneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia eta horretarako protokoloak errespetatzea.</li> <li>- Protokoloak zorrotz betetzea.</li> <li>- Lanbidearekin zerikusia daukan informazioa lortzeko interesa.</li> <li>- Zorroztasuna, terminologia erabiltzean.</li> <li>- Funtzioak gauzatzeko ekimena eta autonomia.</li> </ul>  |

## 2. INPRESIOA HARTZEKO MATERIALA ETA EKIPOAK PRESTATZEA



|                       |  |
|-----------------------|--|
| <b>prozedurazkoak</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ekipoa prestatzea, inpresioak hartzeko behar den tresneria eta materiala hautatzea, protesi motaren eta ortodontziaren arabera.</li> <li>- Inpresioak hartzea hainbat material, ekipo eta tresnarekin, protesi motaren eta ortodontziaren arabera.</li> <li>- Inpresioaren deskontaminazioa, mantentzea eta kontserbazioa.</li> <li>- Kubeta indibidualak egitea akriliko autopolimerizagarri eta fotopolimerizagarri.</li> <li>- Inpresioak digitalizatzeko teknikak aplikatzea.</li> </ul>  |
| <b>kontzeptuzkoak</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hortz-inpresioak. Motak (behin-behinekoak eta behin betikoak).</li> <li>- Inpresio-materialak. Saillapena (elastikoak –hidrokoloideak eta elastometro sintetikoak– eta ez-elastikoak). Propietateak. Aplikazioak.</li> <li>- Inpresioak hartzeko beharrezko materiala eta ekipoa, protesi motaren (finkoa, erauzgarria, mistoa, ortodontzia, inplanteen gainekoa...) eta ortodontziaren (finkoak, erauzgarriak, ferulak...) arabera.</li> <li>- Inpresioen tratamendua. Bidalketarako baldintza egokiak. Hondakinei eta ingurumen-babesari buruz indarrean dagoen legeria.</li> <li>- Inprimaketa digitalizatzeko informatika-aplikazioak.</li> </ul> |
| <b>jarrerazkoak</b>   | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ordena eta metodoa lan egitean.</li> <li>- Laneko eta ingurumeneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia eta horretarako protokoloak errespetatzea.</li> <li>- Protokoloak zorrotz betetzea.</li> <li>- Lanbidearekin zerikusia daukan informazioa lortzeko interesa.</li> <li>- Zorroztasuna, terminologia erabiltzean.</li> <li>- Funtzioak gauzatzeko ekimena eta autonomia.</li> <li>- Zuzentasuna eta adeitasuna pazienteekiko tratuan.</li> </ul>   |

### 3. OKLUSIO-EREDUAK ETA -ERREGISTROAK EGITEKO PLANGINTZA

|                       |  |
|-----------------------|--|
| <b>prozedurazkoak</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Inpresioak husteko behar den tresneria eta materiala hautatzea.</li> <li>- Igeltsuzko ereduak lortzeko huste-teknikak aplikatzea.</li> <li>- Argizari bidezko erregistroak.</li> <li>- Lan-eremua ordenatzeko eta garbitzeko teknikak aplikatzea. Sortutako hondakinak kudeatzea.</li> </ul>  |
| <b>kontzeptuzkoak</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ereduak sortzeko materialak. Motak (erretxinak eta igeltsuak). Propietate kimikoak. Propietate fisikoak. Manipulazio-metodoak: huste-teknikak. Tresneria eta materiala.</li> <li>- Oklusio-erregistroak hartzeko materialak. Hortzetako argizariak: motak, osaera, propietateak eta formatuak. Silikonak. Godiva. Bestelakoak.</li> <li>- Erregistroak eskuratzeko teknikak, protesi motaren arabera. Tresneria eta materiala. Aho barruko eta kanpoko erregistroak.</li> <li>- Erregistroak bidaltzeko protokoloak.</li> </ul> |
| <b>jarrerazkoak</b>   | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ordena eta metodoa lan egitean.</li> <li>- Laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia eta horretarako protokoloak errespetatzea.</li> <li>- Protokoloak zorrotz betetzea.</li> <li>- Lanbidearekin zerikusia daukan informazioa lortzeko interesa.</li> <li>- Zorroztasuna, terminologia erabiltzean.</li> <li>- Funtzioak gauzatzeko ekimena eta autonomia.</li> <li>- Zuzentasuna eta adeitasuna pazienteekiko tratuan.</li> </ul>  |

| 4. PROTESIA EGOKITZEA ETA KONTSERBATZEA |  |
|---|--|
| prozedurazkoak                          | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Protesi erauzgarri osatuak, partzialak eta protesi finkoak egiteko prozesuaren fase klinikoetako beharrezko materialak hautatzea eta prestatzea.</li> <li>- Hortz-zementuak prestatzea.</li> <li>- Behin-behineko protesi finkoak prestatzea.</li> <li>- Hortz-inplanteak jartzeko tresneria eta materiala hautatzea eta prestatzea.</li> <li>- Protesien oinarritzko konponketak (hausturak, berroinarritzeak...)</li> <li>- Aparatologia protesikoaren mantentzea eta higiena.</li> </ul>   |
| kontzeptuzkoak                          | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hortz-protesiak Protesien motak. Indikazioak. Jartzeko fase klinikoak.</li> <li>- Protesi erauzgarri osatua. Indikazioak. Protesi osatuak egiteko prozesuko fase klinikoak.</li> <li>- Protesi erauzgarri partziala. Edentazio partzialeko kasuen sailkapena. Protesi erauzgarri partziala. Motak (akrilikozkoa, metalikoak – eskeletikoak– eta beste batzuk). Protesi partzialak egiteko prozesuko fase klinikoak. Protesi mistoa. Ezaugarriak. Indikazioak.</li> <li>- Protesi finkoa. Koroak. Zubiak. Inkrustazioak. Motak. Materialak. Zementuak. Protesi finkoak egiteko prozesuko fase klinikoak. Behin-behineko protesia.</li> <li>- Implantez eutsitako protesiak. Motak. Implanteen osagaiak. Horiek jartzeko behar den materiala eta tresneria. Implanteak jartzeko fase klinikoa. Fase protesikoa: inpresioak hartzeko teknikak eta inpresioak hartzeko behar den tresneria eta materiala.</li> <li>- Protesi moten mantentze- eta higiene-sistemak. Pazienteentzako jarraibideak.</li> <li>- Larrialdiak aparatologia protesikoan, esaterako, hausturetan, berroinarritzeetan eta bestelakoetan.</li> </ul> |
| jarrerazkoak                            | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ordena eta metodoa lan egitean.</li> <li>- Laneko eta ingurumeneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia eta horretarako protokoloak errespetatzea.</li> <li>- Protokoloak zorrotz betetzea.</li> <li>- Lanbidearekin zerikusia daukan informazioa lortzeko interesa.</li> <li>- Zorroztasuna, terminologia erabiltzean.</li> <li>- Funtzioak gauzatzeko ekimena eta autonomia.</li> <li>- Ezusteko egoeretan erantzuteko gaitasuna izatea.</li> </ul>  |

| 5. TRATAMENDUARI LAGUNTZEKO PROZEDURA |   |
|---------------------------------------|---|
| prozedurazkoak                        | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Irtenbide ortodontzikoak eta gailuak kasuaren patologiaren arabera identifikatzea.</li> <li>- Azterketa-ereduak prestatzea.</li> <li>- Azterketa zefalometrikoa interpretatzea.</li> <li>- Azterketa erradiologikoa interpretatzea, besteak beste, ortopantomografiak, telerradiografiak edo beste batzuk.</li> <li>- Ahoko eta aho barruko argazki digitalak egitea.</li> </ul> |
| kontzeptuzkoak                        | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Oklusioaren anatomofisiologia. Esplorazioa.</li> <li>- Ortodontzia-tratamenduaren indikazioak. Maloklusioak (hozkada irekia, hozkada gurutzatua, hozkada ertzez ertz, hozkada sakona...),</li> </ul>   |



|              |  |
|--------------|--|
|              | <p>hortzen malposizioak (hortz baten gainjarpena, diastemak, hortzen agenesia, hortz supernumerarioak, hortz ektopikoak...) eta beste batzuk.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Diagnostikoa. Zefalometria.</li> <li>- Azterketa erradiologikoa. Ortopantomografia, telerradiografia eta beste batzuk.</li> <li>- Argazkigintza digitala. Aho barruko eta aurpegiko argazkiak. Ikerketa-ereduak.</li> <li>- Gailu ortodontzikoak. Motak (finkoak, erauzgarriak, ortodontzia elastikoa –elastodontzia– eta beste batzuk). Elementuak.</li> </ul> |
| jarrerazkoak | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ordena eta metodoa lan egitean.</li> <li>- Laneko eta ingurumeneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia eta horretarako protokoloak errespetatzea.</li> <li>- Protokoloak zorrotz betetzea.</li> <li>- Lanbidearekin zerikusia daukan informazioa lortzeko interesa.</li> <li>- Zorroztasuna, terminologia erabiltzean.</li> <li>- Funtzioak gauzatzeko ekimena eta autonomia.</li> <li>- Ezusteko egoeretan erantzuteko gaitasuna izatea.</li> </ul>  |

## 6. ORTODONTZIA-APARATUA EGOKITZEA ETA KONTSERBATZEA

|                |  |
|----------------|--|
| prozedurazkoak | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ortodontzia-gailuak jartzeko tresneria eta materiala prestatzea.</li> <li>- Bandak zementatzeko materiala prestatzea.</li> <li>- Hortzen azalera leuntzea eta birpasatzea, tratamendua kendu ostean.</li> <li>- Erabiltzailea ortodontzia-gailuen etxeko higiean trebatzea.</li> <li>- Ortodontzia-tratamenduan laguntza-teknikak aplikatzea.</li> </ul>  |
| kontzeptuzkoak | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ortodontzia-gailuak jartzeko eta kentzeko material, tresneria eta ekipoen ezaugarriak eta motak. Zerrendak. Lotura elastikoa, metalikoak eta beste batzuk. Bracketak. Arkuak. Elastikoak Aliketak. Ortodontzia-tratamenduaren ondoriozko konplikazioak (txantxarrak, gaixotasun periodontalak eta aftak, besteak beste).</li> <li>- Ortodontzia-aparotologia mantentzeko teknikak.</li> <li>- Ortodontzia-tekniken higie-neurriak. Eskuila, kolutorioak, ortodontziako argizaria, hortzetako zeta eta beste batzuk erabiltzeko teknikak.</li> </ul> |
| jarrerazkoak   | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ordena eta zehaztasuna zaintzea lan egitean.</li> <li>- Lanbidearekin zerikusia daukan informazioa lortzeko interesa.</li> <li>- Zorroztasuna, terminologia erabiltzean.</li> <li>- Funtzioak gauzatzeko ekimena eta autonomia.</li> <li>- Ezusteko egoeretan erantzuteko gaitasuna izatea.</li> </ul>  |

### d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

#### 1) Sekuentziazioa

Modulu honen azterketarekin hasteko, *Fitxa klinikoa bete* (1. blokea) eta dagokion *dokumentazioa* bete ditzakegu. Eduki hau, halaber, lehenengo moduluan ematen da – **“Harrera eta logistika”**–, eta edukia prozedurazkoagoa da 2. moduluan –**“Aho-**

**barrunbearen azterketa**”–; bertan, odontogramak, periodontogramak eta abar egingo dira. Eduki horien garapenak moduluan ikaskuntza-irakaskuntza prozesua indartzeko balio dezake; kasu horretan, gehiago sakontzen da pazienteek dituzten ortodontzia- eta protesi-beharretan. Aurpegiko argazkira bideratutako argazki digitalekin lan egingo da – 5. blokean deskribatutakoak–; izan ere, aho barruko argazkigintza 3. moduluan –“**Aho-barrunbearen miaketa**”– ikasiko da.

Materiala eta *inpresioak hartzeko* (2. blokea) eta *oklusio-ereduak eta -erregistroak* egiteko (3. blokea) ekipoak prestatzearekin lotutako edukiak ondoz ondo landu daitezke, *argizariaren bidezko erregistroak* egiten jarraitzeko (3. blokea).

Jarraian, *hartz-protiesien* (4. blokea) inguruko eduki guztiak aztertuko dira. 4. blokeko edukietan 2. moduluekin –“**Aho-barrunbearen azterketa**” eta 3. moduluekin –“**Aho-barrunbearen miaketa**”– dagoen kointzidentzia hartuko da kontuan, ahozko patologiar dagokionez, eta, beraz, irakasle-taldearen koordinazioa beharko da, emango den gaia zehazteko eta zer modulutan sakonduko den erabakitzeko.

Amaitzeko, 5. eta 6. blokeetan deskribatutako ortodontziako espezialitateari buruzko edukiak ikusiko dira; horiek ondoz ondo ikas daitezke, kontuan hartuta maloklusioei buruzko edukiak beste modulu batzuetan ikusiko direla; beraz, berriro ere izango da ezinbestekoa irakasleen koordinazioa.

## 2) Alderdi metodologikoak

Modulu honen edukiak espezialitate odontologiko oso bereziei buruzkoak dira, besteak beste, hartz-protesia eta ortodontzia. Hori dela eta, aho-hortzen higienistak lan-jardueran egin dezakeen lanbide-konpetentziak hartuko dira kontuan, eta ez da sakonduko bere eskumenetatik kanpo dauden alderdi teorikoetan.

Proposatzen da prozedurazko edukiek gidatzea ikaskuntza-irakaskuntza prozesua eta modulu honetan aplikatuko den metodologia aktiboa eta parte-hartzekoa izango da, ikasleak irakaslearekin eta gainerako ikaskideekin batera arituz lor ditzan helburuak. Horretarako, kontzeptu teorikoak eta teoriko-praktikoak landu eta lan praktikoak egingo dituzte.

Jarduera praktiko batzuk egiteko –besteak beste, argizariaren bidezko erregistroak edo larrialdiko konponketak protesian–, baliteke bere lanbide-profilari ez dagozkion jarduera batzuk (esaterako, hartz-protiesien figura profesionalari dagozkiolako) egin behar izatea (argizarizko arrabolak, oinarri-xaflak...), gero horietan lan egiteko. Hori dela eta, komeni da protesien oinarriko ekipamendua izatea (lanpostua gas-instalazioarekin eta metxeroekin, mikromotorrak, leungailua, polimerizazio-ekipoak...), ikasleek beren praktika-materiala prestatu ahal izateko.

Beste jarduera batzuen kasuan, besteak beste tratamendu ortodontikoetan laguntzea, bere zeregina izango da beste pertsona batekin lankidetzan jardutea. Prozesu osoa ezagutu beharko dute, eta odontologoaren funtzioa simulatu beharko da, beraiekin lankidetzan jarduten jakin dezaten.

Praktika batzuk egiteko, eredu, fantoma edo maketak izateaz gainera, une batzuetan interesgarria izango da pertsonen lankidetzan izatea eta, ahalik eta baldintzarik errealeanetan, teknika batzuk gauzatu ahal izatea.

Baliabide informatikoak eta interaktiboak (sarean informazioa bilatzea, Interneten dagoen ikus-entzunezko materiala proiektatzea etab.) erabiltzeak irakaskuntza-



prozesuan aukera ematen du informazioa batzeko eta kontzeptuzko eta prozedurazko edukietan sakontzeko, eta aukera ematen du, ikaskuntzan autonomia eta erantzukizuna sustatzeko.

Eduki batzuetarako, batez ere teknika batekin lotutakoetarako (argazkiak, inpresioak hartzea, ereduak prestatzea...), komeni da irakasleak prozeduren gauzatzea erakustea, eredu orientatzaile izateko, gero ikasleak berak gauza dezan.

### 3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Argazkiak egiteko, inpresioak hartzeko, inpresioak husteko, ereduak eskuratzeko teknikak, protesiak egiteko fase klinikoak eta ortodontzia-tratamenduetan laguntzeko teknikak ezaugarritzea.
- ✓ Ortodontzia- eta protesi-tekniketan interbentzio- eta laguntza-faseak deskribatzea.
- ✓ Prozesu horietan dokumentazio espezifikoa betetzea.
- ✓ Dokumentazio eta azterketa erradiologikoak interpretatzea, besteak beste, ortopantomografia, telerradiografia eta beste batzuk.
- ✓ Tekniketarako tresneria, materiala eta ekipoak identifikatzea.
- ✓ Egin behar den lanerako tresneria, materiala eta ekipoak hautatzea eta prestatzea.
- ✓ Aho barruko eta aurpegiko argazkiak egitea.
- ✓ Kubeta indibidualak egitea akriliko autopolimerizagarritz eta fotopolimerizagarritz.
- ✓ Igeltsuzko ereduak lortzeko huste-teknikak aplikatzea.
- ✓ Argizarizko erregistroak eta argizarizko oklusio-erregistroak egitea.
- ✓ Hertz-zementuak prestatzea.
- ✓ Behin-behineko protesi finkoak prestatzea.
- ✓ Protesien oinarrizko konponketak (hausturak, berroinarritzeak...)
- ✓ Bandak zementatzeko materiala prestatzea.
- ✓ Protesi- eta ortodontzia-tratamenduetan laguntzeko teknikak gauzatzea.
- ✓ Pazienteei jarraibideak eta trebakuntza transmititzeko teknikak aplikatzea.
- ✓ Laneko eta ingurumeneko arriskuak prebenitzeko teknikak aplikatzea.

## 9. lanbide-modulua

### LEHEN LAGUNTZA

#### a) Aurkezpena

|                            |  |
|----------------------------|--|
| Lanbide-modulua:           | <b>Lehen laguntzak</b>   |
| Kodea:                     | 0020   |
| Heziketa-zikloa:           | Ahoaren eta hortzen higiena  |
| Maila:                     | Goi-maila  |
| Lanbide-arloa:             | Osasuna  |
| Iraupena:                  | 60   |
| Kurtsoa:                   | 2  |
| Kreditu kop.:              | 3  |
| Irakasleen espezialitatea: | Osasun- eta laguntza-prozedurak<br>Diagnostiko kliniko eta ortoprosesikoko<br>prozedurak<br>(Lanbide Heziketako irakasle teknikoak)<br>Irakasle espezialista |
| Modulu mota:               | Tituluaren profilari lotutako modulua.   |
| Helburu orokorrak:         | 10 / 11 / 12 / 15 / 16 / 18  |

#### b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Larrialdi bateko laguntzaren hasierako balorazioa egiten du, eta arriskuak, eskura dauden bitartekoak eta behar den laguntza mota deskribatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- Eremua prozedura egokiaren arabera babestu du.
- Istripua izan duten pertsonak manipulatzeari norbera babesteko erabili beharreko teknikak identifikatu ditu.
- Larrialdietako botikinaren gutxieneko edukia, eta produktuen eta sendagaien oharrak deskribatu ditu.
- Biktima anitz daudenerako jardun-lehentasunak ezarri ditu.
- Aire-bideen iragazkortasuna egiaztatzeko prozedurak deskribatu ditu.
- Aireztatze/oxigenatzeko funtzionamendu-baldintza egokiak identifikatu ditu.
- Odoljariorik izanez gero jarduteko prozedurak deskribatu eta gauzatu ditu.
- Konorte-maila egiaztatze prozedurak deskribatu ditu.
- Bizi-konstanteak hartu ditu.
- Jarduketa-sekuentzia ERCK (European Resuscitation Council) ezarritako protokoloaren arabera identifikatu du.
- Biziraupen-katea deskribatu du.



2. Oinarrizko bizi-euskarriko teknikak aplikatu eta deskribatzen ditu, eta lortu beharreko helburuarekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Bihotz-biriketako bizkortzearen funtsak deskribatu ditu.
- b) Aire-bidea zabaltzeko teknikak aplikatu ditu.
- c) Aireztapen- eta zirkulazio-euskarriko teknikak aplikatu ditu.
- d) Kanpoko desfibrilazio erdiautomatikoa (KDE) egin du.
- e) Bizkortze ondoko neurriak aplikatu ditu.
- f) Lesio, patologia edo traumatismo ohikoenak adierazi ditu.
- g) Istripua izan duen pertsonaren lehen eta bigarren mailako balorazioa deskribatu du.
- h) Agente fisikoen, kimikoen eta biologikoen ondoriozko lesioen aurrean, lehen laguntzak aplikatu ditu.
- i) Premiazko patologia organikoen aurrean, lehen laguntzak aplikatu ditu.
- j) Zein kasutan edo egoeratan esku hartu behar ez den zehaztu du.
- k) Nola ohartarazi eta zer informazio eman deskribatu du.

3. Biktimak immobilizatu eta mobilizatzeko prozedurak aplikatzen ditu, eta, horretarako, baliabide materialak eta teknikak hautatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Biktimarengana hurbiltzeko beharrezko maniobrak egin ditu.
- b) Immobilizatu eta mobilizatzeko baliabide materialak identifikatu ditu.
- c) Pertsona lesionatu baten aurrean hartu beharreko jarrera-neurriak ezaugarritu ditu.
- d) Mobilizazio eta lekualdatze desegokiaren ondorioak deskribatu ditu.
- e) Biktimak immobilizatu eta mobilizatzeko sistemak prestatu ditu, material ohikoekin eta berariazkoak ez direnekin nahiz halabeharrezko baliabideekin.
- f) Segurtasunerako eta norberaren babeserako arauak eta protokoloak aplikatu ditu.
- g) Segurtasuneko alboko jarrera, erabilera eta indikazioak deskribatu ditu.

4. Istripua izan duenari eta laguntzaileei laguntza psikologikoa eta autokontrolak emateko teknikak aplikatzen ditu, eta komunikazio-estrategia egokiak deskribatu eta aplikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Istripua izan duen pertsonarekin eta laguntzaileekin komunikatzeko oinarrizko estrategiak deskribatu ditu.
- b) Behar psikologikoak antzeman ditu.
- c) Egoera emozionala hobetzeko laguntza psikologikoko oinarrizko teknikak aplikatu ditu.
- d) Jardun osoan zehar konfiantza eta baikortasuna emateak duen garrantzia baloratu du.
- e) Istripu, larrialdi eta doluko egoeretan antsietatea sorrarazten duten faktoreak identifikatu ditu.
- f) Dolu, antsietate, larritasun edo oldarkortasuneko egoera kontrolatzeko erabili behar diren teknikak zehaztu ditu.
- g) Laguntzean huts egin izana psikologikoki gainditzeko erabili behar diren teknikak zehaztu ditu.
- h) Estres-egoeretan norbera kontrolatzearen garrantzia baloratu du.

**c) Oinarrizko edukiak:**

| 1. LARRIALDIETAKO LAGUNTZAREN HASIERAKO BALORAZIOA |  |
|--|--|
| prozedurazkoak                                     | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Esku hartzeko eremua babesteko teknikak aplikatzea. Larrialdietako arreta-zerbitzuetarako sarbideak identifikatzea.</li> <li>- Norbera babesteko teknikak identifikatu eta aplikatzea.</li> <li>- Informazioa emateko teknikak aplikatzea. Berariazko terminologia erabiltzea.</li> <li>- Lesioen larritasuna eta mota kontuan hartuta, jardun-lehentasanak identifikatzea. Bizi-arriskua dakarten egoerak identifikatzea. Oinarrizko triajeak egitea.</li> <li>- Istripua izan duen pertsonaren hasierako baloraziorako teknikak aplikatzea. Aire-bideen iragazkortasuna, aireztapena eta zirkulazioa egiaztatzea. Konorte-maila baloratzea. Bizi-konstanteak hartzea.</li> <li>- Bizkortzeari buruzko nazioarteko koordinazio-batzordeak (ILCOR) xedatutako protokoloaren arabera identifikatzea jardun-sekuentzia.</li> <li>- Lehen laguntzetako botikinaren oinarrizko materiala identifikatu eta erabiltzea.</li> </ul>  |
| kontzeptuzkoak                                     | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Larrialdietarako sistemak.</li> <li>- Lehen laguntzak. Helburuak eta mugak. BAS jokamoldea (babes-sistemak, abisu-sistemak eta sorospen-sistemak).</li> <li>- Istripuak. Motak eta ondorioak.</li> <li>- Eremua babesteko sistema. Metodoak eta materialak.</li> <li>- Terminologia mediko sanitarioa lehen laguntzetan. Informazioa emateko protokoloak.</li> <li>- Biktima anitz daudenerako jardun-lehentasanak. Triage sinpleko metodoak.</li> <li>- Istripua izan duen pertsona baloratzeko teknikak. Bizi-arriskuaren zantzuak helduengan, haurrengan eta bularreko umeengan. Larrialdi-zantzuak eta -sintomak.</li> <li>- Miaketa egiteko protokoloak. Konorte-maila baloratzeko sistemak. Bizi-konstanteak hartzea.</li> <li>- Lehen esku-hartzailearen jarduna. Lege-esparrua, erantzukizunak eta etika profesionala.</li> <li>- Norberaren babesa eta segurtasuna esku-hartzean. Arriskuak. Neurriak eta ekipamendua.</li> <li>- Lehen laguntzetako botikina. Osagaiak, erabilera eta aplikazioak.</li> </ul> |
| jarrerazkoak                                       | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ingurune seguruak sortzeko segurtasun-arauei eta protokoloei zorrotz jarraitzea.</li> <li>- Jardunaren barruan, istripua izan duenarengan konfiantza eta lasaitasuna sortzeko interesa.</li> <li>- Bere jardunaren mugez jabetzea.</li> </ul>   |

| 2. BIZI-EUSKARRIKO TEKNIKAK APLIKATZEA |   |
|--|---|
| prozedurazkoak                         | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Bizi-arriskuko egoerak aztertzea.</li> <li>- Bizi-seinaleen presentzia identifikatu eta egiaztatzea.</li> <li>- Jarrera-tratamendu egokia aplikatzea.</li> <li>- Bizi-euskarriko teknikak identifikatzea eta egoera bakoitzerako xedatutako jardun-protokoloekin lotzea.</li> <li>- Bihotz-biriketako oinarrizko bizkortze-teknikak (BBB) aplikatzea.</li> </ul> |



|                |   |
|----------------|---|
|                | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Aire-bidea zabaltzeko teknikak aplikatzea.</li> <li>- Aireztapen- eta zirkulazio-euskarriko teknikak aplikatzea.</li> <li>- Kanpoko desfibriladore automatikoak erabiltzea.</li> <li>- Bizkortze ondoko neurriak aplikatzea.</li> <li>- Istripua izan duten pertsonen lehen eta bigarren mailako balorazioa egitea.</li> <li>- Lehen laguntzako teknikak aplikatzea honako lesio hauetan: agente fisikoen ondoriozkoak (hala nola, traumatismoak, zauriak, odoljarioak, beroa edo hotza, elektrizitatea eta erradiazioak), agente kimikoen ondoriozkoak, agente biologikoen ondoriozkoak eta premiazko patologia organikoaren ondoriozkoak.</li> </ul>   |
| kontzeptuzkoak | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Aire-bideen iragazkortasuna kontrolatzea. Zabaltzeko eta obturazioa kentzeko teknikak. Mantentze-lanak.</li> <li>- Bihotz-biriketako oinarriko bizkortzea (BBB). Protokoloak helduekin, bularreko umeekin eta haurrekin.</li> <li>- Kanpoko desfibrilazio automatikoa (KDA). Teknikak. Tresnerien funtzionamendua eta mantentzea. Egoera bereziak. Informazio-prozedurak. Legeak. Ziurtagiria.</li> <li>- Istripua izan duen pertsonaren balorazioa. Bizi-seinaleak. Lehen eta bigarren mailako balorazioa. Esku hartu behar ez den egoerak.</li> <li>- Hasierako arreta agente fisikoen ondoriozko lesioetan (hala nola, traumatismoak, zauriak, odoljarioak, beroa edo hotza, elektrizitatea eta erradiazioak).</li> <li>- Hasierako arreta agente kimikoen eta biologikoen ondoriozko lesioetan.</li> <li>- Hasierako arreta premiazko patologia organikoan.</li> <li>- Konortearen asaldurak. Konorterik gabe dauden pertsonak baloratu eta zaintzea.</li> <li>- Krisi konbultsiboak dituzten pertsonak zaintzea.</li> </ul> |
| jarrerazkoak   | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ordena eta zehaztasuna jardun-protokoloak aplikatzean.</li> <li>- Errespetua eta zuhurtzia istripua izan duen pertsonarekiko tratuan.</li> <li>- Jardunaren barruan, istripua izan duenarengan konfiantza eta lasaitasuna sortzeko interesa.</li> <li>- Tinkotasuna larrialdietako zerbitzuaren jarraibideak betetzean eta ez jarduteko egoeretan.</li> <li>- Bere jardunaren mugez jabetzea.</li> </ul>   |

### 3. IMMOBILIZATZEKO ETA MOBILIZATZEKO PROZEDURAK APLIKATZEA

|                |   |
|----------------|---|
| prozedurazkoak | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Istripua izan dutenak immobilizatu eta mobilizatzeko teknikak aplikatzea.</li> <li>- Jarrera egokian jartzeko teknikak aplikatzea.</li> <li>- Immobilizatu eta mobilizatzeko sistemak prestatzea (hala nola, ferulak eta ohatilak).</li> </ul>   |
| kontzeptuzkoak | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Immobilizatu, mobilizatu eta garraiatzeko teknikak. Oharrak. Motak. Materialak. Ohatilak. Ondorioak.</li> <li>- Lekualdatzeko beharra ebaluatzea.</li> <li>- Segurtasun- eta itzarote-jarrerak. Lekualdatzeko jarrerak. Oharrak.</li> <li>- Segurtasunari eta arriskuen prebentzioari buruzko arauak.</li> </ul> |
| jarrerazkoak   | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ordena eta zehaztasuna jardun-protokoloak aplikatzean.</li> <li>- Errespetua eta zuhurtzia istripua izan duen pertsonarekiko tratuan.</li> <li>- Norbera babesteari eta segurtasunari buruzko araei zorrotz</li> </ul>   |

|  |  |
|--|--|
|  | jarraitzea.<br>- Jardunaren barruan, istripua izan duenarengan konfiantza eta lasaitasuna sortzeko interesa. |
|--|--|

| 4. LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA ETA AUTOKONTROLEKOA EMATEKO TEKNIKAK APLIKATZEA |   |
|--|---|
| prozedurazkoak   | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Kasuak kasu komunikazio-teknikak aplikatzea. Komunikazioan jokabide egokienak hautatzea.</li> <li>- Dolu, antsietate, larritasuna edo agresibitateko egoerak kontrolatzeko eta horietan laguntza psikologikoa emateko oinarrizko teknikak aplikatzea.</li> <li>- Autokontrolako eta hutsegitea edo adore falta gainditzeko teknikak aplikatzea.</li> <li>- Istripu, larrialdi eta doluko egoeretan antsietatea sorrarazten duten faktoreak identifikatzea.</li> </ul>  |
| kontzeptuzkoak   | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Oinarrizko komunikazio-estrategiak. Pertsonen arteko komunikazioa errazten duten teknikak.</li> <li>- Lehen esku-hartzailearen erantzun emozionala. Lehen esku-hartzailearen zeregina baloratzea. Istripu edo larrialdiko egoeretan antsietatea sorrarazten duten faktoreak. Kontrol-teknikak.</li> <li>- Laguntza psikologikorako oinarrizko teknikak. Istripua izan duen pertsonaren eta haren familiakoen behar psikologikoak. Dolu, larritasun, antsietate, urduritasun edo agresibitateko egoerak.</li> </ul> |
| jarrerazkoak   | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Jardunaren barruan, istripua izan duenarengan konfiantza eta lasaitasuna eragiteko gogoia eta sosegua erakustea.</li> <li>- Autokontrola estres-egoeren aurrean eta frustrazio-jasamena.</li> <li>- Zuhurtzia eta interesa sekretu profesionalari eusteko.</li> </ul>  |

#### d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

##### 1) Sekuentziazioa

Modulu honen edukiak hurrenkera honi jarraituta irakastea gomendatzen da:

- Lehen laguntzen helburuak, terminologia, BAS (babestea, abisatzea eta sorostea).
- Lehen esku-hartzailea, haren jardunaren mugak, esparru etikoa, harremanak beste profesional batzuekin...
- Segurtasuna eta autobabesa, arrisku pertsonalak eta prebentzio-neurriak.
- Lehen laguntzetako botikina.
- Istripua izan duen pertsonaren hasierako balorazioa, zantzuak eta sintomak, esplorazio-protokoloak, bizi-konstanteei erreparatzea, eta abar.
- Oinarrizko bizi-euskarria aplikatzea, BBB, aire-bideak, desfibriladoreak erabiltzea...
- Mobilizatze eta immobilizatze teknikak. Segurtasun-jarrerak.
- Lehen laguntzak ematea traumatismoak, zauriak eta odoljarioak daudenean.



- Lehen laguntzak ematea beste egoera batzuetan (adibidez, beste eragile fisikoek, kimikoek edo biologikoek zein patologia organikoak eragindakoak).
- Komunikatzeko zein laguntza psikologikoa eta autokontrolak emateko teknikak aplikatzea.

## 2) Alderdi metodologikoak

Modulu honetan funtsezkoa da ikasleak gai izatea larrialdi-egoeretan ikasitako teknikak aplikatzeko. Hortaz, garapen praktikoa ezinbestekoa da. Hala, ikasgelan lehen laguntzetako teknikak modu praktikoan aplikatuko dira behar bezalako ezaugarriak dituzten egoeretan.

Egoera horien ezaugarriak zehazteko, arlo profesionala har daiteke erreferentziatzen, era horretan gehien gertatzen diren egoerak aurkezteko. Hainbat aldaketa egin daitezke esku hartzen duten pertsonen edota horien adinari edo ezaugarriari, istripuaren tokia eta abarrei dagokienez. Planteatutako egoerari zein aplikatutako teknikari buruz azterketa eta gogoeta egitea garrantzitsua izango da ikaskuntza horiek orokortzearentzat.

Eduki teorikoek bigarren mailako funtzioa dute; hortaz, teknikak aplikatzeko beharrezkoak diren neurrian erantsiko dira. Nolanahi ere, bigarren mailako eginkizun hori gorabehera, beharrezkoak dira jarduna ulertzeko eta hobeto gogoratzeko, eta, era horretan, teknikak praktikan jorratu ez diren beste egoera batzuetan aplikatu ahal izateko eta informazioa helarazi ahal izateko edota larrialdiak koordinatzeko zentro baten jarraibideei jarraitzeko.

Lehen laguntzak emateko egoera batekin lotuta ikasiko dira, eta, oro har, unitate didaktiko bakoitzaren hasieran. Aurkezteko sistemak, azalpenezko metodoak adibidez, eta metodo askoz parte-hartzaileagoak erabil daitezke, hala nola ariketak ebaztea eta eskemak prestatzea, betiere ikasleen parte-hartzea eta jakin-mina lortzeko.

Ikasteko materiala, batetik, lehendik prestatutakoa izan daiteke (apunteak, aldizkariak edo eskulibururen bat), eta, beste kasu batzuetan, ikasleek beraiek presta dezakete material hori, bibliografia edo aplikazio informatikoak kontsultatuta. Ikasleak ohitu behar dira laneko protokoloak eta jarraibideak erabiltzera, eta horiei behar bezala eta zehaztasunez jarraitzera. Protokolo batzuei dagokienez, azken gomendioei adi egon beharra dago (ILCOR, esaterako), maiz berritzen baitituzte.

Jarduera praktikoa egiteko, honako bitarteko hauek behar dira: lehen laguntzetako manikiak (helduak, umeak eta bularreko umeak), oxigenoterapiako ekipoa, desfibriladorea, norbera babesteko ekipoa, sendatzeko materiala, immobilizatzeko materiala eta mobilizatzeko materiala, eta ikastetxeko hainbat gune erabil daitezke, besteak beste, ikasgelak, patioak, eskailerak edo korridoreak.

Profesionalen edo beste kide batzuen jardunak irudietan jasota azter daitezke, osasun-laguntza behatzeko eta hobekuntzak proposatu eta gauza interesgarrienak nabarmentzeko.

Ezinezkoa da lehen laguntzak emateko egoera guztiak praktikan garatzea (adibidez, eragile fisiko, kimiko edo biologiko guztiak zein patologia organikoak eragindakoak). Hainbat egoera aukeratu daitezke –maizenik gertatzen direnak edo larrienak, esaterako– ikasleek jarduteko oinarritzeko trebetasunak gara ditzaten (hala nola sintoma batzuk ezagutzea, laguntza ematen hastea, telefonoz harremanetan jartzea larrialdiak koordinatzeko zentroarekin, informazioa ematea eta jarraibideei jarraitzea).

Laguntza psikologikoarekin eta komunikatzeko teknikekin lotutako edukiak ohikoak dira oso, ikasketa-planetan. Horiei heltzeko, ikasleen aurretiko ezagutzak hartu behar dira

oinarritzat, eta, aurretik ikasi badira, larrialdietako komunikazioarekin eta laguntzarekin lotura handien duen atala aztertuko da. Talde-teknikak egin daitezke (*role-playing*, kasuen azterketa...), ikasleen jokabidea behatu eta haien gaitasunak agerian jarri ahal izateko.

Modulu honetan lortutako gaitasun batzuk oso egoera txarretan aplikatu beharko dira (presa, nerbioak...); horregatik, ongi finkatu behar dira oinarritzko edukiak eta eduki garrantzitsuenak (jardunaren sekuentziak, BBB, autobabesa...). Moduluaren amaieran, ikasitakoa berrikusteko denbora bat ezar daiteke; bertan askotariko egoerak presta daitezke, unitate didaktiko guztien edukiekin lotuta, era horretan ikasleek lortutako heldutasuna ebaluatzeko.

### 3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Jarduteko BAS protokoloa aplikatzea hainbat egoeratan. Gunea eta istripua izan duena babestea. Abisatzea eta informazioa igortzea. Sorospen-neurriak hastea.
- ✓ Norberaren arriskuak identifikatzea, eta istripu-kasu ezberdinetako prebentzio-neurriak erabiltzea.
- ✓ Lehen laguntzetako botikinaren oinarritzko osagaiak identifikatzea. Produktuen zerrendak prestatzea, baita horiek erabiltzeko arauak biltzen dituzten agiriak ere. Sendaketak egitea.
- ✓ Laguntzaren hasierako balorazioa egitea hainbat egoeratan. Zantzuak eta sintomak bilatzea. Bizi-konstanteak hartzea. Jardun-protokoloa identifikatzea.
- ✓ Lehen laguntzetako hainbat teknika aplikatzea. Oinarritzko bizi-euskarriko teknikak aplikatzea. BBB egitea. Aire-bideei erreparatzea. Kanpoko desfibriladore automatikoa erabiltzea. Pertsonak mobilizatzea. Istripua izan dutenak lekualdatzea. Pertsonak immobilizatzea.
- ✓ Kasuak kasu komunikazio-teknikak aplikatzea. Informazioa prestatzea eta transmititzea.
- ✓ Laguntza psikologikoko teknikak aplikatzea.
- ✓ Taldeko tekniketara parte hartzea. Iritziak eta sentimenduak adieraztea.
- ✓ Laneko dependentziak eta egoerak aztertzea, eta horietako bakoitzean egon daitezkeen arriskuak zehaztea.
- ✓ Larrialdietako egoerak aztertzea zer egin behar den eta zer egin behar ez den baloratzeko.
- ✓ Jarduteko idatzizko eta ahozko protokoloak interpretatzea.



## 10. lanbide-modulua

### FISIOPATOLOGIA OROKORRA

#### a) Aurkezpena

|                            |   |
|----------------------------|---|
| Lanbide-modulua:           | <b>Fisiopatologia orokorra</b>  |
| Kodea:                     | 1370  |
| Heziketa-zikloa:           | Ahoaren eta hortzen higieena  |
| Maila:                     | Goi-maila   |
| Lanbide-arloa:             | Osasuna   |
| Iraupena:                  | 165   |
| Kurtsoa:                   | 1   |
| Kreditu kop.:              | 12  |
| Irakasleen espezialitatea: | Prozesu sanitarioak<br>Diagnostiko klinikoko prozesuak eta produktu ortoprotesikoak<br>(Bigarren Hezkuntzako irakaslea) |
| Modulu mota:               | Tituluaren profilari lotutako modulua.  |
| Helburu orokorrak:         | 6 / 11 / 13   |

#### b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Giza organismoaren egitura eta antolamendu orokorra ezagutzen du, eta egiturazko unitateak eta loturak deskribatzen ditu, espezializazioaren arabera.

Ebaluazio-irizpideak:

- Organismoaren egitura hierarkikoa zehaztu du.
- Egitura zelularra eta osagaiak deskribatu ditu.
- Fisiologia zelularra deskribatu du.
- Ehun motak sailkatu ditu.
- Ehun mota bakoitzaren ezaugarriak zehaztu ditu.
- Organismoaren sistemak eta beren osaera adierazi ditu.
- Gorputzeko eremuak eta barrunbeak kokatu ditu.
- Jarrera eta norabidearen terminologia aplikatu du.

2. Gaixotasunaren garapen-prozesua identifikatzen du, eta, horretarako, organismoaren aldaketa funtzionalekin eta eragiten dituen alterazioekin lotzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- Gaixotasunaren prozesu dinamikoa deskribatu du.

- b) Egitura eta funtzio zelularren aldaketak eta alterazioak zehaztu ditu.
- c) Patologia osatzen duten elementuak zehaztu ditu.
- d) Klinikaren zatiak definitu ditu.
- e) Gaixotasun-taldeak zehaztu ditu.
- f) Prozedura diagnostiko osagarriak sailkatu ditu.
- g) Aukera terapeutikoak zehaztu ditu gaixotasunaren aurrean.
- h) Patologian erabilitako termino klinikoaren etimologia zehaztu du.
- i) Terminoak eraikitze arauak aplikatu ditu hiztegi medikoan.

3. Immunitate-sistemaren asaldurak ezagutzen ditu, eta immunitatearen ezaugarri orokorrekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Immunitate-sistemaren organoak eta zelulak deskribatu ditu.
- b) Immunologia-erantzunaren mekanismoak bereizi ditu.
- c) Immunitate bereziaren ezaugarriak definitu ditu.
- d) Immunitate-erantzun bereziaren ezaugarriak definitu ditu.
- e) Immunologia-erantzuna sekuentziatu du.
- f) Immunitate-sistemaren patologia sailkatu du.
- g) Immunitate-sisteman ohikoenak diren patologiak deskribatu ditu.
- h) Immunizazio pasiboa eta aktiboa zehaztu ditu.

4. Gaixotasun infekziosoen ezaugarriak identifikatzen ditu, eta agente infekziosoekin eta zantzu klinikoekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Infekzio-iturrien ezaugarriak deskribatu ditu.
- b) Gaixotasun infekziosoak transmititzeko mekanismoak zehaztu ditu.
- c) Agente infekziosoen motak deskribatu ditu.
- d) Organismoak infekzioari ematen dion erantzuna zehaztu du.
- e) Hantura-erantzuna azaldu du.
- f) Gizakiaren gaixotasun infekzioso nagusien ezaugarriak definitu ditu.
- g) Gaixotasun infekziosoen aurrean dauden aukera terapeutikoak aztertu ditu.

5. Tumorearen garapen-prozesua identifikatzen du, eta neoplasia onberen eta kaltegarrien ezaugarriak deskribatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Neoplasiak sailkatu ditu.
- b) Neoplasia onberak eta kaltegarriak ezaugarritu ditu.
- c) Minbiziaren epidemiologia zehaztu du.
- d) Agente kartzinogenoak sailkatu ditu.
- e) Tumoreen zantzu klinikoak zehaztu ditu.
- f) Minbiziaren prebentzio-sistemak eta diagnostiko goiztiarreko sistemak zehaztu ditu.
- g) Minbizia diagnostikatzeko probak eta aukera terapeutikoak deskribatu ditu.
- h) Neoplasia kaltegarri ohikoenen zantzuak aztertu ditu.

6. Gaixotasunen zantzuak ezagutzen ditu, eta organismoko sistema handien patologiaren asaldura fisiologikoak deskribatzen ditu.



Ebaluazio-irizpideak:

- a) Organo eta aparatuen jarduera fisiologikoa definitu du.
- b) Aparatu bidez sintomatologia ohikoena deskribatu du.
- c) Aparatu bidez zantzu kliniko ohikoenak sailkatu ditu.
- d) Huts organikoaren kausak zehaztu ditu.
- e) Gutxiegitasunaren zantzuak zehaztu ditu.
- f) Terminologia klinikoa erabili du.

7. Asaldura hemodinamiko eta baskularrak ezagutzen ditu, eta horien alterazioak gaixotze-tasa handiko eta heriotza-tasa altuko giza gaixotasunekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Edemaren mekanismo fisiopatologikoa deskribatu du.
- b) Tronbo bat izateko prozesua zehaztu du.
- c) Enbolia definitu du.
- d) Tronboenbolismoan odol-fluxuaren eragin organikoak azaldu ditu.
- e) Kardiopatia iskemikoen ezaugarriak deskribatu ditu.
- f) Biriketako enboliaren ezaugarriak deskribatu ditu.
- g) Nahasmendu hemodinamikoak istripu zerebrobaskularrekin lotu ditu.

8. Elikaduraren eta metabolismoaren nahasmenduak ezagutzen ditu, eta patologia komunen zantzuarekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Elikadura arruntaren alderdi kuantitatiboak eta kualitatiboak zehaztu ditu.
- b) Elikadura aldetiko hutsen ondorio fisiopatologikoak deskribatu ditu.
- c) Gizentasunaren ezaugarriak azaldu ditu.
- d) Diabetesaren prozesu fisiopatologikoa aztertu du.
- e) Lipidoen prozesu metabolikoa aztertu du.
- f) Kolesterol gehiegi izateak dakartzan eragin organikoak zehaztu ditu.

c) Oinarrizko edukiak:

| 1. GIZA ORGANISMOAREN EGITURA ETA ANTOLAKUNTZA OROKORRA EZAGUTZEA |   |
|---|---|
| prozedurazkoak  | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Organismoaren egitura hierarkikoa aztertzea.</li> <li>- Giza organismoaren egitura garrantzitsuenak identifikatzea.</li> <li>- Egiturak eta organoak lokalizatzea.</li> <li>- Organo eta egituren artean espazioak eta erlazioak izendatzea.</li> </ul>  |
| kontzeptuzkoak  | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Organismoaren antolaketa hierarkikoa.</li> <li>- Zitologiako eta histologiako oinarrizko funtsak.</li> <li>- Organismoaren organoak, sistemak eta aparatuek. Sailkapena.</li> <li>- Gorputzeko topografia. Erregioak. Barrunbeak. Planoak eta ardatzak. Norabidearen eta jarreraren terminologia.</li> </ul> |
| jarrerazkoak  | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Zorroztasuna terminologia berezia erabiltzean.</li> <li>- Ezagutza zientifikoak eguneratzeko interesa.</li> <li>- Gaixorik dauden eta ezaugarri desberdinak dituzten pertsonak errespetatzea.</li> </ul>   |

|  |   |
|--|---|
|  | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Erantzukizunez jardutea bere osasuna eta besteena zaintzean.</li> <li>- Talde-lanarekiko interesa izatea.</li> </ul> |
|--|---|

| 2. GAIXOTASUNA GARATZEKO PROZESUA IDENTIFIKATZEA |  |
|--|--|
| prozedurazkoak                                   | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Gaixotasun baten faseak identifikatzea.</li> <li>- Anamnesi- eta miaketa-teknikak aplikatzea.</li> <li>- Ohiko erabilerako prozedura diagnostikoak eta terapeutikoak ezaugarritzea.</li> <li>- Zantzuak eta sintomak identifikatzea.</li> <li>- Terminologia bereziko arauen arabera interpretatzea.</li> <li>- Terminologia espezifikoa erabiltzea.</li> </ul>   |
| kontzeptuzkoak                                   | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Prozesu patologikoa. Osasuna eta gaixotasuna. Osasunaren mugatzaileak. Gaixotasunaren historia naturala.</li> <li>- Zelularen funtzioaren eta egitura arruntaren alterazioa. Aldaketa egokitzaileak. Aldaketa itzulgarriak eta itzulezinak.</li> <li>- Metodo klinikoa. Anamnesia. Esplorazioa.</li> <li>- Etiologia. Patogenia. Fisiopatologia. Semiologia. Zantzu eta sintoma orokorrak (mina, sukarra, astenia...)</li> <li>- Gaixotasunaren faseak eta bilakaera. Gaixotasunaren konplikazioak eta gorabeherak.</li> <li>- Gaixotasunaren klinika.</li> <li>- Prozedura diagnostikoak. Ohiko erabilerako proba diagnostikoak: motak (laborategiko probak, erradiologia...), oinarri eta indikazio orokorrak.</li> <li>- Pronostikoa. Elementuak eta faktoreak.</li> <li>- Baliabide terapeutikoak. Ohiko erabilerako tratamenduak: motak (farmakoterapia, dietoterapia, fisioterapia...), oinarri eta indikazio orokorrak.</li> <li>- Gaixotasun-taldeak. Eragiten duten agenteen araberrako sailkapena.</li> <li>- Terminologia klinikoa. Etimologia, sustraiak, aurrizkiak eta atzizkiak. Terminologia aparatu eta sistemen arabera.</li> </ul> |
| jarrerazkoak                                     | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Zorroztasuna terminologia berezia erabiltzean.</li> <li>- Ezagutza zientifikoak eguneratzeko interesa.</li> <li>- Gaixorik dauden eta ezaugarri desberdinak dituzten pertsonak errespetatzea.</li> <li>- Erantzukizunez jardutea bere osasuna eta besteena zaintzean.</li> <li>- Talde-lanarekiko interesa izatea.</li> </ul>   |

| 3. IMMUNITATE-SISTEMAREN ASALDURAK EZAGUTZEA |   |
|--|---|
| prozedurazkoak                               | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Sistema osatzen duten elementuak eta egiturak identifikatzea eta aurkitzea.</li> <li>- Immunitate-sistemarekin lotutako prozesu garrantzitsuenak ezaugarritzea.</li> <li>- Immunitate-sistemaren funtzionamendu eta asalduren sintomak eta zantzuak identifikatzea.</li> </ul> |
| kontzeptuzkoak                               | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Immunitate-sistema. Immunitate-sistemaren organoak eta zelulak. Antigenoak eta antigorputzak. Zitozinak. Histokonpatibilitateko antigenoak.</li> </ul>   |



|              |  |
|--------------|--|
|              | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Immunitatea. Motak. Immunitate naturala eta espezifikoa. Immunologia-erantzuna.</li> <li>- Immunitate-sistemaren asaldurak. Hipersentikortasuna. Immunoeskasiak. Gaixotasun autoimmuneak.</li> <li>- Immunizazio aktiboa eta pasiboa.</li> <li>- Transplanteen immunologia.</li> </ul>  |
| jarrerazkoak | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Zorroztasuna terminologia berezia erabiltzean.</li> <li>- Ezagutza zientifikoak eguneratzeko interesa.</li> <li>- Gaixorik dauden eta ezaugarri desberdinak dituzten pertsonak errespetatzea.</li> <li>- Erantzukizunez jardutea bere osasuna eta besteena zaintzean.</li> <li>- Talde-lanarekiko interesa izatea.</li> </ul> |

#### 4. GAIXOTASUN INFEKZIOSOEN EZAUGARRIAK IDENTIFIKATZEA

|                |   |
|----------------|---|
| prozedurazkoak | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Infekzioan eta erantzun infekziosoan esku hartzen duten elementuak identifikatzea.</li> <li>- Prozesu infekzioso garrantzitsuenak ezaugarritzea.</li> <li>- Gaixotasun infekziosoaren berezko sintomak eta zantzuak identifikatzea.</li> <li>- Neurri terapeutiko nagusiak ezaugarritzea.</li> </ul>   |
| kontzeptuzkoak | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Infekzioa. Kate infekziosoak. Agente infekziosoak. Kutsatze-mekanismoak. Ostalariaren erantzuna. Gaixotasun infekziosoaren garapena.</li> <li>- Hantura-erantzuna. Osagaiak. Hantura akutua. Hantura akutuaren eredu morfologikoak. Hantura kronikoa. Orbantzea.</li> <li>- Gizakiaren gaixotasun infekzioso nagusiak. Sailkapena.</li> <li>- Infekzioaren diagnostikoa (proba klinikoak, laborategiko probak...)</li> <li>- Terapeutika infekziosoak (farmakoterapia, antibiotikoak, antifungikoak...)</li> <li>- Prebentzio-neurriak.</li> </ul> |
| jarrerazkoak   | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Zorroztasuna terminologia berezia erabiltzean.</li> <li>- Ezagutza zientifikoak eguneratzeko interesa.</li> <li>- Gaixorik dauden eta ezaugarri desberdinak dituzten pertsonak errespetatzea.</li> <li>- Erantzukizunez jardutea bere osasuna eta besteena zaintzean.</li> <li>- Talde-lanarekiko interesa izatea.</li> </ul>  |

#### 5. TUMOREA GARATZEKO PROZESUA IDENTIFIKATZEA

|                |  |
|----------------|--|
| prozedurazkoak | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Tumorearen gaixotasuneko prozesuak identifikatzea.</li> <li>- Tumoreen prozesu ohikoenak ezaugarritzea.</li> <li>- Gaixotasun horien berezko sintomak eta zantzuak identifikatzea.</li> <li>- Prebentzio- eta tratamendu-neurri nagusiak ezaugarritzea.</li> </ul>  |
| kontzeptuzkoak | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Neoplasiak. Terminologia. Neoplasien sailkapena eta epidemiologia.</li> <li>- Minbiziaren oinarri molekularrak. Tumorearen hazkuntzaren biologia.</li> <li>- Agente kartzinogenoak (fisikoak, kimikoak, biologikoak...). Faktore hartaratzailak eta arrisku-faktoreak. Defentsak tumoreen aurrean.</li> <li>- Tumoreen zantzu lokalak eta orokorrak. Barreiadura eta metastasia.</li> </ul> |

|              |   |
|--------------|---|
|              | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Minbiziaren diagnostikoa. Diagnostiko goiztiarra. Tumore-markatzaileak.</li> <li>- Pronostikoa. Tumorearen mailaketa eta estadifikazioa.</li> <li>- Prebentzio-neurriak. Lehen mailako prebentzioa eta diagnostiko goiztiarra. Neurri orokorrak. Ohitura osasungarriak. Arrisku-faktoreen kontrola.</li> <li>- Tratamendu-neurriak (kirurgia, erradioterapia, txertoak...)</li> <li>- Neoplasia kaltegarri ohikoenak.</li> </ul> |
| jarrerazkoak | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Zorroztasuna terminologia berezia erabiltzean.</li> <li>- Ezagutza zientifikoak eguneratzeko interesa.</li> <li>- Gaixorik dauden eta ezaugarri desberdinak dituzten pertsonak errespetatzea.</li> <li>- Erantzukizunez jardutea bere osasuna eta besteena zaintzean.</li> <li>- Talde-lanarekiko interesa izatea.</li> </ul>  |

## 6. GAIXOTASUNEN ZANTZUAK EZAGUTZEA

|                |   |
|----------------|---|
| prozedurazkoak | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Elementuak eta egiturak identifikatzea eta aurkitzea.</li> <li>- Aparatu eta sistema hauekin lotutako prozesu fisiopatologiko garrantzitsuenak ezaugarritzea.</li> <li>- Zantzu eta sintoma batzuk identifikatzea.</li> <li>- Proba diagnostiko arruntak interpretatzea.</li> </ul>  |
| kontzeptuzkoak | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Arnas aparatuen fisiopatologia. Gaixotasunak eta asaldurak. Semiologia (disnea, eztula...)</li> <li>- Digestio-aparatuen fisiopatologia. Gaixotasunak eta asaldurak. Semiologia (goragaleak, okadak, disfagia...)</li> <li>- Aparatu kardiozirkulatorioaren fisiopatologia. Gaixotasunak eta asaldurak. Semiologia (mina, palpazioak...)</li> <li>- Aparatu genitalaren eta gernu-aparatuen fisiopatologia. Gaixotasunak eta asaldurak. Semiologia (poliuria, disuria, hematuria, amenorea...)</li> <li>- Nerbio-sistemaren fisiopatologia. Gaixotasunak eta asaldurak. Semiologia (buruko mina, konbultsioak, ataxia, bertigoa...)</li> </ul> |
| jarrerazkoak   | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Zorroztasuna terminologia berezia erabiltzean.</li> <li>- Ezagutza zientifikoak eguneratzeko interesa.</li> <li>- Gaixorik dauden eta ezaugarri desberdinak dituzten pertsonak errespetatzea.</li> <li>- Erantzukizunez jardutea bere osasuna eta besteena zaintzean.</li> <li>- Talde-lanarekiko interesa izatea.</li> </ul>  |

## 7. NAHASMENDU HEMODINAMIKOAK ETA BASKULARRAK EZAGUTZEA

|                |   |
|----------------|---|
| prozedurazkoak | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Elementuak eta egiturak identifikatzea eta aurkitzea.</li> <li>- Asaldura hemodinamiko eta baskularrekin lotutako prozesu fisiopatologiko garrantzitsuenak ezaugarritzea.</li> <li>- Aparatu eta sistema horien berezko sintomak eta zantzuak identifikatzea.</li> <li>- Proba diagnostiko arruntak interpretatzea.</li> </ul> |
| kontzeptuzkoak | - Asaldura hemodinamikoak. Fisiopatologia. Homeostasia eta ur-  |



|              |  |
|--------------|--|
|              | <p>erregulazioa. Gorputzeko likidoen antolaketa.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Deshidratazioa.</li> <li>- Edema. Edemaren fisiopatologia.</li> <li>- Odoljariora. Hiperemia.</li> <li>- Hemostasia eta koagulazioa.</li> <li>- Tronboak eta enboloak sortzea. Ateromatosisa. Arteria eta zainetako tronbosia.</li> <li>- Hipoperfusioa. Fluxua blokeatzeak dakartzan eraginak. Bihotzekoak.</li> <li>- Odol-fluxuaren alterazioekin lotutako patologia.</li> <li>- Patologia kardiobaskularra. Epidemiologia. Arrisku-faktoreak.</li> <li>- Nahasmendu kardiobaskularren sailkapena. Kardiopatia iskemikoa. Arterietako hipertentsioa. Bihotz-gutxiegitasuna. Hantura- eta endokarditis-prozesuak. Garun-hodietako istripuak. Enboliak. Koagulopatiak eta nahasmendu hemorragikoak. Beste nahasmendu batzuk.</li> </ul> |
| jarrerazkoak | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Zorroztasuna terminologia berezia erabiltzean.</li> <li>- Ezagutza zientifikoak eguneratzeko interesa.</li> <li>- Gaixorik dauden eta ezaugarri desberdinak dituzten pertsonak errespetatzea.</li> <li>- Erantzukizunez jardutea bere osasuna eta besteena zaintzean.</li> <li>- Talde-lanarekiko interesa izatea.</li> </ul>   |

| 8. ELIKADURAREN ETA METABOLISMOAREN NAHASMENDUAK EZAGUTZEA |   |
|--|---|
| prozedurazkoak   | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Funtzio horretan esku hartzen duten elementuak eta egiturak identifikatzea eta aurkitzea.</li> <li>- Elikadurarekin eta metabolismoarekin lotutako prozesu fisiopatologiko garrantzitsuenak ezaugarritzea.</li> <li>- Aparatu eta sistema horien berezko sintomak eta zantzuak identifikatzea.</li> </ul>  |
| kontzeptuzkoak   | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Elikadura eta nutrizioa. Mantenugaiak. Berehalako printzipioak. Dieta orekatua.</li> <li>- Elikaduraren fisiopatologia. Nahasmenduen sailkapena (gizentasuna, malnutrizioa, anorexia, bulimia...)</li> <li>- Metabolismoa. Metabolismoaren asaldurak sailkatzea.</li> <li>- Gluzidoen metabolismoaren fisiopatologia. Asalduren sailkapena. Diabetesa. Proba diagnostikoak.</li> <li>- Lipidoen metabolismoaren fisiopatologia. Metabolismoa eta lipidoen garraiatzea. Asalduren sailkapena. Aterogenesis. Dislipemiak.</li> </ul> |
| jarrerazkoak   | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Zorroztasuna terminologia berezia erabiltzean.</li> <li>- Ezagutza zientifikoak eguneratzeko interesa.</li> <li>- Gaixorik dauden eta ezaugarri desberdinak dituzten pertsonak errespetatzea.</li> <li>- Erantzukizunez jardutea bere osasuna eta besteena zaintzean.</li> <li>- Talde-lanarekiko interesa izatea.</li> </ul>  |

### d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

## 1) Sekuentziarioa

Giza gorputzaren antolaketa orokorra ikasten has gaitezke, zitologiaren, histologiaren, aparatuen, sistemen eta topografiaren oinarritzko ezagutzekin. Hortik aurrera, fisiopatologiako oinarritzko ezagutzak eta orokorrak ere azter daitezke, besteak beste, erantzun zelularra, prozesu klinikoa eta bere zatiak edo terminologia klinikoa, 2. blokean deskribatutakoak, eta hori 6. blokeko azterketarekin lot daiteke; 6. blokean hasiera batean errazenak edo hurbilenak ikusten diren aparatu eta sistemen fisiopatologia eta semiologia aztertuko dira.

Jarraian, 4. blokearekin jarrai daiteke, 3. blokearen aurretik; izan ere, badirudi errazagoa dela lehenengo prozesu infekziosoak eta hanturakoak ikastea immunitate-prozesuak baino; eta 5., 7. eta 8. blokeekin amaitu dezakegu; horietan, tumore-prozesuak, hemodinamikoak eta metabolismoarenak ikasiko ditugu, ikasleek aurretiko ezagutza gehiago izatea eskatzen dutenak.

Nolanahi ere, irakasle bakoitzak edukien sekuentzia balioetsi beharko du, ikasleen ezaugarrien eta heziketa-zikloko gainerako moduluen beharren arabera.

## 2) Alderdi metodologikoak

Modulu hau zeharkakoa da; beraz, plangintza nahiko orokorra du eta ematen den heziketa-ziklora egokitu beharko da.

Modulua ikasten hastean, hura aurkezten eta informazioa batzen eta ikasleen interesa jasotzen denbora bat emateaz gainera, eduki horiek lanbide-profilarekin duten lotura eta horiek lanbide-etorkizunean duten erabilgarritasuna azal daiteke.

Lanbide-modulu honetan jasotako edukien hedadura oso zabala izan daiteke, eta ikaskuntza-emaitzen eta ebaluazio-irizpideen deskribapenak mugatzen ditu. Hala ere, gogorarazi behar da giza organismoaren ikuspegi globala eta ez zorrotza ematea dela helburua, eta garrantzitsuagoa dela ulermen orokorra zehaztasuna baino. Hori horrela, esan beharra dago, halaber, ez dela hain garrantzitsua atal bakoitzean gaixotasunen katalogoa ikastea; garrantzitsuagoa dela gaixotasun, zantzu eta lan-eremuan dituzten ondorio horiek ulertu ahal izateko eta geroko ikaskuntzan autonomo izateko gaitasuna emango dieten alderdiak ikastea.

Edukiaren formulazioa kasu batzuetan ez da zehatza. Batzuetan honelako terminoak erabiltzen dira: "gaixotasun nagusiak...", "gaixotasunak eta nahasmenduak...", "... fisiopatologia"... Ez da zehazten zer prozesu ikasi behar den. Hori dela eta, modulua irakasle arduradunak eduki horiek zehaztu beharko ditu eta hautaketa bat egin beharko du talde bakoitzaren arabera.

Baliteke edukiotako batzuk beste modulu batean errepikatzea. Horrela, bada, esaterako, neoplasiak edo infekzioak ikasten direnean, lanbide-eremuko kasurik garrantzitsuenak ikas daitezke, baina betiere kontuan hartuta posible dela gai batzuek denbora zehatza edukitzea dagokion moduluan eta, beraz, ez dutela tratamendu sakon eta zabal baten helburu izan behar.

Modulu honetan, kontzeptu-edukien pisua garrantzitsua da. Komeni da edukiak ulermen-zailtasun txikieneratik handienekora antolatzea; ahal den neurrian, ikasleen esku-hartzea bultzatuko duten metodoak erabilia. Komeni da, beraz, azalpen-metodo gehiegi ez erabiltzea eta apunteak eta diapositibak proiektatzeko aplikazio informatikoen erabilera sistematizatua erabiltzea, eta, horrela, ikasleak bere ikaskuntza-prozesuan parte hartzeko bakarkako eta taldeko jarduerak prestatzea.



Esaterako, informazioa zenbait euskarritan bilatzeko antola daiteke (liburuak, aldizkariak, Internet...), irudiak bilatzeko, ikaskuntzarako materialak prestatu, eztabaidak antolatu, ikaskideei informazioa aurkeztu, ikasitako eduki teorikoak aplikatu ahal izateko galderak eta ariketak egin, lanbide-profilarekin lotutako kasu klinikoak aztertu edo terminologia medikoa jasoko duen hiztegia egin... Jarduera horietan guztietan ikasleek modu aktiboan eta arduratsuan parte hartu behar dute.

Irakasteko eta ikasteko jarduera horietan, funtsezkoa da ingurunera eta tituluak adierazten dituen lanbide-jardueretara egokitzea. Zehazki, suposizioen datuek eta ezaugarriek, garatu beharreko prozesuek, erabili beharreko dokumentuek, simulatutako egoerek... esanguratsuak eta «ezagunak» izan beharko dute ikasleentzat.

Denboran, irakasleak zenbait rol har ditzake, unearen arabera. Moduluaren hasieran, batez ere, berak zuzenduko du prozesua, baina denborak aurrera egin ahala, ikasleek protagonismoa hartuko dute beren ikaskuntzan, eta orduan izango da irakasleen lana ikaslea orientatzea eta laguntzea, ikasleek behar duten autonomia eskuratzeko beren lanbide-profila garatzeko.

### 3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Organoak, egiturak eta elementuak identifikatzea.
- ✓ Organoak, egiturak eta elementuak eta haren erlazioak deskribatzea.
- ✓ Organoen eta egituren arteko harremanak deskribatzea, kokalekuak deskribatzea, alboko egiturekiko harremanak deskribatzea...
- ✓ Organoak, egiturak eta elementuak aurkitzea.
- ✓ Oinarrizko eta ohiko patologietan inplikaturako prozesuak ezaugarritzea.
- ✓ Diagnostiko-, prebentzio- eta tratamendu-prozesu ohikoenak ezaugarritzea.
- ✓ Gaixotasunen berezko sintomak eta zantzuak identifikatzea.
- ✓ Parametroak neurtzea, hala nola pultsua, tenperatura, arteria-tentsioa, gorputzeko diametroak...
- ✓ Terminologia mediko-klinikoa erabiltzea.
- ✓ Fisiologia eta patologiarekin lotutako ariketak edo problemak ebaztea.
- ✓ Testuak, txostenak eta lotutako edozein dokumentazio egitea.

# 11. lanbide-modulua

## AHO-HORTZEN HIGIENEN PROIEKTUA

### a) Aurkezpena

|                            |   |
|----------------------------|---|
| Lanbide-modulua:           | <b>Aho-hortzen higieneko proiektua</b>  |
| Kodea:                     | 0738  |
| Heziketa-zikloa:           | Ortoprotesiak eta laguntza-produktuak   |
| Maila:                     | Goi-maila   |
| Lanbide-arloa:             | Osasuna   |
| Iraupena:                  | 50 ordu   |
| Kurtsoa:                   | 2   |
| Kreditu kop.:              | 5   |
| Irakasleen espezialitatea: | Diagnostiko klinikoko prozesuak eta produktu ortoprotesikoak<br>Osasun-prozesuak<br>(Bigarren Hezkuntzako irakaslea)<br>Makinen mantentzea eta mekanizazioa<br>(Lanbide Heziketako irakasle teknikoa) |
| Modulu mota:               | Zeharkako modulua   |
| Helburu orokorrak:         | Guztiak   |

### b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Produktio-sektorearen beharrak identifikatzen ditu, eta behar horiek ase ditzaketen ereduzko proiektuekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Sektoreko enpresak antolamendu-ezaugarrien arabera eta eskaintzen duten produktuaren edo zerbitzuaren arabera sailkatu ditu.
- Ereduzko enpresak ezaugarritu ditu, haien antolamendu-egitura eta sail bakoitzaren funtzioak adierazita.
- Enpresei gehien eskatzen zaizkien beharrak identifikatu ditu.
- Sektorean aurreikus daitezkeen negozio-aukerak baloratu ditu.
- Aurreikusten diren eskariei arreta egiteko behar den proiektu mota identifikatu du.
- Proiektuak izan behar dituen berariazko ezaugarriak zehaztu ditu.
- Zerga-betebeharrak, lanekoak eta arriskuen prebentziokoak, eta horiek aplikatzeko baldintzak zehaztu ditu.
- Proposatzen diren produkzio edo zerbitzuko teknologia berriak txertatzeko jaso daitezkeen laguntzak edo diru-laguntzak identifikatu ditu.
- Proiektua lantzeko jarraitu beharreko lan-gidoia landu du.



2. Tituluan adierazitako konpetentziekin lotutako proiektuak diseinatzen ditu, eta horiek osatzen dituzten faseak barnean hartu eta garatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Proiektuan jorratuko diren alderdiei buruzko informazioa bildu du.
- b) Bideragarritasun teknikoari buruzko azterlana egin du.
- c) Proiektua osatzen duten faseak edo zatiak eta horien edukia identifikatu ditu.
- d) Lortu nahi diren helburuak ezarri ditu eta horien irismena identifikatu du.
- e) Proiektua gauzatzeko beharrezko baliabide materialak eta pertsonalak aurreikusi ditu.
- f) Dagokion aurrekontu ekonomikoa egin du.
- g) Abian jartzeko finantziario-beharrak identifikatu ditu.
- h) Diseinatzeko beharrezko dokumentazioa definitu eta landu du.
- i) Proiektuaren kalitatea ziurtatzeko kontrolatu beharreko alderdiak identifikatu ditu.

3. Proiektuaren gauzatzea planifikatzen du, eta esku-hartze plana eta dagokion dokumentazioa zehazten du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Jarduerak sekuentziatu ditu, eta inplementatze-beharren arabera antolatu ditu.
- b) Jarduera bakoitzerako beharrezko baliabideak eta logistika finkatu ditu.
- c) Jarduerak gauzatzeko baimenen beharrak identifikatu ditu.
- d) Jarduerak gauzatzeko edo jarduteko prozedurak finkatu ditu.
- e) Abiaraztearen berezko arriskuak identifikatu ditu, eta arriskuei aurrea hartzeko plana eta beharrezko bitartekoak eta ekipamenduak definitu ditu.
- f) Baliabide materialak eta giza baliabideak eta gauzatze-denborak esleitzeko plangintza egin du.
- g) Inplementatzearen baldintzei erantzuten dien balorazio ekonomikoa egin du.
- h) Proiektua inplementatzeko edo gauzatzeko beharrezko dokumentazioa zehaztu eta prestatu du.

4. Proiektua gauzatzean, jarraipena eta kontrola egiteko prozedurak definitzen ditu, eta erabilitako aldagaiak eta tresnak hautatu izana justifikatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Jarduerak edo esku-hartzeak ebaluatzeko prozedura definitu du.
- b) Ebaluazioa egiteko kalitate-adierazleak definitu ditu.
- c) Jarduerak egitean sor daitezkeen gorabeherak eta litekeen konponbidea ebaluatzeko eta horiek erregistratzeko prozedura definitu du.
- d) Baliabideetan eta jardueretan izan daitezkeen aldaketak kudeatzeko prozedura definitu du, horiek erregistratzeko sistema barne.
- e) Jarduerak eta proiektua ebaluatzeko beharrezko dokumentazioa definitu eta landu du.
- f) Erabiltzaileei edo bezeroei buruzko ebaluazioan parte hartzeko prozedura ezarri du, eta berariazko dokumentuak prestatu ditu.
- g) Hala badagokio, proiekturako baldintzen orria beteko dela ziurtatzeko sistema bat ezarri du.

5. Proiektua aurkeztu eta defendatzen du, eta proiektua lantzean eta heziketa-zikloko ikaskuntza-prozesua garatzean eskuratutako konpetentzia teknikoak eta pertsonalak eraginkortasunez erabiltzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Proiektuari buruzko memoria-dokumentua egin du.
- b) Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak erabiliko dituen aurkezpena prestatu du.
- c) Proiektuaren azalpena egin du. Bertan, haren helburuak eta eduki nagusiak deskribatu ditu eta jasotako ekintza-proposamenen hautaketa justifikatu du.
- d) Azalpenean komunikazio-estilo egokia erabili du eta, ondorioz, azalpen antolatua, argia, atsegina eta eraginkorra lortu du.
- e) Proiektua defendatu du, eta arrazoituta erantzun die epaimahai ebaluatzaileak planteatzen dituen galderi.

## d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

### 1) Sekuentziazioa

Modulu honen helburua heziketa-ziklo osoan landu diren lanbide-konpetentziak, pertsonalak eta sozialak indartu eta finkatzea da. Horretarako, talde-proiektu bat garatuko da.

Bi edo hiru ikasleko taldeak osatzea izango da lehen urratsa. Talde horien bidez ikasle guztiak proiektuaren garapenean inplika daitezten lortuko da. Talde homogeneousak eta konpetentzia osagarriak izango dituztenak ezartzen saiatuko da.

Taldearen lehen zeregina garatu beharreko proiektua aukeratzea izango da. Modulu hau denboran bat datorrenez «Lantokiko prestakuntza» moduluarekin, praktikak egiten direneko enpresa ideia-iturri egokia izan daiteke proiekturako. Nolanahi ere, komenigarria da tutoreak gara daitezkeen proiektu teknikoki bideragarri batzuk prest izatea, proposatu behar izanez gero ere.

Ondoren, proiektua garatzeko eredu bati jarraituz, haren faseak landuko dira:

- Diseinua.
- Plangintza.
- Gauzatzea eta jarraipena egitea.
- Amaiera eta ebaluazioa.

Bukatzeko, talde bakoitzak proiektuaren aurkezpena eta defentsa prestatu eta egingo du, eta, horretarako, hainbat aurkezpen-teknika erabiliko dituzte IKTetan oinarrituta.

### 2) Alderdi metodologikoak

Modulu hau antolatzeko garaian, irakatsi eta ikasteko metodologia aktiboak erabiltzea proposatzen da, hala nola talde-lana eta PBL-AOI (*Problem Based Learning*, Arazoetan Oinarritutako Ikaskuntza). Zehazki, zikloko zenbait moduluren konpetentziak zeharka bilduko dituzten proiektuen garapenean berriaz oinarritutako PBL metodologia erabil daiteke. Metodologia horiek ikaslea behartzen dute arazoak identifikatzera, horiek konpontzeko aukerak bilatzera, horretarako beharrezko baliabideak abian jartzera eta informazioa behar bezala kudeatzera.

Gainera, metodologia horiek bakarlaneko uneak sustatzen dituzte, eta lan horiek garrantzi handikoak dira taldea osatzen duten ikasleetako bakoitzak proiektua defendatzean erakutsi beharko dituen ezagutzak eta konpetentziak eskuratzeko.



Bestalde, talde-lanaren bidez, ikasleek harreman-kompetentziak garatzen dituzte eta taldeen funtzionamendua ezagutzen dute, lanerako tresna gisa, baita horrek dakarren guztia ere: taldearen antolaketa, rolen eta zereginen banaketa, pertsonen arteko komunikazioa, gatazken konponketa, etab.

Ikasleen autoikaskuntza osatzeko, proiektu-talde bakoitzari aldizka jarraipen bat egitea proposatzen da, ikaskuntza gidatzeko eta taldeari finkatutako helburuen barruan eusteko. Gainera, sortzen diren beharren arabera, laguntzako azalpen edo mintegiren bat programatzea gomendatzen da, proiektua garatzeko beharrezkoak diren berriazko edukiei edo metodologiei buruzko ezagupenetan gabeziak betetzeko.

Azkenik, talde bakoitzak landutako proiektuaren azalpen bat egitea proposatzen da, bi helburu hauekin:

- Proiektua garatzean ikasle bakoitzak bereganatutako kompetentzia teknikoak ebaluatzea.
- Komunikazioari dagokionez, ikasleen kompetentzia pertsonalak eta sozialak ebaluatzea.

Azalpena prestatu eta garatzeko, ikasleei teknologia berriak erabil ditzaten proposatuko zaie, hau da, hainbat informatika-aplikazio erabiltzea diapositiba-aurkezpenak, web-orrien formatuak, eta abar lantzeko. Horretarako bideo-proiektagailuak eta ordenagailuak ere erabiliko dituzte eta, hala, etorkizunean lanerako baliagarri izango dituzten tresnekin trebatzen hasteko aukera izango dute.

### 3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

Modulua ebaluatzerakoan, garrantzitsutzat jotzen dugu proiektua azken produktu gisa eta egindako lanketa-prozesuaren amaiera gisa ebaluatzea. Horretarako, lantaldearen funtzionamenduari buruzko informazioa jaso behar da, kide bakoitzak zereginetan eta proiektuan izan duen inplikazioari buruzkoa, oro har, taldean sortutako zailtasunei buruzkoa, ikasle bakoitzak bereganatutako kompetentzia pertsonal eta sozialei buruzkoa, etab.

Era berean, kalifikazioaren zati batean, proiektuaren azalpenari eta defentsari buruz irakasleak egindako balorazioa jasotzea proposatzen da. Zehazki, azalpenaren ebaluazio-adierazleetako batzuk honako adierazle hauek izan daitezke:

- o Proiektuaren aurkezpenak duen diseinu-kalitatea.
- o Aurkezpena egiteko baliabide lagungarrien erabilera: baliabide informatikoak, modeloak edo maketak, eta abar.
- o Azalpenaren argitasuna.
- o Azalpenaren antolamendua.
- o Azalpenaren bizitasuna.
- o Azalpenaren eraginkortasuna.
- o Frogatutako komunikazio-trebetasunak: ahots-doinua, hitzezko adierazpena, hitzik gabeko komunikazioa eta abar.
- o Irakasleek eta ebaluatzaileek egindako galderei erantzuteko gaitasuna.

Behar-beharrezkoa izango da taldeko ikasle guztiek bete-betean parte hartzea proiektuaren defentsan. Horrela, bakarkako ebaluazioa egin ahal izango da, eta ikasle bakoitzak moduluarekin lotzen diren ikaskuntzaren emaitzak lortu dituela erakutsi ahal izango du. Hala, taldea osatzen duten kide guztiek proiektua garatzen lagundu dutela ziurtatzen saiatu beharko da.

Azkenik, proiektuan parte hartzen duen talde bakoitzari erantzun xehatua ematea gomendatzen da. Erantzun horretan, produktuari buruzko ebaluazioaren, eta haren prozesuaren eta azalpenaren indarguneak eta ahulguneak azpimarratuko dira. Horrela, ikasleei lagundu egingo zaie aurrerantzean euren ibilbide profesionalean garatu eta azaldu beharreko proiektuetan egin litezkeen hobekuntzak identifikatzen.



## 12. lanbide-modulua

### INGELES TEKNIKOA

#### a) Aurkezpena

|                            |   |
|----------------------------|---|
| Lanbide-modulua:           | <b>Ingeles teknikoa</b>                                   |
| Kodea:                     | E-200   |
| Heziketa-zikloa:           | Ahoaren eta hortzen higiena                               |
| Maila:                     | Goi-maila   |
| Lanbide-arloa:             | Osasuna   |
| Iraupena:                  | 40 ordu   |
| Kurtsoa:                   | 2   |
| Kreditu kop.:              |   |
| Irakasleen espezialitatea: | Ingelesa<br>(Bigarren Hezkuntzako irakaslea)              |
| Modulu mota:               | Zeharkako modulua   |
| Helburu orokorrak:         | Kualifikazioen Europako Esparruko funtsezko kompetentziak |

#### b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Tituluaren lanbide-esparruarekin, prestakuntza pertsonalarekin eta eskainitako produktuarekin/zerbitzuarekin lotutako ahozko informazioa interpretatu eta erabiltzen du, eta haren ezaugarriak eta propietateak, enpresa motak eta horien kokapena identifikatu eta deskribatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- Zuzeneko mezuaren, telefono bidezkoaren edo entzunezko beste bitarteko baten bidezkoaren xedea ezagutu du.
- Egoera jakin batzuk ebazteko ahozko mezu zehatzak igorri ditu: hitzordua, produktu bat bidaltzeko/jasotzeko datak eta baldintzak, makina/aparatu baten oinarrizko funtzionamendua.
- Ahozko argibideak ezagutu ditu eta enpresaren testuinguruan emandako adierazpenei jarraitu die.
- Sektorearen berezko produktuak edo zerbitzuak deskribatzeko termino tekniko zehatzak erabili ditu.
- Mezu bat bere elementu guztiak ulertu beharrik gabe orokorrean konprenitzea zeinen garrantzitsua den konturatu da.
- Emandako informazioen ideia nagusiak laburbildu ditu bere hizkuntza-baliabideak erabilita.
- Beharrezkotzat jo duenean diskurtsoa edo horren zati bat berriz formulatzeko eskatu du.

- h) Laneko elkarrizketa baterako aurkezpen pertsonala prestatu du.
- i) Lan-ingurunean garatu beharreko konpetentziak deskribatu ditu.

2. Sektorearen eta nazioarteko merkataritza-transakzioen berezko dokumentu idatziak interpretatu eta betetzen ditu: ezaugarri eta funtzionamenduari buruzko eskuliburua, eskabide-orria, jasotze- edo bidaltze-orria, fakturak, erreklamazioak.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Berariazko informazioa atera du eskainitako produktuarekin edo zerbitzuarekin lotutako mezuetatik (publizitate-liburuxkak, funtzionamenduari buruzko eskuliburua) eta bizitza profesionalarekin zerikusia duten eguneroko alderdietatik.
- b) Merkataritza-transakzioei buruzko dokumentuak identifikatu ditu.
- c) Euskarri telematikoen bitartez jasotako mezua interpretatu dute: posta elektronikoa, faxa, besteak beste.
- d) Sektoreko web orri bateko oinarrizko informazioak identifikatu ditu.
- e) Dagokion lanbide-esparruko merkataritza-dokumentazioa eta berariazko dokumentazioa bete ditu.
- f) Lanbidearen berezko terminologia eta hiztegia zuzen erabili ditu.
- g) Aurkezpenetan eta agurretan, prestatu beharreko dokumentuaren berezko adeitasun-formulak erabili ditu.
- h) Bere lanbide-ingurunearekin erlazonatutako testuen laburpenak egin ditu.
- i) Profilarakin lotutako okupazioak eta lanpostuak identifikatu ditu.
- j) Bere konpetentziako lan-prozesu bat deskribatu eta sekuentziatu du.
- k) Lan-ingurunean garatu beharreko konpetentziak deskribatu ditu.
- l) Curriculum vitae egiteko, norberaren prestakuntza eta lanbide-konpetentziak aurkezteko Europako herrialdeetan erabiltzen diren jarraibideak bete ditu.

3. Komunikazio-egoeretan jarrera eta portaera profesionalak identifikatu eta aplikatzen ditu, eta herrialde bakoitzarekin ezarritako protokolo-arauak eta haren ohiturak errespetatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Atzerriko hizkuntza hitz egiten den erkidegoko ohitura eta usadioen ezaugarri esanguratsuenak definitu ditu.
- b) Herrialdearen berezko gizarte- eta lan-harremanetako protokoloak eta arauak deskribatu ditu.
- c) Sektorearen berezko alderdi sozio-profesionalak identifikatu ditu edozein testu motatan.
- d) Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdearen berezko gizarte-harremanetako protokoloak eta arauak aplikatu ditu.
- e) Beste herrialdearen berezko balioak eta ohiturak identifikatu eta bere jatorrizko herrialdekoekin lotu ditu, antzekotasunak eta desberdintasunak ezartzearen.

### c) Oinarrizko edukiak:

| 1. PROFILAREKIN LOTUTAKO AHOZKO MEZUAK ULERTU ETA SORTZEA |   |
|---|---|
| prozedurazkoak  | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Sektoreko mezu profesionalak eta egunerokoak ezagutzea.</li> <li>- Zuzeneko mezuak, telefono bidezkoak eta grabatutakoak identifikatzea.</li> <li>- Ideia nagusia eta bigarren mailako ideiak bereiztea.</li> <li>- Beste hizkuntza-baliabide batzuk ezagutzea: gustuak eta lehenetsunak, iradokizunak, argudioak, argibideak, baldintzaren eta</li> </ul> |



|                |  |
|----------------|--|
|                | <p>zalantzaren adierazpena eta bestelakoak.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ahozko mezuak igortzeko erabiltzen diren erregistroak hautatzea.</li> <li>- Ahozko diskurtsoa mantentzea eta jarraitzea: sostengua ematea, ulertzen dela erakustea, argitzeko eskatzea, eta bestelakoak</li> <li>- Intonazioa, ahozko testuaren kohesio-baliabide gisa.</li> <li>- Nahikoa ulertzeko soinuak eta fonemak egoki sortzea.</li> <li>- Gizarte-harremanen markatzaile linguistikoak, adeitasun-arauak eta erregistro-desberdintasunak hautatzea eta erabiltzea.</li> <li>- Laneko elkarrizketa bat prestatzea, dituen prestakuntza eta motibazio pertsonalak aurkezteko.</li> </ul> |
| kontzeptuzkoak | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Sektoreko terminologia espezifikoa.</li> <li>- Gramatika-baliabideak: aditz-denborak, preposizioak, adberbioak, lokuzio preposizionalak eta adberbialak, erlatibozko perpausak, zehar-estiloa, eta bestelakoak.</li> <li>- Hots eta fonema bokalikoak eta kontsonantikoak. Konbinazioak eta elkarteak.</li> <li>- Lan-elkarrizketa baten gaikako atalak.</li> </ul>   |
| jarrerazkoak   | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Atzerriko hizkuntzak lanbide-munduan duen garrantziaz konturatzea.</li> <li>- Ulertzeko eta ulertarazteko interesa izatea eta hori errespetatzea.</li> <li>- Informazio-trukean bete-betean parte hartzea.</li> <li>- Atzerriko hizkuntzan komunikatzeko norberaren gaitasunaz jabetzea.</li> <li>- Hizkuntza bakoitzaren berezko adeitasun-arauak eta erregistro-desberdintasunak errespetatzea.</li> </ul>  |

**2. PROFILAREKIN LOTUTAKO IDATZIZKO MEZUAK INTERPRETATU ETA ADIERAZTEA**

|                |  |
|----------------|--|
| prozedurazkoak | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Mezuak formatu desberdinetan ulertzea: eskuliburuak, liburuxkak, eta oinarrizko artikulua profesionalak eta egunerokoak.</li> <li>- Ideia nagusia eta bigarren mailako ideiak bereiztea.</li> <li>- Erlazio logikoak ezagutzea: aurkakotasuna, kontzesioa, konparazioa, baldintza, kausa, helburua, emaitza.</li> <li>- Denbora-erlazioak bereiztea: aurrekotasuna, gerokotasuna, aldiberekotasuna.</li> <li>- Sektorearen berezko testu erraz profesionalak eta egunerokoak lantzea.</li> <li>- Puntuazio-markak erabiltzea.</li> <li>- Lexikoa hautatzea, egitura sintaktikoak hautatzea, horiek egoki erabiltzeko eduki adierazgarria hautatzea.</li> <li>- Testu koherenteak lantzea.</li> <li>- Lan-ingurunearekin lotzen den lan-eskaintza bateko iragarkien atalak ulertzea.</li> <li>- Dagokion profilarekin lotutako lan-eskaera prestatzea: curriculum eta gutun eragingarria.</li> </ul> |
| kontzeptuzkoak | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskarri telematikoak: faxa, posta elektronikoa, burofaxa, web orriak.</li> <li>- Hizkuntzaren erregistroak.</li> <li>- Nazioarteko transakzioekin lotutako dokumentazioa: eskabide-orria, jasotze-orria, faktura.</li> <li>- Europako Curriculum Vitaearen eredia.</li> <li>- Heziketa-zikloarekin lotutako kompetentziak, lanbideak eta lanpostuak.</li> </ul>  |
| jarrerazkoak   | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ulertzeko eta ulertarazteko interesa izatea eta hori errespetatzea.</li> <li>- Beste kultura batzuen alderdi profesionalekiko interesa erakustea.</li> </ul>  |

|  |   |
|--|---|
|  | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Beste kultura eta gizarteetako ohiturak eta pentsamoldea errespetatzea.</li> <li>- Testuaren garapenean koherentziaren premia baloratzea.</li> </ul> |
|--|---|

| 3. HERRIALDEAREN BEREZKO ERREALITATE SOZIOKULTURALA ULERTZEA |   |
|--|---|
| prozedurazkoak   | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Komunikazio-egoera bakoitzerako kultura-elementurik esanguratsuenak interpretatzea.</li> <li>- Enpresaren irudi ona proiektatzeko portaera sozioprofesionala eskatzen duten egoeretan baliabide formalak eta funtzionalak erabiltzea.</li> </ul> |
| kontzeptuzkoak   | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Atzerriko hizkuntza (ingeleza) mintzatzen den herrialdeen elementu soziolaboral esanguratsuenak.</li> </ul>  |
| jarrerazkoak   | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Nazioarteko harremanetan, arau soziokulturalak eta protokoloak balioestea.</li> <li>- Bestelako usadioak eta pentsamoldeak errespetatzea.</li> </ul>   |

#### d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, gomendio hauek iradokitzen ditugu:

##### 1) Sekuentziazioa

Eduki multzoen aurkezpenak prestakuntza-prozesua errazten ez duenez eta horren premiei erantzuten ez dienez, behar-beharrezkoa da ibilbide didaktiko bat antolatzea, multzo horiekin laneko testuinguruko hizkuntza-komunikazioko egoera bati konponbidea aurkitzeko beharrezkoak diren ulermenezko eta adierazpenezko gaitasunak lortzeari lehentasuna emango diena.

Modulu honen programazioa antolatzeko, prozedurek irakasteko prozesua zuzen dezaten proposatzen da, berebiziko garrantzia baitute hizkuntza bat komunikazio-tresna gisa irakasteko. Gainera, berehala erabilgarri izateak motibazioa sortzen du irakasleengan. Lanbidearen berezko komunikazio-egoera batek prozedura jakin batzuk dakartza eta horiek kontrolpean izan behar dira egoera eraginkortasunez konponduko bada. Eduki lexikalek, morfologikoez eta sintaktikoez ez lukete inongo zentzurik, ulertu edo adierazi behar den mezu bat eraman edo transmitituko ez balute.

Horrenbestez, oinarrizko lau hizkuntza-gaitasunak, hots, entzumena, irakurmena, mintzamina eta idazmina garatzea da lortu beharreko helburua. Ikasleek nolabaiteko segurtasunarekin moldatu beharko dute atzerriko hizkuntzan, beren lanpostuak aurkezten dizkien egoeren aurrean.

Irakasleek erabiliko dituzten metodologia eta materialak alde batera utzirik, lanbidearen berezko egoera erraz bat aukeratzea oso baliagarria izango da ikasleak beren ikaskuntzan bertan inplikatzeko. Egoera horren inguruan antolatuko dira dagozkion gramatika-egiturak (aditz-denbora, hiztegia, eta abar), hizkuntza-erregistroarekin, arau edo protokolo sozial eta/edo profesional egokiekin batera.

Beharbada komenigarria izango litzateke hasieran modulua ikasleei aurkeztean horiekin batera gogoeta egitea, etorkizunean bitzita profesionalean aurrez aurre izango dituzten



egoera ohikoenak zein izango diren ondorioztatzeko, eta lan egingo duten produkzio-sektorean atzerriko hizkuntza zein beharrezkoa izango duten eta beste ohitura eta kultura batzuetara irekitzea zein aberasgarria izango den konturatzeko. Gogoeta horrek ikasteko aukeretan irmotu beharko lituzke, gero eta autonomoagoak izan daitezen eta sortzen zaizkien arazoak konpontzeko gaitasuna izan dezaten beren lanpostuetan daudenean. Komenigarria da atzerriko hizkuntzak zikloko beste modulu batzuekin duen zeharkako erlazioa behin eta berriz azpimarratzea, jakitun izan daitezen zein lanbide-profiletarako prestatzen ari diren.

Azkenik, kontuan izan behar da, halaber, aurreko hezkuntza-etaparen ondorio den ingelesezko oinarrizko prestakuntza. Esperientziak erakusten digunez, ikaskuntza horretan zehar eskuratutako lorpenak askotarikoak izaten dira, gazte bakoitzaren idiosinkrasia pertsonalaren parekoak ia.

Komunikazio-konpetentzia batzuk urriak direla irizten bazaio edo taldearen aniztasunean oinarrizko ezagutzak homogeneizatu beharra antzematen bada, dagozkion ezagutzak osatu edo indartzeari ekingo zaio. Horretarako, beharrezkoak diren unitate didaktikoak definituko dira.

## 2) Alderdi metodologikoak

Hizkuntza lanbide-munduan komunikatzeko tresna bezala ulertuta, metodo aktiboa eta parte-hartzailea erabiltzen da ikasgelan.

Ahozko hizkuntzari garrantzi berezia eman beharko zaio, egungo egoera profesionalek eta globalizazioak hori eskatzen baitute.

Ikasgelan ingelesa erabiltzen da beti eta irakasleak etengabe bultzatzen ditu ikasleak hura erabiltzera, nahiz eta zuzen mintzatu ez. Irakasleak konfiantza eman beharko dio ikasle bakoitzari, komunikatzeko aukeren jakitun izan dadin, aukerak baditu eta. Lehentasuna emango zaio mezuaren ulermenari zuzentasun gramatikalaren gainetik, eta ahoskera eta jariora azpimarratuko dira, mezua hartzailearengana igarotzeko baldintzatzaileak dira eta.

Talde-lanak gazteen hasierako lotsa gainditzen laguntzen du. Halaber, audio- eta bideo-grabazioak erabiliko dira, ikasleek beren burua behatuz eta beren akatsak aztertuz alderdi neketsuena hobe dezaten; hots, ahozko mezuen sorkuntza. Hizkuntza bat ikasteak pertsonaren alderdi guztiak mobilizatzea eskatzen du, oso jarduera konplexua da eta.

Irakasteko eta ikasteko prozesuan aplikatutako komunikazio-metodologia sektoreko enpresak (ahal dela ingelesak) bisitatuz edo jarduneko langileak gonbidatuz aberats daiteke. Hartara, lanbide-ingurunetik datozen eta lan-esperientzia duten horiek lanpostuaren ikuspegia, zailtasunak eta abantailak azalduko dizkiete etorkizuneko profesionalei.

Metodo/testuliburu bat eta metodoak berak dakarren ikus-entzunezko materiala erabiltzeaz gain, ikastetxeak dituen beste audio- eta bideo-euskarri batzuk ere erabiliko dira, betiere lanbide-egoerak ardatz dituztenak. Halaber, benetako materialarekin lan egingo da (kartak, fakturak, gidak, liburuxkak...), eta web orri ingelesak kontsultatuko dira.

Hizkuntza bat eskuratzea ikastunaren barne-faktore askoren emaitza da, eta pertsona bakoitzak behar, estilo, erritmo eta interes desberdinak ditu. Horregatik, beren beharretara egokitutako hainbat motatako materialak (idatzizkoak, ahozkoak, irudiak, musika, teknologia berriak, eta abar) eskaini behar dira.

Teknologia berriak ezin dira ikaskuntzatik kanpo geratu, lan-munduan eta gizartean ere ez baitira kanpoan geratuko: Internet, posta elektronikoa, burofaxa, etab.

### 3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

Irakasleek dinamizatzailerik eta bideratzaile gisa jardungo dute, ikasgelan ingelesez hitz egin dezaten, egoerak ahalik eta sinesgarrienak izan daitezen. Horretarako, ikasleak ahalik eta gehien inplikatu dituzte ikaskuntzan eta materiala bilatzeko eta erabiltzeko lanetan.

- ✓ Ingurune profesionalarekin lotutako materialak lehentasunez erabiltzea (erabilera-eskuliburuak, liburuxkak, piezen edo produktuen krokisak), eta zenbakiekin, datekin, orduekin eta eskaintako produktuaren edo zerbitzuaren ezaugarri deskribatzaileekin praktikatzeko.
- ✓ Sektoreko enpresei edota produktuei eta zerbitzuei buruzko ingelesezko publizitate-materialak aztertzea, erabilitako hiztegi teknikoak eta adjektiboak barne.
- ✓ Arazo errazak konpontzea: bezero baten galderak, ezbehar txikiak, azalpen zehatzak.
- ✓ Bisitan datorren bezero atzerritar bati enpresaren edo lanpostuaren inguruko informazio laburrak ematea.
- ✓ Unean uneko oharra egitea norbaiti edo norbaiten mandatua uzteko, zereginari buruzko zehaztasunak emateko, entregatzeko datak edo kantitateak adierazteko, sortutako arazoak berri emateko.
- ✓ Lanpostu baterako curriculum vitae aurkeztea motibazio-gutunarekin batera, prentsako edo telebistako lan-iragarki bat ulertzea eta abar.
- ✓ Faktura / ordainketa-gutuna edota bidalketa/entrega baten onarpena aurkeztea eta azaltzea.
- ✓ Ikasgelan lanbidearen egoera bat simulatzen duen ikasle talde baten elkarrizketak bidez grabatzea, geroago aztertzeko.



# 12

## 13. lanbide-modulua

### LANEKO PRESTAKUNTZA ETA ORIENTABIDEA

#### a) Aurkezpena

|                            |   |
|----------------------------|---|
| Lanbide-modulua:           | <b>Laneko prestakuntza eta orientabidea</b>                           |
| Kodea:                     | 0739  |
| Heziketa-zikloa:           | Ahoaren eta hortzen higieena  |
| Maila:                     | Goi-maila   |
| Lanbide-arloa:             | Osasuna   |
| Iraupena:                  | 99 ordu   |
| Kurtsoa:                   | 1   |
| Kreditu kop.:              | 5   |
| Irakasleen espezialitatea: | Laneko prestakuntza eta orientabidea (Bigarren Hezkuntzako irakaslea) |
| Modulu mota:               | Zeharkako modulua   |
| Helburu orokorrak:         | 13 / 14 / 15 / 16 / 17 / 18 / 20                                      |

#### b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Lan-munduratzeko eta bizitza osoan ikasteko hautabideak identifikatu ondoren, lan-aukerak hautatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Etengabeko prestakuntzaren garrantzia baloratu du, enplegatze aukerak zabaltzeko eta produkzio-prozesuaren eskakizunetara egokitzeko funtsezko faktore gisa.
- Tituluaren lanbide-profilari lotutako prestakuntza-ibilbidea eta ibilbide profesionala identifikatu ditu.
- Profilari lotutako lanbide-jarduerarako eskatzen diren gaitasunak eta jarrerak zehaztu ditu.
- Tituludunarentzako enplegu-sorgune eta lan-munduratzeko gune nagusiak identifikatu ditu.
- Lana bilatzeko prozesuan erabiltzen diren teknikak zehaztu ditu.
- Tituluari lotutako lanbide-sektoreetan autoenplegurako aukerak aurreikusi ditu.
- Erabakiak hartzeko nortasuna, helburuak, jarrerak eta norberaren prestakuntza baloratu ditu.

2. Talde-laneko estrategiak aplikatzen ditu, eta erakundearen helburuak lortzeko duten eraginkortasuna baloratzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Profilarri lotutako lan-egoeretan talde-lanak dituen abantailak baloratu ditu.
- b) Benetako lan-egoera batean osa daitezkeen lan-taldeak identifikatu ditu.
- c) Lantalde ez-eraginkorraren aldean, talde eraginkorrak dituen ezaugarriak zehaztu ditu.
- d) Taldekideek bere gain hartutako denetako eginkizunen eta iritzien beharra ontzat baloratu du.
- e) Taldekideen artean gatazkak sortzeko aukera erakundeen bereizgarria dela ikusi du.
- f) Gatazka motak eta horien sorburuak identifikatu ditu.
- g) Gatazkak konpontzeko prozedurak zehaztu ditu.

3. Lan-harremanen ondoriozko eskubideak baliatu eta betebeharrak betetzen ditu, eta lan-kontratuetan horiek onartzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Lan-zuzenbidearen oinarrizko kontzeptuak identifikatu ditu.
- b) Enpresaburuaren eta langileen arteko harremanetan esku hartzen duten erakunde nagusiak bereizi ditu.
- c) Laneko harremanaren ondoriozko eskubideak eta betebeharrak zehaztu ditu.
- d) Kontratazio-modalitate nagusiak sailkatu ditu, eta kolektibo jakin batzuentzat kontratazioa sustatzeko neurriak identifikatu ditu.
- e) Lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egiteko indarrean dagoen legeriak ezarritako neurriak baloratu ditu.
- f) Laneko harremanak aldatu, eten eta deuseztatzearen arrazoiak eta ondorioak identifikatu ditu.
- g) Soldata-ordainagiria aztertu du eta haren osagai nagusiak identifikatu ditu.
- h) Gatazka kolektiboko neurriak eta gatazkak ebazteko prozedurak aztertu ditu.
- i) Tituluarekin zerikusia duen lanbide-sektore bati aplikatzekoa zaion hitzarmen kolektiboan adostutako lan-baldintzak zehaztu ditu.
- j) Lan-antolamenduaren ingurune berrien ezaugarriak identifikatu ditu.

4. Estalitako kontingentzien aurrean, Gizarte Segurantzako sistemaren babes-ekintza zehazten du eta prestazio mota guztiak identifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Herritarren bizi-kalitatea hobetzeko funtsezko oinarri gisa baloratu du Gizarte Segurantzaren eginkizuna.
- b) Gizarte Segurantzak estaltzen dituen kontingentziak adierazi ditu.
- c) Gizarte Segurantzako sistemaren dauden araubideak identifikatu ditu.
- d) Gizarte Segurantzako sistemaren barruan enpresaburuak eta langileak dituzten betebeharrak identifikatu ditu.
- e) Suposizio sinple batean, langilearen kotizazio-oinarriak, eta langilearen eta enpresaburuaren irudiari dagozkion kuotak identifikatu ditu.
- f) Gizarte Segurantzako sistemaren prestazioak sailkatu eta eskakizunak identifikatu ditu.
- g) Legez egon daitezkeen langabezia-egoerak zehaztu ditu.
- h) Oinarrizko kontribuzio-mailari dagokion langabezia-prestazioaren iraupena eta kopurua kalkulatu ditu.

5. Bere jardueraren ondoriozko arriskuak ebaluatzen ditu, lan-ingurune lan-baldintzak eta arrisku-faktoreak aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:



- a) Enpresaren esparru eta jarduera guztietan prebentzioaren kulturak duen garrantzia baloratu du.
- b) Lan-baldintzak langilearen osasunarekin erlazionatu ditu.
- c) Jardueraren arrisku-faktoreak eta horien ondoriozko kalteak sailkatu ditu.
- d) Tituluaren lanbide-profilari lotutako lan-inguruneetan ohikoenak diren arrisku-egoerak identifikatu ditu.
- e) Enpresan dauden arriskuak ebaluatu ditu.
- f) Lanbide-profilari lotutako lan-inguruneetan, prebentziorako garrantzitsuak diren lan-baldintzak zehaztu ditu.
- g) Tituluaren lanbide-profilari lotutako kalte profesionalen motak sailkatu eta deskribatu ditu, bereziki lan-istripuei eta lanbide-gaixotasunei dagokienez.

6. Enpresa txiki batean, arriskuen prebentziorako plana egiten laguntzen du, inplikaturako agente guztien erantzukizunak identifikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Laneko arriskuen prebentzioan dauden eskubide eta betebeharrak nagusiak zehaztu ditu.
- b) Enpresan prebentzioa kudeatzeko moduak sailkatu ditu, laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudian ezarritako irizpideen arabera.
- c) Arriskuen prebentzioari dagokionez, enpresan langileak ordezkatzeko moduak zehaztu ditu.
- d) Laneko arriskuen prebentzioarekin zerikusia duten erakunde publikoak identifikatu ditu.
- e) Enpresan, larrialdirik izanez gero jarraitu beharreko jardun-sekuentziazioa barne hartuko duen prebentzio-plana izatearen garrantzia baloratu du.
- f) Tituludunaren lanbide-sektorearekin lotutako lantoki baterako prebentzio-planaren edukia zehaztu du.
- g) Enpresa txiki edo ertain baterako larrialdi- eta ebakuazio-plan bat pentsatu du.

7. Prebentzio- eta babes-neurriak aplikatzen ditu, eta tituluari lotutako lan-inguruneeko arrisku-egoerak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Kalteak sorburuan saihesteko eta, saihestezinak badira, haien ondorioak ahalik eta gehien murrizteko aplikatu behar diren prebentzio-teknikak, eta norbera eta taldea babestekoak zehaztu ditu.
- b) Mota guztietako segurtasun-seinaleen esanahia eta hedadura aztertu ditu.
- c) Larrialdietarako jardun-protokoloak aztertu ditu.
- d) Larrialdietan, larritasun-maila desberdinetako biktimak daudenean, zaurituak sailkatzeko teknikak identifikatu ditu.
- e) Istripuaren lekuan bertan hainbat kalteren aurrean aplikatu beharreko lehen sorospenetako oinarritzko teknikak identifikatu ditu, baita botikinaren osaera eta erabilera ere.
- f) Langileen osasuna zaintzeko eskakizunak eta baldintzak zehaztu ditu, eta prebentzio-neurri gisa duten garrantzia adierazi du.

## c) Oinarrizko edukiak:

| 1. LAN MUNDURATZEKO ETA BIZIALDI OSOKO IKASKUNTZAKO PROZESUA |   |
|--|---|
| prozedurazkoak   | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Lan-ibilbiderako interes, gaitasun eta motibazio pertsonalak aztertzea.</li> <li>- Tituluari lotutako prestakuntza-ibilbideak identifikatzea.</li> <li>- Tituluaren lanbide-sektorea definitzea eta aztertzea.</li> <li>- Norberaren ibilbidea planifikatzea:               <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Beharrekin eta hobespeneekin bateragarriak izango diren epe ertain eta luzerako lan-helburuak ezartzea.</li> <li>▪ Uneko eta gerorako pentsatutako prestakuntzarekiko helburu errealistak eta koherenteak.</li> </ul> </li> <li>- Ibilbide-planaren, prestakuntzaren eta helburuen arteko koherentzia norberak egiaztatzeke zerrenda bat ezartzea.</li> <li>- Lan-munduratzeko beharrezkoak diren dokumentuak betetzea (aurkezpen-gutuna, curriculum vitae...), eta test psikoteknikoak eta elkarriketa simulatuak egitea.</li> </ul> |
| kontzeptuzkoak   | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Lana bilatzeko teknikak eta tresnak.</li> <li>- Erabakiak hartzeko prozesua.</li> <li>- Sektorereko enpresa txiki, ertain eta handietan lana bilatzeko prozesua.</li> <li>- Europar ikasi eta enplegatzeke aukerak. Europass, Ploteus.</li> </ul>  |
| jarrerazkoak   | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Tituludunaren lan- eta lanbide-ibilbiderako etengabeko prestakuntzak duen garrantzia baloratzea.</li> <li>- Norberaren ikaskuntzaz arduratzea. Eskakizunak eta aurreikusitako emaitzak ezagutzea.</li> <li>- Autoenplegua lan-mundura sartzeko hautabidetzat balioestea.</li> <li>- Lan-munduan egoki txertatzeko lan-ibilbideak baloratzea.</li> <li>- Lanarekiko konpromisoa. Lortutako trebakuntza baliaraztea.</li> </ul>  |

| 2. GATAZKA ETA LANTALDEAK KUDEATZEA |   |
|-------------------------------------|---|
| prozedurazkoak                      | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Antolakundea pertsona talde gisa aztertzea.</li> <li>- Antolamendu-egiturak aztertzea.</li> <li>- Kideek lan-taldean izan ditzaketan eginkizunak aztertzea.</li> <li>- Antolakundeetako gatazken sorrera aztertzea: espazioak, ideiak eta proposamenak partekatzea.</li> <li>- Gatazka motak, esku-hartzaileak eta horien abiapuntuko jarrerak aztertzea.</li> <li>- Gatazkak ebazteke moduak, bitartekotza eta jardunbide egokiak aztertzea.</li> <li>- Lan-taldean sorrera aztertzea.</li> </ul> |
| kontzeptuzkoak                      | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Enpresa baten antolamendu-egitura, xede bat lortzeko pertsona-talde gisa.</li> <li>- Talde motak sektoreke industrian, dituzten eginkizunen arabera.</li> <li>- Lan-taldean sorrera aztertzea.</li> <li>- Komunikazioa, taldeak sortzean arrakasta lortzeko oinarrizko elementu gisa.</li> <li>- Lan-talde eraginkorren ezaugarriak.</li> <li>- Gatazka definitzea: haren ezaugarriak, sorburuak eta etapak.</li> <li>- Gatazkak ebazteke edo ekiditeke metodoak: bitartekaritza,</li> </ul>       |



|                     |   |
|---------------------|---|
|                     | adiskidetzea eta arbitrajea.  |
| <b>jarrerazkoak</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Enpresa-helburuak lortzeko pertsonen ekarpena balioestea.</li> <li>- Antolamenduaren eraginkortasunean talde-lanak dituen abantailak eta eragozpenak balioestea.</li> <li>- Talde-lanerako funtsezko faktoretzat komunikazioa baloratzea.</li> <li>- Lan-taldeetan sor daitezkeen gatazkak ebazteko partaidetzazko jarrera izatea.</li> <li>- Gatazkak ebazteko sistemak aztertzea.</li> </ul> |

### 3. LAN KONTRATUAREN ONDORIOZKO LAN BALDINTZAK

|                       |  |
|-----------------------|--|
| <b>prozedurazkoak</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Lan-zuzenbidearen iturriak aztertzea eta hierarkiaren arabera sailkatzea.</li> <li>- Langileen Estatutuari buruzko Legearen Testu Bateginean arautzen diren lan-jardueren ezaugarriak aztertzea.</li> <li>- Kontratu-modalitate ohikoenak formalizatu eta alderatzea, haien ezaugarrien arabera.</li> <li>- Nomina interpretatzea.</li> <li>- Dagokion lanbide-jarduerako sektorerako hitzarmen kolektiboa aztertzea.</li> </ul>  |
| <b>kontzeptuzkoak</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Lan-zuzenbidearen oinarriko iturriak: Konstituzioa, Europar Batasunaren zuzentarauak, Langileen Estatutua, Hitzarmen Kolektiboa.</li> <li>- Lan-kontratua: kontratuaren elementuak, ezaugarriak eta formalizazioa, gutxieneko edukiak, enpresaburuaren betebeharrak, enpleguari buruzko neurri orokorrak.</li> <li>- Kontratu motak: mugagabeak, prestakuntzakoak, aldi baterakoak, lanaldi partzialekoak.</li> <li>- Lanaldia: iraupena, ordutegia, atsedenaldiak (laneko egutegia eta jaiegunak, oporrak, baimenak).</li> <li>- Soldata: motak, ordinketa, egitura, aparteko ordainsariak, soldataz kanpoko eskuratzekoak, soldata-bermeak.</li> <li>- Soldata kenkariak: kotizazio-oinarriak eta ehunekoak, PFEZa.</li> <li>- Kontratua aldatu, eten eta deuseztatzea.</li> <li>- Ordezkaritza sindikala: sindikatuaren kontzeptua, sindikatzeko eskubidea, enpresa-elkarteak, gatazka kolektiboak, greba, ugazaben itxiera.</li> <li>- Hitzarmen kolektiboa. Negoziazio kolektiboa.</li> <li>- Lan-antolamenduaren ingurune berriak: lana kanporatzea, telelana...</li> </ul> |
| <b>jarrerazkoak</b>   | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Lana arautzeko beharra baloratzea.</li> <li>- Bere jarduera profesionalari dagokion sektorearen lan-harremanetan aplikatzen diren arauak ikasteko interesa izatea.</li> <li>- Aurreikusitako legezko bideak laneko gatazken ebazpide gisa aintzat hartzea.</li> <li>- Langileen kontratazioan etika eskaseko eta legez kanpoko jardunak baztertzea, batez ere premia handienak dituzten kolektiboei dagokienez.</li> <li>- Gizartea hobetzeko agente gisa, sindikatuen eginkizuna aintzat hartu eta balioestea.</li> </ul>  |

#### 4. GIZARTE SEGURANTZA, ENPLEGUA ETA LANGABEZIA

|                |   |
|----------------|---|
| prozedurazkoak | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Gizarte Segurantzako sistema orokorra unibertsala izateak duen garrantzia aztertzea.</li> <li>- Gizarte Segurantzaren prestazioei buruzko kasu praktikoak ebaztea.</li> </ul>  |
| kontzeptuzkoak | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Gizarte Segurantzako sistema: aplikazio-esparrua, egitura, araubideak, erakunde kudeatzaileak eta laguntzaileak.</li> <li>- Enpresaburuen eta langileen betebeharrak nagusiak Gizarte Segurantzaren arloan: afiliazioak, altak, bajak eta kotizazioak.</li> <li>- Babes-ekintza: osasun-asistentzia, amatasuna, aldi baterako ezintasuna eta ezintasun iraunkorra, baliaezintasun gabeko lesio iraunkorrak, erretiroa, langabezia, heriotza eta biziraupena.</li> <li>- Prestazioen motak, eskakizunak eta kopurua.</li> <li>- Langileak euren eskubideen eta betebeharren inguruan aholkatzeko sistemak.</li> </ul> |
| jarrerazkoak   | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Herritarren bizi-kalitatea hobetzeko Gizarte Segurantzaren eginkizuna aintzat hartzea.</li> <li>- Gizarte Segurantzarako kotizazioan nahiz prestazioetan iruzurrezko jokabideak gaitzestea.</li> </ul>   |

#### 5. ARRISKU PROFESIONALAK EBALUATZEA

|                |  |
|----------------|--|
| prozedurazkoak | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Lan-baldintzak aztertu eta zehaztea.</li> <li>- Arrisku-faktoreak aztertzea.</li> <li>- Segurtasun-baldintzei lotutako arriskuak aztertzea.</li> <li>- Ingurumen-baldintzei lotutako arriskuak aztertzea.</li> <li>- Baldintza ergonomikoei eta psikosozialei lotutako arriskuak aztertzea.</li> <li>- Enpresaren arrisku-esparruak identifikatzea.</li> <li>- Lanbide-eginkizunaren araberrako arrisku-protokoloa ezartzea.</li> <li>- Lan-istripuaren eta lanbide-gaixotasunaren artean bereiztea.</li> </ul> |
| kontzeptuzkoak | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Arrisku profesionalaren kontzeptua.</li> <li>- Enpresan arriskuak ebaluatzea, prebentzio-jardueraren oinarriko elementu gisa.</li> <li>- Profilari lotutako lan-ingurunearen berariazko arriskuak.</li> <li>- Antzemandako arrisku-egoeren ondorioz langilearen osasunean eragin daitezkeen kalteak.</li> </ul>   |
| jarrerazkoak   | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Lanbide-jardueraren fase guztietan prebentzioaren kulturak duen garrantzia.</li> <li>- Lanaren eta osasunaren arteko lotura balioestea.</li> <li>- Prebentzio-neurriak hartzeko interesa azaltzea.</li> <li>- Enpresan prebentziorako prestakuntza ematearen garrantzia balioestea.</li> </ul>  |

#### 6. ENPRESAN ARRISKUEN PREBENTZIOA PLANIFIKATZEA

|                |   |
|----------------|---|
| prozedurazkoak | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Planifikazio- eta sistematizazio-prozesuak bideratzea, oinarriko prebentzio-erreminta gisa.</li> <li>- LAP Laneko Arriskuaren Prebentziora buruzko oinarriko araua aztertzea.</li> </ul> |
|----------------|---|



|                       |   |
|-----------------------|---|
|                       | <ul style="list-style-type: none"> <li>- LAParen arloko egitura instituzionala aztertzea.</li> <li>- Lan-ingurunerako larrialdi-plan bat egitea.</li> <li>- Zenbait larrialdi-plan bateratu eta aztertzea.</li> </ul>   |
| <b>kontzeptuzkoak</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Lanak giza osasunean eta segurtasunean dituen ondorioak.</li> <li>- Eskubideak eta betebeharrak laneko arriskuen prebentzioaren arloan.</li> <li>- Erantzukizunak laneko arriskuen prebentzioaren arloan.</li> <li>- LAPean eta osasunean esku hartzen duten agenteak eta horien eginkizunak.</li> <li>- Prebentzioaren kudeaketa enpresan.</li> <li>- Langileen ordezkariak prebentzioaren arloan (LAPeko oinarrizko teknikaria).</li> <li>- Laneko arriskuen prebentzioarekin zerikusia duten erakunde publikoak.</li> <li>- Prebentzioaren plangintza enpresan.</li> <li>- Larrialdi- eta ebakuazio-planak lan-inguruneetan.</li> </ul> |
| <b>jarrerazkoak</b>   | <ul style="list-style-type: none"> <li>- LAParen garrantzia eta beharra baloratzea.</li> <li>- LAPeko eta LO Laneko Osasuneko agente gisa duen posizioa baloratzea.</li> <li>- Erakunde publikoak eta pribatuak LOan errazago sartzeko egindako aurrerapenak baloratzea.</li> <li>- Dagokion kolektiboaren larrialdi-planari buruzko ezagutza baloratu eta zabaltzea.</li> </ul>  |

| <b>7. ENPRESAN PREBENTZIO ETA BABES NEURRIAK APLIKATZEA</b> |  |
|---|--|
| <b>prozedurazkoak</b>                                       | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Norbera babesteko teknikak identifikatzea.</li> <li>- Norbera babesteko neurriak erabiltzeko garaian enpresak eta banakakoak dituzten betebeharrak aztertzea.</li> <li>- Lehen laguntzetako teknikak aplikatzea.</li> <li>- Larrialdi-egoerak aztertzea.</li> <li>- Larrialdietarako jardun-protokoloak egitea.</li> <li>- Langileen osasuna zaintzea.</li> </ul> |
| <b>kontzeptuzkoak</b>                                       | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Banako eta taldeko prebentzio- eta babes-neurriak.</li> <li>- Larrialdi-egoera batean jarduteko protokoloa.</li> <li>- Larrialdi medikoa / lehen laguntzak. Oinarrizko kontzeptuak.</li> <li>- Seinale motak.</li> </ul>  |
| <b>jarrerazkoak</b>   | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Larrialdien aurreikuspena balioestea.</li> <li>- Osasuna zaintzeko planen garrantzia baloratzea.</li> <li>- Proposatutako jardueretan bete-betean parte hartzea.</li> </ul>   |

### d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, gomendio hauek iradokitzen ditugu:

#### 1) Sekuentziazioa

Edukiak sekuentziatu eta antolatzeko proposamen hau ikasleak egiten ari den heziketa-zikloa amaitzean jarraituko duen lan-munduratzeko ibilbidearen logikan oinarritzen da, hau da: zikloa amaitzen duenetik lana lortu eta lan horretan finkatu arte edota lan-harremana amaitu arte eman beharko dituen urratsak.

Ikasleak jarraituko duen ibilbideak 4 une hauek izango ditu:

- a) Lana bilatzea.
- b) Enpresan sartzeta eta egokitze aldia.
- c) Lanpostuan jardutea.
- d) Lan-harremana amaitzea eta enpresa uztea.

a) Lana bilatzea:

Heziketa-zikloa amaitu ondoren ikasleak egin beharreko lehen gauza lana bilatzea da, eta hori da LPO moduluaren hasieran eduki horiek garatzeko proposamenaren arrazoia. Zehazki, gai hauei buruzko edukiak garatuko dira:

- Lanbide-proiektua eta -helburua.
- European lan egin eta ikasteko aukerak.
- Lan publikoan, pribatuan edo norberaren konturakoan sartzeta.
- Lana bilatzeko informazio-iturriak.

b) Enpresan sartzeta eta egokitze aldia:

Jarraian, ikasleak lana bilatzeko prozesuan arrakasta izan badu, enpresan sartzeko garaia iritsiko zaio. Lan-bizitzaren aldi horretan, eduki hauekin lotutako gaitasunak erabili beharko ditu:

- Lan-zuzenbidea eta haren iturriak.
- Lan-harremanen ondoriozko eskubideak.
- Kontratazio-modalitateak eta kontratazioa bultzatzeko neurriak.
- Gizarte Segurantzako sistema.
- Laneko hitzarmen kolektiboak.
- Enpresan sartzeko informazio-iturriak.

c) Lanpostuan jardutea:

Lanpostu berrian sartu eta egokitze aldi gaitasunak, lanpostuan jarduteko aldia etorriko da. Aldi horrek legez jasotako edozein supoziotan lan-harremana amaitu arte iraungo du. Hona hemen aldi horrekin lotutako edukiak:

- Lan-baldintzak: soldata, lanaldia eta lan-atsedenaldia.
- Soldataren edo nominaren agiria eta horren edukiak.
- Gizarte Segurantzaren prestazioak eta izapideak.
- Kontratu aldatu eta etetea.
- Langileak euren eskubideen eta betebeharren inguruan aholkatzea.
- Langileen ordezkariak.
- Negoziazio kolektiboak.
- Laneko gatazka kolektiboak.
- Talde-lana.
- Gatazka.
- Lan-antolamenduaren ingurune berriak.
- Langileentzako onurak antolamendu berrietan.
- Arrisku profesionalak.
- Prebentzio- eta babes-neurriak planifikatu eta aplikatzea.

d) Lan-harremana amaitzea eta enpresa uztea:

Lan-harremana amaituz gero, ikasleak aldi horri aurre egiteko beharrezko gaitasunak izan beharko ditu. Eduki hauek garatu behar dira:

- Lan-kontratu deuseztatzea eta horren ondorioak.
- Hartzekoan likidazioa edo kitatzea.



- Gizarte Segurantzarekin lotutako izapideak: bajak.
- Kontzeptua eta egoera babesgarriak langabezia-babesean.
- Langileak euren eskubideen eta betebeharren inguruan aholkatzeko sistemak.

Lan-harremana amaitzegatik ikasleak enpresan jarraitzen ez badu, lana bilatzeko prozesuari ekin beharko dio berriz ere, enpresan sartzeko aldi berri bat hasiko du, etab.

## 2) Alderdi metodologikoak

Hasieran, egokia dirudi irakasleak moduluaren edukiak aurkeztu eta garatzea, hurbileneko gizarte- eta ekonomia-ingurunea erreferente gisa hartuta betiere.

Bigarren fasean, garrantzi handiagoa emango zaio ikaslearen partaidetza eraginkorrari. Horretarako, kontzeptuak zehazteko, eta abileziak eta trebeziak garatzeko bidea emango dioten jarduerak egingo dira, taldeka nahiz banaka: ikasleen esperientzia pertsonalen berri ematea, prentsako albisteak erabiltzea, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) erabilera.

Talde-lanari eta sortzen diren gatazkei buruzko atala jorratzeko, ikasgelaren ingurunean izaten diren gatazkak, ikasle eta irakasleen arteko harremanak, familiako eta lagunen arteko gatazkak... erabil daitezke aldean portaerak eta arazoaren konponbideak aztertzeko.

Modulua garatzean, egokia dirudi adituen laguntzara jotzea (enpresa-batzordeetako kideak, sindikatu-etako ordezkariak, lan-arloko abokatuak eta abar), laneko egoerak eta gatazkak hurbiletik ezagutzeko.

Laneko arriskuen prebentzioari dagokionez, egokia dirudi lehen sorospenetako eta suteak itzaltzeko praktikak egitea, lantokietara bisitak egitea eta abar. Horretarako, erakundearen laguntza behar da, hala nola: Gurutze Gorria, Osalan, Lan Ikuskaritza, suteak itzaltzeko zerbitzuak eta abar. Kontuan izan behar da ikasleak, modulua gainditu ondoren, laneko arriskuen prebentzioko oinarritzko mailako jardueretarako beharrezkoak diren lanbide-erantzukizunak hartzen dituela.

Gainera, metodologiari dagokionez, komeni da moduluaren edukiak metodologia aktiboen bidez garatzea, esaterako: talde-lana eta PBL-AOI arazoetan oinarritutako ikaskuntza.

Azkenik, lana bilatzeko teknikak behar bezala garatzeko, komenigarria litzateke kasu praktikoa bat aurrera eramatea eta ikasleek benetako enplegu-bilaketa egitea simulatzea: horretarako normalean erabiltzen diren dokumentuak egingo dituzte (curriculum, aurkezpen-gutuna) eta komunikabide ohikoenetan agertzen diren lan-eskaintzak aukeratu dituzte.

## 3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Erreferentziazko produkzio-sektorea deskribatzea:
  - Erreferentziazko produkzio-sektorearen bilakaera aztertzea.
  - Sektorian enplegatzeak aukerak identifikatzea.
  - Estatistikak eta taula makroekonomikoak erabiltzea.
- ✓ Lan-harremanen motak eta lan-kontratazioen modalitateak identifikatzea:
  - Lan-zuzenbidearen iturriak aztertzea.

- Lan-kontratazioaren formak identifikatzea.
- Lan-kontratuaren ondoriozko eskubideak eta betebeharrak identifikatzea (gizarte-babeseko sistema barne dela).
- ✓ Lantaldeak eta gatazkak ebazteko teknikak zehaztea:
  - Lantaldeen tipologia identifikatzea.
  - Gatazkak eta horiek ebazteko moduak aztertzea.
- ✓ Lanbide-jardunaren ondoriozko arrisku motak identifikatzea:
  - Lanbide-jardunak berekin dakartzan arriskuak ebaluatzea.
  - Laneko arriskuen prebentzio-teknikak identifikatzea.
- ✓ Prebentzio-plan jakin bat diseinatzea eta dauden beste batzuekin alderatzea:
  - Lehen laguntzetan erabiltzen diren teknikak identifikatzea.
- ✓ Lana bilatzeko erabiltzen diren baliabide motak deskribatzea:
  - Lana bilatzeko prozesuaren faseak identifikatzea.
  - Lana lortzeko beharrezko dokumentazioa betetzea.
  - IKTak lana bilatzeko tresna gisa erabiltzea.
  - Bizialdi osoko ikaskuntzaren garrantzia baloratzea.



# 14. lanbide-modulua

## ENPRESA ETA EKIMEN SORTZAILEA

### a) Aurkezpena

|                            |   |
|----------------------------|---|
| Lanbide-modulua:           | <b>Enpresa eta ekimen sortzailea</b>                                  |
| Kodea:                     | 0740  |
| Heziketa-zikloa:           | Ahoaren eta hortzen higieena  |
| Maila:                     | Goi-maila   |
| Lanbide-arloa:             | Osasuna   |
| Iraupena:                  | 60 ordu   |
| Kurtsoa:                   | 2   |
| Kreditu kop.:              | 4   |
| Irakasleen espezialitatea: | Laneko prestakuntza eta orientabidea (Bigarren Hezkuntzako irakaslea) |
| Modulu mota:               | Tituluaren profilari lotutako modulua.                                |
| Helburu orokorrak:         | 12 / 13 / 14 / 15 / 17 / 19 / 20                                      |

### b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Ekimen sortzaileari lotutako gaitasunak ezagutu eta aintzat hartzen ditu, eta lanpostuen eta enpresa-jardueren ondoriozko eskakizunak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Berrikuntzaren kontzeptua, eta gizartearen aurrerabidearekin eta pertsonen ongizatea areagotzearekin duen lotura identifikatu du.
- Kultura ekintzailearen kontzeptua, eta enpleguaren eta gizarte-ongizatearen sorburu gisa duen garrantzia aztertu du.
- Norberaren ekimenaren, sormenaren, prestakuntzaren eta lankidetzaren garrantzia baloratu du, jarduera ekintzailean arrakasta lortzeko ezinbesteko eskakizuntzat.
- Sektoreko enpresa txiki eta ertain bateko enpleguaren lanerako ekimena aztertu du.
- Sektorean hasten den enpresaburu baten jarduera ekintzailea nola garatzen den aztertu du.
- Jarduera ekintzaile oren elementu saihestezintzat aztertu du arriskuaren kontzeptua.
- Enpresaburuaren kontzeptua, eta enpresa-jarduera garatzeko beharrezko eskakizunak eta jarrerak aztertu ditu.

2. Enpresa txiki bat sortzeko aukera zehazten du, enpresa-ideia aukeratzen du eta haren bideragarritasuna oinarritzen duen merkatu-azterketa egiten du, jardun-ingurunearen gaineko eragina baloratuta eta balio etikoak gaineratuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Negozio-ideiak sortzeko prozesu bat garatu du.
- b) Tituluarekin lotutako negozio baten esparruan ideia jakin bat hautatzeko prozedura sortu du.
- c) Hautatutako negozio-ideiaren inguruko merkatu-azterketa egin du.
- d) Merkatu-azterketatik ondorioak atera ditu eta garatu beharreko negozio-eredua ezarri du.
- e) Negozio-proposamenaren balio berritzaileak zehaztu ditu.
- f) Enpresen gizarte-erantzukizunaren fenomeno eta enpresa-estrategiaren elementu gisa duen garrantzia aztertu ditu.
- g) Tituluarekin zerikusia duen enpresa baten balantze soziala egin du, eta sorrarazten dituen kostu eta mozkin sozial nagusiak deskribatu ditu.
- h) Sektoroko enpresetan, balio etikoak eta sozialak gaineratzen dituzten ohiturak identifikatu ditu.
- i) Tituluarekin zerikusia duen enpresa txiki eta ertain baten bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioari buruzko azterketa egin du.
- j) Enpresa-estrategia deskribatu du eta enpresaren helburuekin lotu du.

3. Enpresa-plan bat egiteko eta, ondoren, hura abiarazi eta eratzeko jarduerak egiten ditu. Dagokion forma juridikoa hautatzen du eta, horren arabera, legezko betebeharrak identifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Enpresa baten oinarritzko funtzioak deskribatu ditu eta enpresari aplikatutako sistemaren kontzeptua aztertu du.
- b) Enpresaren ingurune orokorraren osagai nagusiak identifikatu ditu, batik bat, ingurune ekonomiko, sozial, demografiko eta kulturalarenak.
- c) Berariazko ingurunearen osagai nagusi diren heinean, bezeroekiko, hornitzaileekiko eta lehiakideekiko harremanek enpresa-jardueran duten eragina aztertu du.
- d) Sektoroko ETE baten ingurunearen elementuak identifikatu ditu.
- e) Enpresa-kulturaren eta irudi korporatiboaren kontzeptuak, eta horiek enpresa-helburuekin duten lotura aztertu ditu.
- f) Enpresaren forma juridikoak aztertu ditu.
- g) Hautatutako forma juridikoaren arabera, enpresaren jabeek legez duten erantzukizun-maila zehaztu du.
- h) Enpresen forma juridiko bakoitzarentzat ezarritako tratamendu fiskala bereizi du.
- i) Indarrean dagoen legeriak ETE bat eratzeko exijitutako izapideak aztertu ditu.
- j) Erreferentziazko herrian sektoreko enpresak sortzeko dauden laguntza guztiak bilatu ditu.
- k) Enpresa-planean, forma juridikoa aukeratzearekin, bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioarekin, administrazio-izapideekin, diru-laguntzekin eta bestelako laguntzekin zerikusia duen guztia barne hartu du.
- l) ETE bat abian jartzeko dauden kanpoko aholkularitza eta administrazio-kudeaketako bideak identifikatu ditu.

4. ETE baten oinarritzko kudeaketa administratibo eta finantzarioko jarduerak egiten ditu: kontabilitate- eta zerga-betebehar nagusiak identifikatzen ditu, eta dokumentazioa betetzen du.

Ebaluazio-irizpideak:



- Kontabilitatearen oinarrizko kontzeptuak eta kontabilitate-informazioa erregistratzeko teknikak aztertu ditu.
- Kontabilitate-informazioa aztertzeke oinarrizko teknikak deskribatu ditu, batez ere, enpresaren kaudimenari, likidezari eta errentagarritasunari dagokienez.
- Tituluarekin zerikusia duen enpresa baten zerga-betebeharrak zehaztu ditu.
- Zerga-egutegian zerga motak bereizi ditu.
- Sektoreko enpresa txiki eta ertain batentzako merkataritza eta kontabilitateko oinarrizko dokumentazioa bete du (fakturak, albaranak, eskabide-orriak, kanbio-letrak, txekeak eta bestelakoak), eta dokumentazio horrek enpresan egiten duen bidea deskribatu du.
- Banku-finantzaketako tresna nagusiak identifikatu ditu.
- Dokumentazio hori enpresa-planean barne hartu du.

### c) Oinarrizko edukiak:

| 1. EKIMEN SORTZAILEA |  |
|----------------------|--|
| prozedurazkoak       | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Tituluari lotutako sektorearen jardueran berrikuntzak dituen ezaugarri nagusiak aztertzea (materialak, teknologia, prozesuaren antolamendua, etab.).</li> <li>- Ekintzaileen faktore garrantzitsuenak aztertzea: ekimena, sormena, lidergoa, komunikazioa, erabakiak hartzeko ahalmena, plangintza eta prestakuntza.</li> <li>- Jarduera ekintzailean arriskua ebaluatzea.</li> </ul>   |
| kontzeptuzkoak       | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Sektoreko berrikuntza eta garapen ekonomikoa.</li> <li>- Kultura ekintzailea gizarte-behar gisa.</li> <li>- Enpresaburu kontzeptua.</li> <li>- Ekintzaileen jarduna sektoreko enpresa bateko enplegatua gisa.</li> <li>- Ekintzaileen jarduna enpresaburu gisa.</li> <li>- Ekintzaileen arteko lankidetzak.</li> <li>- Enpresa-jardueran aritzeko eskakizunak.</li> <li>- Negozio-ideia lanbide-arloaren esparruan.</li> <li>- Kultura ekintzaileari lotutako jardunbide egokiak tituluari dagokion jarduera ekonomikoan eta toki-esparruan.</li> </ul> |
| jarrerazkoak         | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Izaera ekintzailea eta ekintzaitzaren etika baloratzea.</li> <li>- Ekimena, sormena eta erantzukizuna balioestea ekintzaitzaren bultzatzaile gisa.</li> </ul>   |

| 2. ENPRESA IDEIAK, INGURUNEA ETA HAIEN GARAPENA |   |
|---|---|
| prozedurazkoak                                  | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Enpresa-ideiak zehazteko erremintak aplikatzea.</li> <li>- Internet bidez, sektoreko enpresei buruzko datuak bilatzea.</li> <li>- Garatu beharreko enpresaren ingurune orokorra aztertzea.</li> </ul>  |
| kontzeptuzkoak                                  | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Lanbide-arloko ereduak enpresa bat aztertzea.</li> <li>- Ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak identifikatzea.</li> <li>- Merkatu-azterketaren ondorioetatik abiatuta, negozio-eredua ezartzea.</li> <li>- Erabakitako ideien gainean berrikuntza-eraketak egitea.</li> </ul> |

|              |  |
|--------------|--|
|              | <ul style="list-style-type: none"> <li>osoarekiko (garapen jasagarria).</li> <li>- Lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egitea.</li> <li>- Sektorereko enpresen erantzukizun soziala eta etikoa.</li> <li>- Merkatu-azterketa: ingurunea, bezeroak, lehiakideak eta hornitzaileak.</li> </ul> |
| jarrerazkoak | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Enpresaren balantze soziala aintzat hartu eta baloratzea.</li> <li>- Genero-berdintasuna errespetatzea.</li> <li>- Enpresa-etika baloratzea.</li> </ul>   |

### 3. ENPRESA BATEN BIDERAGARRITASUNA ETA ABIARAZTEA

|                |  |
|----------------|--|
| prozedurazkoak | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Marketin-plana ezartzea: komunikazio-politika, prezioen politika eta banaketaren logistika.</li> <li>- Produkzio-plana prestatzea.</li> <li>- Sektorereko enpresa baten bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta finantzarioa aztertzea.</li> <li>- Enpresaren finantzaketa-iturriak aztertzea eta haren aurrekontua egitea.</li> <li>- Forma juridikoa hautatzea. Tamaina eta bazkide kopurua.</li> </ul> |
| kontzeptuzkoak | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Enpresaren kontzeptua. Enpresa motak.</li> <li>- Enpresa baten funtsezko elementuak eta arloak.</li> <li>- Zerga arloa enpresetan.</li> <li>- Enpresa bat eratzeko administrazio-izapideak (Ogasuna eta Gizarte Segurantzza, besteak beste).</li> <li>- Lanbide-arloko enpresentzako diru-laguntzak, bestelako laguntzak eta zerga-pizgarriak.</li> <li>- Enpresaren jabeek duten erantzukizuna.</li> </ul> |
| jarrerazkoak   | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Proiektuaren bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa zorrotasunez ebaluatzea.</li> <li>- Administrazio- eta legezko izapideak betetzea.</li> </ul>   |

### 4. ADMINISTRAZIO FUNTZIOA

|                |   |
|----------------|---|
| prozedurazkoak | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Kontabilitate-informazioa aztertzea: diruzaintza, emaitzen kontua eta balantzea.</li> <li>- Dokumentu fiskalak eta lanekoak betetzea.</li> <li>- Merkataritza-dokumentuak betetzea: fakturak, txekueak, letrak, etab.</li> </ul>   |
| kontzeptuzkoak | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Kontabilitatearen kontzeptua eta oinarrizko ideiak.</li> <li>- Kontabilitatea, egoera ekonomikoaren irudi zehatz gisa.</li> <li>- Enpresen legezko betebeharrak (fiskalak, lanekoak eta merkataritzakoak).</li> <li>- Dokumentu ofizialak aurkezteko eskakizunak eta epeak.</li> </ul> |
| jarrerazkoak   | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Sortutako administrazio-dokumentuei dagokienez, antolamendua eta ordena baloratzea.</li> <li>- Administrazio- eta legezko izapideak betetzea.</li> </ul>   |

#### d) Orientabide metodologikoak



Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, gomendio hauek iradokitzen ditugu:

### 1) Sekuentziarioa

Modulu honi ekiteko, komenigarria litzateke ikaslea jarrera ekintzailearekin mentalizatzea, bai norberaren konturako bai besteren konturako langile gisa.

Ondoren, enpresa-ideien inguruan gogoeta eginaraziko zaio eta ideia horiek hautatzeko metodologia egokiak erakutsiko zaizkio. Lehenetsunez, dagokion lanbide-arloaren ingurunean lan egingo dute; baina, hala ere, ez dira baztertzen beste lanbide-sektore batzuk.

Enpresa-idea garatzen jarraituko da: merkatu-azterketa egin, negozio-idea jorratu, ideia horren euskarri den enpresa diseinatu eta, ikuspegi sozialetik, etikotik eta ingurumenetik, ingurunearen gaineko eragina baloratu.

Enpresa-plana egingo da. Horretarako, haren bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta finantzarioa, eta beste alderdi batzuk, besteak beste, Marketin Plana, giza baliabideak, forma juridikoa, eta abar aztertuko dira.

Azkenik, kontabilitatearen, zergen eta administrazio-kudeaketaren inguruko oinarriko kontzeptuak azalduko zaizkio ikasleari.

### 2) Alderdi metodologikoak

Modulu honetan, irakasleak entrenatzaile-lana egingo du batik bat. Proiektuen tutoretza eramango du eta, taldearen beharren arabera, bideratzaile gisa jardungo du.

Irakasleak helburuak aurkeztu eta bideari ekiteko beharrezko ezagupenei buruzko sarrera laburra egin ondoren, ikasleak berak landuko du enpresa-proiektua arian-arian, bere konturako nahiz besteren konturako ekintzailetza-gaitasunak bereganatzearen.

Ikasleak bere proiektuan aurrera egiten duen neurrian, irakasleak beharrezkoak diren ezagupenak sartuko ditu, azalpenen bidez edota ikasgelan garatutako jardueren bidez. Ikasleari liburu edo artikulua jakin batzuk ere irakurraraziko dizkio, ondoren haien edukia kurtsoko proiektura egokitu ditzan.

Irakasleak ikasleen ikasteko prozesuaren jarraipen hurbilekoa eta banan-banakoa egin behar du. Horretarako, kontrol-zerrenda batean, aurrerapenak eta zailtasunak idatziz jaso behar ditu sistematikoki.

### 3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Ekintzaile-mentalizazioan sentsibilizatzea:
  - Euskal Herriko enpresa-ehuna identifikatzea. Sectoreak, tamaina, forma juridikoak, etab.
  - Enpresaburuaren ezaugarriak eta gaitasunak jasoko dituen erretratua egitea.
  - Enpresaburu izatearen abantailak eta eragozpenak bilduko dituen taula egitea.
  - Sectorean alderdi berritzaile txikiak identifikatzea.
  - Besteren konturako ekintzailearen, norberaren konturako ekintzailearen eta gizarte-ekintzailearen arteko desberdintasunak eta antzekotasunak aztertzea, talde-laneko indukzio-tekniken bidez.
- ✓ Enpresa-ideiak garatzea:
  - Merkatuaren beharrei erantzungo dieten negozio-ideiekin taula bat egitea.

- Lantaldeak sortzea eta horiek garatu beharreko ideiak hautatzea.
  - Merkatu-azterketa bat egitea, ingurunea behatuta, Internet erabilia, etab.
  - Hautatutako negozioarako AMIA (ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak) matrizea egitea.
  - Ideiari alderdi sortzaileak eta berritzaileak aplikatzea.
  - Negozio-eredua prestatzea, alderdi etikoak, sozialak eta ingurumenekoak kontuan izanda.
- ✓ Enpresa baten bideragarritasuna eta abiaraztea:
- Ezarritako ereduari jarraituz enpresa-plan bat egitea.
  - Finantza-erakunde bati mailegua eskatzea (ahal dela, benetako izapideen bidez).
  - Enpresak eratzeko inprimakiak betetzea.
  - Internet erabilia, diru-laguntzak eta bestelako laguntzak bilatu eta aztertzea.
  - Enpresa-planak bateratu eta defendatzea.
- ✓ Administrazio-izapideak aztertu eta betetzea:
- Diruzaintzako plan bat, emaitzen kontua eta egoera-balantzea aztertzea.
  - Dokumentu fiskalak eta lanekoak betetzea.
  - Merkataritza-dokumentuak betetzea: fakturak, txekeak, letrak, etab.



## 15

## 15. lanbide-modulua

## LANTOKIKO PRESTAKUNTZA

## a) Aurkezpena

|                            |  |
|----------------------------|--|
| Lanbide-modulua:           | <b>Lantokiko prestakuntza</b>  |
| Kodea:                     | 0741   |
| Heziketa-zikloa:           | Ahoaren eta hortzen higieena   |
| Maila:                     | Goi-maila  |
| Lanbide-arloa:             | Osasuna  |
| Iraupena:                  | 360 ordu   |
| Kurtsoa:                   | 2  |
| Kreditu kop.:              | 22   |
| Irakasleen espezialitatea: | Prozesu sanitarioak<br>(Bigarren Hezkuntzako irakaslea)<br>Osasun- eta laguntza-prozedurak<br>(Lanbide Heziketako irakasle teknikoa) |
| Modulu mota:               | Lanbide-profilari lotua  |
| Helburu orokorrak:         | Guztiak  |

## b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Enpresaren egitura eta antolamendua identifikatzen ditu, eta horiek enpresak egiten duen zerbitzu motarekin erlazionatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Enpresaren antolamendu-egitura eta arlo bakoitzaren eginkizunak identifikatu ditu.
- Enpresaren egitura sektorean dauden eredu-zko enpresa-antolamenduekin alderatu du.
- Zerbitzuaren ezaugarriak eta bezero mota enpresa-jardueraren garapenarekin lotu ditu.
- Zerbitzugintza garatzeko lan-prozedurak identifikatu ditu.
- Jarduera behar bezala garatzeko giza baliabideen beharrezko kompetentziak baloratu ditu.
- Jarduera honetan ohikoenak diren hedabideen egokitasuna identifikatu du.

2. Lanbide-jarduera garatzean ohitura etikoak eta lanekoak aplikatzen ditu, lanpostuaren ezaugarrien eta enpresan xedatutako prozeduren arabera.

Ebaluazio-irizpideak:

- Aintzat hartu eta justifikatu ditu:

- Lanpostuan beharrezkoa den langileen eta denboraren eskuragarritasuna.
  - Lanposturako beharrezkoak diren jarrera pertsonalak (puntueltasuna, enpatia, besteak beste) eta profesionalak (besteak beste, ordena, garbitasuna eta erantzukizuna).
  - Jarrerazko eskakizunak lanbide-jarduerak dituen arriskuen prebentzioaren aurrean.
  - Lanbide-jardueraren kalitatearekin zerikusia duten jarrerazko eskakizunak.
  - Lantaldearekin eta enpresan ezarritako hierarkiekin lotutako jarrerak.
  - Lanaren esparruan egiten diren jardueren dokumentazioarekin zerikusia duten jarrerak.
  - Profesionalaren jardun egokiarekin lotuta, esparru zientifikoan eta teknikoan laneratzeko eta berriro laneratzeko prestakuntza-beharrak.
- b) Laneko arriskuen prebentzioari buruzko arauak identifikatu ditu, baita lanbide-jardueran aplikatzekoa den Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen oinarritzko alderdiak ere.
- c) Lanbide-jarduerak dituen arriskuen arabera eta enpresaren arauen arabera jarri ditu abian norbera babesteko ekipamenduak.
- d) Garatu dituen jardueretan ingurumena errespetatzeko jarrera izan du.
- e) Antolatuta, garbi eta oztoporik gabe mantendu du lanpostua edo jarduera garatzeko eremua.
- f) Zuzendu zaion lanaz arduratu da, jasotako argibideak interpretatuz eta betez.
- g) Egoera bakoitzean ardura duen pertsonarekin eta taldekideekin komunikazio eraginkorra ezarri du.
- h) Gainerako taldekideekin koordinatu da eta sortzen diren gertakaririk adierazgarrienak komunikatu ditu.
- i) Bere jardueraren garrantzia eta zereginen aldaketetara egokitzeko beharra baloratu du.
- j) Lana garatzean arauak eta prozedurak aplikatzeaz arduratu da.

### 3. Administrazio- eta harrera-jarduerak betetzen ditu, eta kudeaketan parte hartzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Jendea artatu du harreran eta telefonoz.
- b) Pazienteei hitzordua eman die, eta hitzorduak aldatu ditu.
- c) Erabiltzaileen fitxategia euskarri egokian erabili du.
- d) Dokumentazioa hortz-zerbitzuan edo -klinikian ezarritako prozeduren arabera gorde du.
- e) Materialen izakinen maila kabinetearen beharrak estaltzeko egokia dela egiaztatu du.
- f) Laguntza-interbentzioaren berri eman dio erabiltzaileari.
- g) Eskariak ezarritako moduan eta unean egin ditu.
- h) Materiala eta produktuak biltegitatu eta dagokion arloari banatu dizkio.
- i) Kudeaketako aplikazio informatikoak abiapuntu izanik, jardueren txostenak eta laburpenak lortu ditu.
- j) Bere lanbide-jarduerako berezko ekipoak mantentzeko jarduerak egin ditu.

### 4. Kontsulta prestatzen eta antolatzen du, kontuan hartuta programatutako laguntza-interbentzioak.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Hortz-ekipoaren funtzionamendu egokia egiaztatu du.
- b) Tresna eta material egokiak hautatu ditu, programatutako interbentzioarekin arabera.



- c) Pertsona hortz-besaulkian jarri da, bere beharren arabera.
- d) Pazienteari egingo zaion tratamenduari buruzko guztia jakinarazi zaio.
- e) Aho-hortzen barrunbea ebakuntzarako eta argiztapenerako baldintza egokietan eduki du.
- f) Sasoiz eman dio medikuari behar zuen tresneria.
- g) Botatzekoa den materiala segurtasun- eta asepsia-baldintzen arabera kendu ditu.
- h) Tresneria garbitu, desinfektatu eta esterilizatu du, eta, horretarako, manipulazio-arauak eta kutsadura-kontrola bete ditu.
- i) Datu Pertsonalak Babesteko Legea bete du.

5. Aho-hortzen barrunbearen miaketak egiten ditu, protokoloen arabera, eta, horretarako, osasun- edo gaixotasun-egoera identifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Anamnesia egin du.
- b) Aho-hortzen barrunbea miatu du, irizpide diagnostikoen eta ezarritako segurtasun-neurrien arabera.
- c) Aparatu estomatognatikoaren anomalia eta patologia ohikoak antzeman ditu.
- d) Historia klinikoan eskuratutako datuak erregistratu ditu, ezarritako kodeei jarraiki.
- e) Lan-prozeduran ezarritako aho-hortzen osasun-adierazleak kalkulatu ditu.
- f) Listu-testen azterlanetik lortutako datuak erregistratu ditu.
- g) Hortzen erradiografiak eskuratu ditu.
- h) Irudiaren tratamendu digitala egin du.
- i) Erradiografiak errebelatu ditu.
- j) Erradiografiak artxibatu ditu, enpresaren arau eta irizpideen arabera.

6. Aho-hortzetako interbentzioko laguntza-jarduerak egiten ditu, eta, horretarako, ezarritako protokoloak aplikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Beharrezko ekipoak eta materiala hautatu ditu.
- b) Hobiak eta arrailadurak zigilatu ditu.
- c) Fluoruro topikoak aplikatu ditu.
- d) Obturazioak leundu ditu.
- e) Hortzetako lertzoa eta tindaketa ezabatu ditu.
- f) Erabilitzaileari aho-hortzen higienearen teknikei buruzko eta horretarako erabilitako produktuei buruzko informazioa eman dio.
- g) Protesi- eta ortodontzia-aparatuen mantentze-lanak egin ditu.
- h) Segurtasun-arauak eta kutsadura-kontrolak errespetatu ditu.
- i) Pazienteen jarraipen- eta berrikuspen-protokoloa egin du.

7. Osasun-hezkuntzako eta aho-hortzen osasuna sustatzeko jarduerak egiten ditu, eta aplikazio-eremuekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Aho-hortzen osasun-mailaren gaineko informazioa eskuratu du, osasuna sustatzeko jarduerak egiteko.
- b) Banakoen eta taldeen aho-hortzen osasun-mailak identifikatu ditu, eta, horretarako, azterketa epidemiologikoetan eskuratutako emaitzak interpretatu ditu.
- c) Aho-hortzen osasunaren heziketa- eta sustapen-jarduerak programatu ditu, egoera eta pertsonen arabera.

- d) Informazioa emateko eta osasunaren heziketa- eta sustapen-ekintzak egiteko baliabideak erabili ditu.
- e) Informazio- eta motibazio-teknika egokiak erabili ditu.
- f) Jarduera inplikaturako pertsonetara egokitu du.

### c) Lanpostuko ikaskuntza-egoerak

Jarraian, lantokiko egonaldian ikasleak gara ditzakeen jarduerak islatzen dituzten zenbait lan-egoera adierazten dira.

- ✓ Enpresaren antolamendu-egitura aztertzea:
  - Enpresaren egitura eta antolamendua identifikatzea.
  - Enpresaren jarduerak garatzean ohitura etikoak eta lanekoak aplikatzea.
- ✓ Laneko arriskuak prebenitzeari buruzko arauen arabera jardutea:
  - Materialak, erremintak, tresnak, makinak eta garraioak manipulatzearren arriskuak identifikatzea.
  - Segurtasun-neurriak aplikatzea.
  - Norbera babesteko ekipamendua erabiltzea.
- ✓ Ingurumena babesteko arauen arabera jardutea:
  - Kutsadura-iturriak identifikatzea.
  - Ingurumena babesteko arauak aplikatzea.
- ✓ Hortz-kabinetearen kudeaketarekin lotutako administrazio- eta harrera-jarduerak egitea:
  - Jendea artatzea, harreran eta telefonoz.
  - Pazienteei hitzorduak ematea eta aldatzea.
  - Erabiltzaileen fitxategiak hainbat euskarritan erabiltzea.
  - Dokumentazioa artxibatzea.
  - Erabiltzaileari laguntza-interbentzioaren berri ematea.
  - Biltegia kudeatzea.
  - Material nahikoa dagoela egiaztatzea.
  - Eskaerak egitea.
  - Tresnak, materialak eta produktuak biltegitratzea eta banatzea.
  - Txostenak eta jardueren laburpenak eskuratzea.
  - Ekipoak mantentzeko lanak egitea.
- ✓ Kontsulta prestatu eta egokitzea:
  - hortz-ekipoaren funtzionamendua eta egoera egiaztatzea.
  - Pertsona hortz-besaulkian egoki jartzea, aurreikusitako interbentzioa kontuan hartuta.
  - Pazienteei tratamenduari buruzko informazio guztia ematea, ezarritakoaren eta eskumen mailaren arabera.
  - Behar den tresneria eta materiala hautatzea eta prestatzea, programaturako interbentzioaren arabera.
  - Aho-barrunbea prestatzea, programaturako interbentzioari dagokionaren arabera.
  - Medikuari tresneria eta materiala ematea interbentzioetan.
  - Erabili eta botatzeko materialak eta hondakinak kudeatzea.
  - Erabilitako tresneria eta materiala garbitzea, desinfektatzea eta esterilizatzea.
- ✓ Aho-hortzen barrunbearen miaketak egitea:
  - Anamnesiak egitea.
  - Aho-barrunbea miatzea.
  - Aparatu estomatognatikoen anomalia eta patologia identifikatzea.



- Dagokion dokumentuan eskuratutako datuak erregistratzea eta kodifikatzea.
  - Ahoko osasunaren adierazleak kalkulatzea.
  - Listu-testak egitea eta erregistratzea.
  - Hortzen erradiografiak eskuratzea.
  - Irudien tratamendu digitala egitea.
  - Erradiografiak errebelatzea.
  - Erradiografiak artxibatzea.
  - Aurpegiko eta aho barruko argazkiak egitea.
- ✓ Aho-hortzetako interbentzioan laguntza-jarduerak egitea.
- Beharrezko ekipoak eta materialak hautatu eta prestatzea.
  - Hobiak eta arrailadurak zigilatzea.
  - Fluoruro topikoak aplikatzea.
  - Obturazioak leuntzea.
  - Hortzetako lertzoa eta tindaketa ezabatzea.
  - Erabiltzaileari higiene-teknikaren eta ahoa zaintzeko bestelako jarraibideen berri ematea.
  - Protesi- eta ortodontzia-aparatuen mantentze-lanetarako teknikak aplikatzea.
  - Pazienteen jarraipen- eta berrikuspen-protokoloak aplikatzea.
- ✓ Aho-hortzen osasunaren hezkuntza-eta sustapen-jarduerak egitea.
- Ahoaren osasun-mailaren gaineko informazioa eskuratzea, osasuna sustatzeko jarduerak egiteko.
  - Banakoen eta taldeen ahoko osasun-mailak identifikatzea.
  - Ahoko osasunaren hezkuntza- eta sustapen-jarduerak programatzea.
  - Osasunerako hezkuntzarako baliabideak erabiltzea.
  - Informazio-, komunikazio- eta motibazio-teknikak aplikatzea.
  - Ahoko osasunaren hezkuntza- eta sustapen-jarduerak garatzea.

## 4. GUTXIENKO ESPAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK

### 4.1 Espazioak:

| PRESTAKUNTZA-ESPAZIOA               | AZALERA (m <sup>2</sup> ) / 30 IKASLE | AZALERA (m <sup>2</sup> ) / 20 IKASLE |
|-------------------------------------|---------------------------------------|---------------------------------------|
| Balio anitzeko gela                 | 60                                    | 40                                    |
| Aho-hortzen higieneko gela teknikoa | 100                                   | 80                                    |

### 4.2 Ekipamenduak:

| PRESTAKUNTZA-ESPAZIOA               | EKIPAMENDUA   |
|-------------------------------------|---|
| Balio anitzeko gela                 | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Eredutxo anatomikoak, hortzetakoak eta fantomak.</li> <li>- Hortz-kabineteak kudeatzeko eta administrazio-zereginetarako programak eta ordenagailua.</li> <li>- Eskanerra eta inprimagailua.</li> <li>- Interneteko eta intraneteko zerbitzuak.</li> </ul>   |
| Aho-hortzen higieneko gela teknikoa | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Bost hortz-ekipo, honako hauekin: hortz-besaulkia, hortz-unitatea, jarduteko lanpara, konpresoreak, xurgatzeko sistema, xurgatzeko motorra, pedala eta taburetea.</li> <li>- Detartrajerako ultrasoinuak (ultrasoinu puntak), bikarbonatoarekin eta bikarbonato gabe. Funtzio hirukoitzeko xiringa.</li> <li>- Turbinak. Eskuko piezak. Kontraangeluak.</li> <li>- Mikromotorrak.</li> <li>- Hortz-erradiologiako eta erradiobisiografiako ekipoa, konnegatoskopia, babes erradiologikoko ekipoak, aho barruko portapelikulak eta erradiografien errebelatzaileak.</li> <li>- Aho barruko kamera eta argazki digitaleko ekipoa.</li> <li>- Artikulatzaileak eta aurpegiko arkuak. Muntatzeko platinak.</li> <li>- Tresneria garbitzeko, esterilizatzeko eta egokitzeko ekipoak: ultrasoinuak, autoklabeak, bolen esterilizatzaileak, tresnak paketzeko ekipoak eta zigilatzailea edo termoizilatzailea.</li> <li>- Hutsean modelatzeko makina, banakako kubetak eta zuritzekoak egiteko.</li> <li>- Amalgamen eta igeltsuen dardaragailuak.</li> <li>- Ebakigailuak.</li> <li>- Argi neutroko eta fotopolimerazioko lanpara.</li> <li>- Bitalometroa.</li> <li>- Kronometroak.</li> <li>- Hazkuntza-berogailua.</li> <li>- Erretxinak polimerizatzeko sistema.</li> <li>- Inpresiorako eta husteko tresneria eta materiala.</li> <li>- Miaketarako tresneria.</li> </ul> |



| PRESTAKUNTZA-ESPAZIOA | EKIPAMENDUA   |
|-----------------------|---|
|                       | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Obturaziorako tresneria.</li> <li>- Endodontziarako kutxa.</li> <li>- Periodontziarako tresneria eta materiala.</li> <li>- Ahoko kirurgiarako tresneria eta materiala.</li> <li>- Implanteen tresneria eta materiala.</li> <li>- Ortodontzia-materiala.</li> <li>- Lehen laguntzarako materiala eta ekipoa.</li> </ul> |

## 5. IRAKASLEAK

### 5.1 Irakasleen espezialitateak eta irakaskuntza-esleipenak Ahoaren eta Hortzen Higienaren heziketa-zikloko lanbide-moduluetan

| LANBIDE-MODULUA   | IRAKASLEEN ESPEZIALITATEA  | KIDEGOA  |
|---|--|--|
| 0730. Harrera eta logistika hortz-klinikan                    | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Prozesu sanitarioak</li> </ul>  | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Bigarren Hezkuntzako irakaslea</li> </ul>       |
| 0731. Aho-barrunbearen azterketa                              | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Prozesu sanitarioak</li> </ul>  | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Bigarren Hezkuntzako irakaslea</li> </ul>       |
| 0732. Aho-barrunbearen miaketa                                | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Osasun- eta laguntza-prozedurak</li> </ul>  | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Lanbide Heziketako irakasle teknikoa</li> </ul> |
|   | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Irakasle espezialista</li> </ul>  |  |
| 0733. Aho-hortzetako interbentzioa                            | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Osasun- eta laguntza-prozedurak</li> </ul>  | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Lanbide Heziketako irakasle teknikoa</li> </ul> |
|   | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Irakasle espezialista</li> </ul>  |  |
| 0734. Epidemiologia aho-osasunean                             | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Prozesu sanitarioak</li> </ul>  | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Bigarren Hezkuntzako irakaslea</li> </ul>       |
| 0735. Aho-osasunerako hezkuntza                               | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Prozesu sanitarioak</li> </ul>  | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Bigarren Hezkuntzako irakaslea</li> </ul>       |
| 0736. Kontserbatzailea, periodontzia, kirurgia eta implanteak | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Osasun- eta laguntza-prozedurak</li> </ul>  | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Lanbide Heziketako irakasle teknikoa</li> </ul> |
| 0737. Protesiak eta ortodontzia                               | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Osasun- eta laguntza-prozedurak</li> </ul>  | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Lanbide Heziketako irakasle teknikoa</li> </ul> |
| 0020. Lehen laguntzak   | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Osasun- eta laguntza-prozedurak</li> <li>• Diagnostiko kliniko eta ortopotesikoko prozedurak</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Lanbide Heziketako irakasle teknikoa</li> </ul> |
|   | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Irakasle espezialista</li> </ul>  |  |

| LANBIDE-MODULUA                            | IRAKASLEEN ESPEZIALITATEA   | KIDEGOA  |
|--|---|--|
| 1370. Fisiopatologia orokorra              | <ul style="list-style-type: none"> <li>Prozesu sanitarioak</li> <li>Diagnostiko klinikoko prozesuak eta produktu ortoprotesikoak</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>Bigarren Hezkuntzako irakaslea</li> </ul>       |
| 0738. Aho-hortzen higieneko proiektua      | <ul style="list-style-type: none"> <li>Prozesu sanitarioak</li> </ul>   | <ul style="list-style-type: none"> <li>Bigarren Hezkuntzako irakaslea</li> </ul>       |
|  | <ul style="list-style-type: none"> <li>Osasun- eta laguntza-prozedurak</li> </ul>   | <ul style="list-style-type: none"> <li>Lanbide Heziketako irakasle teknikoa</li> </ul> |
| E-200. Ingeles tekniko                     | <ul style="list-style-type: none"> <li>Ingelesa</li> </ul>  | <ul style="list-style-type: none"> <li>Bigarren Hezkuntzako irakaslea</li> </ul>       |
| 0739. Laneko prestakuntza eta orientabidea | <ul style="list-style-type: none"> <li>Laneko prestakuntza eta orientabidea</li> </ul>  | <ul style="list-style-type: none"> <li>Bigarren Hezkuntzako irakaslea</li> </ul>       |
| 0740. Enpresa eta ekimen sortzailea        | <ul style="list-style-type: none"> <li>Laneko prestakuntza eta orientabidea</li> </ul>  | <ul style="list-style-type: none"> <li>Bigarren Hezkuntzako irakaslea</li> </ul>       |
| 0741. Lantokiko prestakuntza               | <ul style="list-style-type: none"> <li>Prozesu sanitarioak</li> </ul>   | <ul style="list-style-type: none"> <li>Bigarren Hezkuntzako irakaslea</li> </ul>       |
|  | <ul style="list-style-type: none"> <li>Osasun- eta laguntza-prozedurak</li> </ul>   | <ul style="list-style-type: none"> <li>Lanbide Heziketako irakasle teknikoa</li> </ul> |

## 6 LANBIDE MODULUEN ARTEKO BALIOZKOTZEAK

| HEZIKETA-ZIKLOETAKO LANBIDE-MODULUAK (LOGSE, 1/1990)  | AHOAREN ETA HORTZEN HIGIENEAREN HEZIKETA-ZIKLOKO LANBIDE-MODULUAK (LOE, 2/2006)  |
|---|--|
| Aho-hortzen higienearen unitatean/kabinetean esleitutako lan-arloa antolatzea eta kudeatzea | 0730. Harrera eta logistika hortz-klinikan   |
| Aho-hortzen miaketa   | 0731. Aho-barrunbearen azterketa<br>0732. Aho-barrunbearen miaketa   |
| Aho-hortzen arloko prebentzioa  | 0733. Aho-hortzetako interbentzioa<br>0736. Kontserbatzailea, periodontzia, kirurgia eta inplanteak<br>0737. Protesiak eta ortodontzia |
| Aho-hortzen zaintza epidemiologikoa   | 0734. Epidemiologia aho-osasunean  |
| Osasun-hezkuntza eta -sustapena   | 0735. Aho-osasunerako hezkuntza  |
| Ahoaren eta Hortzen Higieneko tituluaren lantokiko prestakuntza                             | 0741. Lantokiko prestakuntza   |



## 7. TITULUKO LANBIDE MODULUEN ETA KONPETENTZIA ATALEN ARTEKO TRAZABILITATE ETA EGOKITASUN LOTURAK

### 7.1 Konpetentzia-atalen egokitasuna lanbide-moduluekin, horiek baliozkotu edo salbuesteko

| KONPETENTZIA-ATAL EGIAZTATUAK  | BALIOZKOTU DAITEZKEEN LANBIDE-MODULUAK   |
|--|--|
| UC1591_3: Aho-hortzetako kabinete bateko lan-arloa kudeatzea.  | 0730. Harrera eta logistika hortz-klinikan   |
| UC1592_3: Aparatu estomatognatikoaren ezaugarri anatomikoak, fisiologikoak eta patologikoak identifikatzea, balioespena eta erregistroa egiteko.                     | 0731. Aho-barrunbearen azterketa   |
| UC1593_3: Osasun-zerbitzuetako paziente/erabiltzaileen aho-hortzen osasun-egoera miatzea, helburu epidemiologikoetarako eta zuzeneko jarduketan bidez esku hartzeko. | 0732. Aho-barrunbearen miaketa<br>0733. Aho-hortzetako interbentzioa                             |
| UC1594_3: Pertsonen eta gizartearen aho-hortzen osasuna ebaluatzea, ikuskaritza epidemiologikoko jardueren bidez.  | 0734. Epidemiologia aho-osasunean  |
| UC1595_3: Pertsonen eta gizartearen aho-hortzen osasuna sustatzea, osasun-hezkuntzako eta osasun-sustapeneko jardueren bidez.  | 0735. Aho-osasunerako hezkuntza  |
| UC1596_3: Teknika odontologikoak egitea (berezkoak, delegatutakoak edo laguntzakoak), aho-hortzen osasuneko taldearen barruan.                                       | 0736. Kontserbatzailea, periodontzia, kirurgia eta inplanteak<br>0737. Protesiak eta ortodontzia |

### 7.2 Lanbide-moduluen egokitasuna konpetentzia-atalekin, horiek egiaztatzeko

| GAINDITUTAKO LANBIDE-MODULUAK  | EGIAZTA DAITEZKEEN KONPETENTZIA-ATALAK   |
|--|--|
| 0730. Harrera eta logistika hortz-klinikan                           | UC1591_3: Aho-hortzetako kabinete bateko lan-arloa kudeatzea.  |
| 0731. Aho-barrunbearen azterketa                                     | UC1592_3: Aparatu estomatognatikoaren ezaugarri anatomikoak, fisiologikoak eta patologikoak identifikatzea, balioespena eta erregistroa egiteko.                     |
| 0732. Aho-barrunbearen miaketa<br>0733. Aho-hortzetako interbentzioa | UC1593_3: Osasun-zerbitzuetako paziente/erabiltzaileen aho-hortzen osasun-egoera miatzea, helburu epidemiologikoetarako eta zuzeneko jarduketan bidez esku hartzeko. |
| 0734. Epidemiologia aho-osasunean                                    | UC1594_3: Pertsonen eta gizartearen aho-hortzen osasuna ebaluatzea, ikuskaritza epidemiologikoko jardueren bidez.  |

| GAINDITUTAKO LANBIDE-MODULUAK  | EGIAZTA DAITEZKEEN KOMPETENTZIA-ATALAK   |
|--|--|
| 0735. Aho-osasunerako hezkuntza  | UC1595_3: Pertsonen eta gizartearen aho-hortzen osasuna sustatzea, osasun-hezkuntzako eta osasun-sustapeneko jardueren bidez.  |
| 0736. Kontserbatzailea, periodontzia, kirurgia eta inplanteak<br>0737. Protesiak eta ortodontzia | UC1596_3: Teknika odontologikoak egitea (berezkoak, delegatutakoak edo laguntzakoak), aho-hortzen osasuneko taldearen barruan. |



*Instituto Vasco del Conocimiento  
de la Formación Profesional*

*Lanbide Heziketaren  
Ezagutzaren Euskal Institutua*

Avda. Lehendakari  
Aguirre, 184  
48015 – Bilbao

T. 944 47 40 37  
F. 944 47 38 62

[www.kei-ivac.com](http://www.kei-ivac.com)  
[info@kei-ivac.com](mailto:info@kei-ivac.com)

**Fp**

**EUSKADI**  
LANBIDE HEZIKETA



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Lanbide Heziketako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA  
Viceconsejería de Formación  
Profesional